IEPk 6 helburu estrategiko zehazten ditu 2020 urterako. Hauek 75 lehenasunezko aktuzioetan banatu dira.

1. Helburu Estrategikoa. Gure kapital naturala zaindu eta berriztatzea, gure ekosistemek eskaintzen dituzten zerbitzuak babesten.

2. Helburu Estrategikoa. Baliabideak modu eraginkorrean erabili karbono gutxiago erabili eta ekonomia lehiakor eta berriztaile batera abiatu.

3. Helburu Estrategikoa. Herritarren osasuna eta ongizatea hobetzen eta babesten laguntzea.

4. Helburu Estrategikoa. Lurraldearen jasangarritasuna areagotu.

5. Helburu Estrategikoa. Politiken koherentzia bermatzea ingurumenaren integrazioa areagotuz.

6. Helburu Estrategikoa. Euskadiren nazioarteko erantzukizuna eta proiektzioan laguntzea.

Bizkaia 21 Egitasmoa

Bizkaia 21 Egitasmoak ondorengo ingurumen helburuak ezartzen ditu:

- Biodibertsitatea babestea, arriskuak dauden espezieei arreta berezia jariz eta espezie inbaditzaileen prebentzioa eta desagerraraztea sustatzea.
- Lurra erabiltzeko eta hartzeko aldaketak gutxitzea eta optimizatzea.
- Ingurumen, ekonomia, gizarte, kultura eta osasun ezaugarriak sartzea lurraldearen antolamenduaren garapena arautzen duen plangintzan.
- Erabilera anitzeko eta erabilera nahasketa duten hiriguneen eredu trinkoetara bideratzea, non finkaturiko hiri-sareak eta eraikitako ondarearen sareak ere hobetuko diren.
- Egoera txarrean dauden lurralde eremuak birgaitzea.

Helburu hauek lortzeko ezartzen diren jarduera-ildoak kontuan hartu beharko dira udalerrriaren kudeaketan eta Getxoko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean.

Euskal Baso Plana (1994-2030)

Euskal Baso Planak, Euskal Nekazal Plan Estrategikoa garatu du lurraldearen eremu batzuetan: basoetan, faunan, landaredian eta Parke Naturaletan.



Plana baso-azalera guztietan aplika daiteke, bai eta, horiez gain, etorkizunean ingurunearen faktoreak edo baldintzatzaile sozio-ekonomikoak direla medio izango diren azaleretan ere. Plan honen helburuak hurrengoak dira:

1. Baso-lurraldea antolatzea eta mugatzea.
2. Baso-kudeaketako arauak ezartzea.
3. Azpiegiturak, informazioa eta prestakuntza teknikoa.
4. Baso-ekintza eta gizartea elkartzea.

Getxon baso naturalen hainbat orban eta baso-landaketa ditu iparraldean eta ekialdean, beraz, Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean aurreikusten diren jarduerak Euskal Baso Plana kontutan hartu behar izango dute.

Klima-Aldaketaren Aurkako 2050erako Euskal Estrategia (Gobernu Kontseiluak 2015eko ekainean onartua)

Estrategia hau planifikazio tresna bat da eta Euskadik amaierako horizontea 2050 urtea izan arren, Estrategia berriak helburu eta jarduera zehatzagoak ere definituko ditu 2020ko eta 2030eko horizonteetarako, klima aldaketari egokitzeko eta bere eraginak gutxitzeko.

Horrela, klima aldaketaren aurkako akzioa bi modutan egin daiteke:

- Lehenik, berokuntza globalaren kausei aurre egiten saiatuz, BEGemisioak beren emisio-iturrietan murriztuz. Lan-arlo horri klima "moteltzea" deitzen zaio.
- Bigarrenik, ekintza hori oso bizkorra izan arren, klima-aldaketaren efektuak jadanik gelditzen ari dira, eta etorkizunean maizago eta intentsitate handiagoz gertatuko direla ikusten da. Horrenbestez, beharrezkoa da inpaktuak minimizatzen zuzendutako jarduerak bultzatzea, inplikaturako sektoreetan, batez ere garapen bidean dauden herrialdeetan. Bada, ekintza multzo horri klima-aldaketara "egokitzea" deitzen zaio.

KAEE 2050ak hiru konpromiso zehazten ditu, helburuak gidatuko dituztenak:

1. Ahalegin global baterako ekarpena. Beroketa efektua sortzen dituzten zergatien gure lurraldetik aurre egin, BEGen isurketak murriztuz eta inpaktuak gutxitzeko ekintzei bultzada emanez;
2. Karbono gutxiko eta egokitutako gizartea. Lurralde seguru eta osasungarri bateko eta karbono gutxiko ekonomia lehiakor bateko garapena bultzatu eta antolatu. Irtenbide berritzaileak gehitu behar zaizkio energia, garraio eta industria inbertsioak mugiarazteko eta energia eraginkortasuneko politikak nabarmendu;



3. Teknologia berri eta garatu klima-aldaketa moteltzen eta aldaketa horri egokitzen laguntzeko. Teknologia hipokarboniko berriak eta egokitzeko teknologiak garatu I+Garen eta formazioaren bitartez.

Eta ondorengo helmuga hauek aurkezten ditu:

1. Karbono gutxiko energia-eredu baten alde egitea.
2. Emisiorik gabeko garraio baterantz aurrera egitea
3. Lurraldearen eraginkortasuna eta erresilientzia areagotzea
4. Natura ingurunearen erresilientzia handitzea
5. Lehen sektorearen erresilientzia handitzea eta haren emisioak murriztea
6. Hiri-hondakinen sorrera murriztea eta zero isurpen lortzea traterarik gabe
7. Arriskuei aurre hartzea
8. Berrikuntza, hobekuntza eta ezagutzaren transferentzia bultzatzea
9. Euskal Administrazio Publikoa arduratsu, eredu eta erreferente da klima-aldaketaren arloan

Bizkairako Energia Iraunkorreko Estrategia 2020

Bizkaiko Foru Aldundiak, jasangarritasunaren alde duen konpromisoarekin bat etoriz, gogoeta estrategikoa egin du bere etorkizun energetikoaren inguruan, eta EESB2020 formulatu du. Energia-politika propioa da (foru, udal eta banakako esparruan), aurreztea, eraginkortasun energetikoa eta energia berriztagarrien sustapena sustatzeko. Estrategiak nabarmentzen du udalek eta tokiko erakundeek energia jasangarriaren arloan duten zeregina.

BEIE 2020 Esparru estrategikoen barruan zehazten diren erronka energetikoak hurrengoak dira:

- Energia gutxiago kontsumitzea eta energia-eraginkortasuna hobetzea.
- Petrolioaren eta gas naturalaren mendetasuna murriztea.
- Energiaren kontsumoa jarduera ekonomikoaren eboluziotik askatzea.
- Energia-jarduera natur eta kultur ondarearen kontserbazioarekin bateratzea.

Udalerriek eta, zehazki, udal-plangintzak, Aldundiak estrategia honetan ezarritako erronkak eta jarraibideak jaso behar dituzte, eta, era berean, mugikortasun iraunkora eta energetikoki eraginkorrak diren etxeak sustatzeko jarraibideak jaso behar dituzte beren araudian.



Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoru Poluituen Plana

EAEko Lurzoru Poluituen Planak hiru ekintza-lerro nagusi deskribatzen ditu:

- *Babestea eta prebentzioa*
- *Kasurik presazkoenak berreskuratzea*
- *Iragan denboretatik lurzoru poluitu gisa oinordetzan hartutako pasiboa epe ertain-luzera planifikatzea*

Plan honek industria-jarduerako jatorri antropikoa duten substantzia kimikoetan arreta jartzen du. Proposatutako ekintza batzuk hurrengoak dira: Lurzoru poluituekin degradatutako eremuak lurralde-antolaketa eta hirigintza-planeamenduan integratzea; kutsadura saihesteko neurriak sartzea, jarduera-lizentziekin, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioarekin edo ingurune-baimen bateratuarekin. Planaren ekintzek, gainera, kutsatutako edo kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen inbentario eguneratu bat egitea daukate barne.

Inbentariatutako leku-mota garrantzitsuenak hurrengo lerroetan deskribatuko dira:

- Industria-leku aktiboak: Euskal lurraldean presentzia handiena duen tipologia da.
- Zabortegiak
- Jarduera gabeko industria-lekuak:
 - *Industria hondakinak*: leku hauetan industria-jarduera amaitu da, baina kontserbazio-egoera txarrean dauden eraikinak daude.
 - *Aktibitate gabeko lekuak*: leku hauetan industria-jarduera amaitu da, baina kontserbazio-egoera onean dauden eta berriz erabili litezken eraikinak daude.
 - *Orubeak*: industria-jarduera amaitu da, industrial eta eraikinak eraitsi egin dira.
- Leku hondatuak: partzela hauetan iraganean lurzoru poluizezaketan jarduerak egon ziren, baina gaur egun industriakoa ez den beste erabilera batzuetarako edo lurzoru poluitzen ez duten jardueretarako erabiltzen dira.

Getxoko udalerrian, kutsatuta egon daitezkeen 73 lursailen inbentarioa egin da (20. mapa eta "kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen" atala). Guztira, 197.359 m²-ko azalera hartzen dute.



Tokiko Agenda 21aren Tokiko Ekintza Plana (2020-2023) / Ekintza Plana Agenda 2030

Tokiko Agenda 21 kontzeptuak 1992ko Ingurumenari eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Konferentzian du jatorria (Rioko Goi Bileran). 1994an, Europako Konferentzia egin zen Danimarkan, eta bertan, Aalborgeko Gutuna izenekoa sinatu zen. Horren bidez, Europako hiriek, herri txikiagoek eta lurralde-unitateek konpromisoa hartu zuten Agenda 21en tokiko ekimenetan parte hartzeko eta iraunkortasunerako epe luzeko programak garatzeko.

2003tik, Getxoko udalerrria Udalsarea 21aren parte da, euskal udalerrietako Tokiko Agenda 21ak koordinatzeko eta udalerrien arteko koordinazio-foro batezartzeko, tokiko ekintza-planak gauzatu ahal izateko.

Getxoko udalerriko Ekintza Planaren ildo estrategikoak honako hauek dira:

1. Udal-kudeaketa iraunkortasun-irizpideekin
2. Ingurumen-kalitateko informazioa eskuratzea eta herritarren parte-hartzea aktibatzea.
3. Hirigintza jasangarrian aurrera egitea.
4. Udalerriko natura-balioak, biodibertsitatea eta paisaia zaintzea
5. Ingurumenaren kalitatea eta baliabideen erabilera iraunkorra.

Era berean, 2020ko otsailean, Udalak "2016-2019 aldirako ekintza-planaren gauzate-mailaren ebaluazioa" izeneko dokumentua argitaratu zuen. Txosten honen datuen arabera, Tokiko Agenda 21 Planaren ezarpen-maila, Udalsarearen formularen arabera, %78,52koa da.

Ondoren (2021eko urtarrila), Garapen Iraunkorrerako Tokiko Agenda 2030eko Ekintza Plana onartu zen, Agenda 21en ekintza-planei jarraipena ematen diena. 2030 Agenda Nazio Batuetako estatu kideen konpromisotik sortu zen, eta Garapen Jasangarriko 17 Helburuak (GJH) jorratzen ditu. Planak 5 ildo estrategiko, 18 programa eta udalerraren jasangarritasuna areagotzera bideratutako 65 ekintza ditu. Jarraian, ildo estrategikoak jaso dira:

- 1. IE: Udalaren kudeaketa jasangarritasun irizpideekin
- 2. IE: Ingurumen kalitatearen arloan informazioa eskuratzea eta herritarren parte-hartzea sustatzea
- 3. IE: Hirigintza jasangarrian Aurrera egitea
- 4. IE: Udalerriko balio naturalak, biodibertsitatea eta paisaia babestea
- 5. IE: Ingurumen kalitatea eta baliabideen erabilpen jasangarria



Mugakideak diren udalerrien arau subsidiarioen edo indarrean dauden HAPOen azterketa (Udalplan 2020)

Sopela (b) motako ASak, 1999. Urtean Behin Betiko Onespena)

Getxo Sopelarekin mugakide da ipar-ekialdean. Bi udalerrien arteko mugaren zati bat kategoria desberdinetako Lurzoru Urbanizaezinari dagokio, neurri batean bat ez datozenak: Getxon definitutako kategoria Babes Bereziko kategoria da; Sopelan, aldiz, mugakide diren lurzoruak Ingurumenaren Babes Bereziko eta Hobekuntzako kategorian sartzen dira. Sopelarekin muga egiten duen gainerako lurzoru Espazio libreen Sistema Orokor gisa kalifikatuta dago; Sopelan, lurzoru urbanizagarria, ingurumen-hobekuntza, bizitegirako hiri-lurzoru kontsolidatua eta bizitegi-lurzoru urbanizagarria dira.

Berango (HAPO, 2011. urtean Behin Betiko Onespena)

Berango udalerririk Getxorekin egiten du muga ekialdean. Berangon, hauek dira iparraldeko lur mugakideak: lurzoru urbanizaezina (Nekazaritza eta Abeltzaintza eta Landazabala eta Babes Berezia) eta hiri-lurzoru finkatua eta bizitegi-lurzoru finkatua. Getxon, gaur egun indarrean dagoen lurzoru gehiena bizitegi-lurzoru urbanizagarria da. Berangoko erdialdeko lurzoru mugakide ia guztiak bizitegirako hiri-lurzoru finkatuak dira; Getxon, aldiz, bizitegitarako lurzoru urbanizagarria eta bizitegirako hiri-lurzoru kontsolidatua, jarduera ekonomikoetarako lurzoru eta espazio libreen sistema orokorrak tartekatzen dira. Berangotik hegoalderago dauden lurzoruak, Getxorekin mugakide direnak, bi udalerrietan grafiatzen dira, hala nola lurzoru urbanizaezinean, Gainazaleko Uren Babesa kategorian, Berangon Babes Bereziarekin bat datoren orban txikiren bat izan ezik, eta Getxon basoekin.

Erandio (b) motako ASak, 1992. Urtean Behin Betiko Onespena)

Getxo Erandioren mugakide da ekialdetik. Bi udalerrien arteko muga Lurzoru Urbanizaezinari dagokio; hala ere, Getxon definitutako kategoriak Basoa, Nekazaritza eta Abeltzaintza eta Landazabala dira, eta Gainazaleko Uren Babeserako zerenda txiki bat. Erandion, aldiz, mugakide diren lurzoruak Nekazaritza, Abeltzaintza eta Landazabala kategorian eta Azaleko Uren Babesa kategorian sartzen dira.

Leioa (HAPO, 2001. urtean Behin Betiko Onespena)

Getxo Leioa udalerriarekin mugakide da hego-ekialdean. Leioatik iparralderago dauden lurra babes bereziko lurzoru urbanizaezinen, ekipamenduen sistema orokorren eta jarduera ekonomikoetarako hiri-lurzoru finkatuaren kategoriakoak dira. Hala ere, Getxoko mugakide diren lurzoruak bat datoz baso-lurzoru urbanizaezinekin eta ekipamenduen sistema orokorrekin. Bi udalerrien mugakide diren gainerako lurzoruak bizitegirako hiri-lurzoru finkatua, ekipamenduen sistema orokorrak eta espazio libreak dira. Aipatzekoa da Leioan jarduera ekonomikoetarako hiri-lurzoru finkatuari dagozkion lurzoruak daudela.



2. HAPOren IRISMENA, EDUKIA ETA GARAPENA

2.1. Indarrean dagoen plangintza

Getxon indarrean dagoen Hiri Antolamenduko Plan Orokorra behin betiko onartu zen Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluaren 2000ko urtarrilaren 18ko Erabakiaren bidez. Bere artikulua, beharrezko zuzenketak sartu ondoren, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren, 2001eko uztailaren 23ko 141. zenbakian. Planariez zitaion ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazioa egin.


Indarrean dagoen HAPOk, beraz, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea egokitzea eskatzen du, bigarren Xedapen Gehigarrian ezarritakoaren arabera. Gainera, igaro den denboran, lurralde-antolamendurako tresna ugari onartu dira (LAG, LPS eta LPP), baita beste araudi sektorial batzuk ere, HAPOk horietara egokitu behar baitu, eta, aldi berean, irizpideak eta helburuak berrikusi behar dira.

Bestalde, HAPOk hainbat aldaketa puntual eta hiru akats-zuzenketa izan ditu denboran zehar, HAPOren 2013ko bertsio bateratuan jasotakoak. Gainera, zenbait garapen-dokumentu onartu dira, nahiz eta funtsean bere ereduari eutsi zaion.

Indarrean dagoen HAPOren arabera, bizitegi-erabilera da nagusi, eta haren mende dago gainerako erabileren garapena. Hirigunea sendotu eta osatzen du, baita hiri-ehuna duten beste irla batzuk ere (Etxezuri, Comporte, Iturribarri, Zubilleta, Venancios, Aixerrota eta Ormaza) eta Andra Mariko gunek txikiren bat (500 ha). Dentsitate txikiko lurzoru urbanizagarriko sektore handiak mugatzen ditu, udalerraren iparraldean eta ekialdean batez ere (250 ha), eta batez besteko dentsitatea esleitzen die 1982ko Arau Subsidiarioetatik zetozen planei. Gainerako lurzoru (Leioarako eta Berangorako bidekorridorearen eta Galeako itsaslabarren eta kostaldeko lerro mugakidea lurzoru urbanizaezin gisa sailkatzen da (360 ha).

Lurzoru urbanizaezinentzat honako antolamendu-kategoria hauek ezartzen ditu:

- Hertsiki zaintzeko eremuak
- Sortu beharreko baso-erabilerako eremuak
- Kontserbazio aktiboko eremuak
- Nekazaritza-erabilerako eremuak
- Berroneratze- eta hobekuntza eremuak
- Lurrazaleko urak babesteko eremuak



Irudia 6. Getxon indarrean dagoen HAPOko lurzoruaen sailkapena eta kalifikazioa (Udalplan 2020)

2.2. Plan Orokorren berrikuspenaren justifikazioa

HAPO berrikusteko arrazoiak honako hauek dira: plana garatzeko indarrean dagoen HAPOn adierazitako epea igarotzea, lurralde-antolamenduko hainbat tresna onartzea (Lurraldearen Antolamenduko Gidalerroak eta Lurralde Plan Sektorialak) eta arauen bilakaera, bereziki Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea indarrean jartzea. Era berean, planeamenduak ingurumen-ebaluazioaren prozedura bete behar du, baita ingurumena babesteko irizpideetara egokitzeko prozedura ere (planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duen 211/2012 Dekretuaren eta Ingurumen Ebaluazioari buruzko 10/2021 Legearen arabera).

Azkenik, HAPO berrikusteko behar materiala sumatzen da, urte hauetan diseinu grafikoan, oinarri topografikoen zehaztasunean eta informazio geografikoko sistema modernoan erabilgarritasunean egindako aldaketen ondorioz.

Gaur egungo HAPOk hogeitau urte inguru daramatza indarrean. Egikaritze-maila oso desberdina izan da, lurzoru urbanizagarriari dagokionez batez ere, funtsean ez baita garatu, eta antolamendu-eskemei erantzuten die (batez ere zuzkidura-kuantifikazioei eta -estandarrei dagokienez, baita ingurumen-alderdiei dagokienez ere), indarrean dauden eta hirigintza jasangarriaren oinarrituta dauden legezko irizpideen arabera eguneratu behar baitira.

A pesar de no constar firmas manuscritas, este documento tiene validez legal. En la Página Web Municipal (https://www.getxo.eus/validadocumentos) podrá obtener una copia auténtica de este documento en formato digital, mediante el Código Seguro de Verificación que aparece en el margen izquierdo.

Agiri honek eskuz idatzitako sinadurik ez izanperik ez duen arren, legezko balioa du. Getxoko Udaltzaletan web-orrialdeitik (https://www.getxo.eus/dokumentuak/egiaztatuz) agiri honen benetako kopia eskuratu ahal duzue formatu digitala, ezkerreko aldean ageri den egiaztatze-kode segurua erabiliz.

CSV: GET/CSV/2024/21482 kjmtErBhrY



2.3. Antolamendu Ereduren proposamena

2.3.1. Bizitegi-ereduren hautaketa

Egungo hiriguneari eustea erabaki da, eta inguruetako hazkunde iraunkorra planteatzea, indarrean dagoen Plan Orokorra baino edukiagoa, batez ere bloke kolektiboaren tipologia.

Hiri-lurzoru finkatua eta finkatugabea

Hiri-lurzorurako, lehenik eta behin, lurzoru finkatze-maila handiarekin eta gaur egun egikaritzen ari diren esparruekin amaitzea erabaki da. Hiri-lurzoru finkatua, nagusiki, Areetako eta Neguriko lurzoru urbanizatuaren nukleoak eta Algortako eta Andra Mariko mendebaldeko eremuek osatzen dute, eta horien inguruan artikulatzen diren espazioak daude, bide-azpiegituran oinarrituta.

Finkatu gabeko hiri-lurzorurako zuzkidura-jarduketak eta jarduketa integratuak planteatzen dira. Hiri-lurzoru finkatugabe gisa honako eremu hauek antolatzen dira:

- Bizitegi-zuzkidurako jarduketak - AD-R

Izena	Azal. m ²	Izena	Azal. m ²
AD-R01 Maidagan, 22	1.163,29	AD-R30 Oca 2A	437,75
AD-R02 Aretxondo, 04	892,30	AD-R31 Cervantes 4 y Zugatzarte 56-6	9.345,54
AD-R03 Basagoiti, 43	1.753,13	AD-R32 Máximo Aguirre 29	302,56
AD-R06 Julian Garaizar, 10	907,61	AD-R33 Amistad 7	305,79
AD-R07 Julian Garaizar, 08	1.262,41	AD-R34 Leioa 15	1.562,62
AD-R08 Julian Garaizar, 06	1.585,25	AD-R35 Simon Otxandategi 140	374,30
AD-R09 Marques del Real, 03	1.417,25	AD-R36 Salsidu 113	524,14
AD-R10 Manuel Smith, 03	1.089,42	AD-R37 Salsidu 70	504,24
AD-R11 Amalloa, 08	96,86	AD-R38 Aretxondo 14	450,18
AD-R12 Amalloa, 06	128,31	AD-R39 San Ignacio 8	2.159,45
AD-R13 Santa Eugenia, 18	299,38	AD-R41 Telefonica Ibaigane 10	1.981,17
AD-R14 Mayor, 29	212,22	AD-R42	1.087,14



		Telefonica Gaztelumendi 19	
AD-R15 Maximo Aguirre, 18	431,93	AD-R43 Muxikeaurrekoa 14	152,22
AD-R16 Jolastokieta, 11	264,98	AD-R44 Ibaibide 11	398,84
AD-R17 Errebitarte, 09	285,18	AD-R45 Neguri 6	264,35
AD-R18 Santa Ana, 25	123,82	AD-R46 Torrebarria 1 y 3	2.268,44
AD-R21 Eretza, 4A	747,73	AD-R47 Maidagan 58	1.905,41
AD-R22 Martikoena, 11-13	515,20	AD-R48 Maidagan 60A	974,85
AD-R24 San Nicolas, 08	1.020,95	AD-R49 Zubitxoa 1	4.205,79
AD-R27 Estrada de Goñi, 05	1.059	AD-R50 Gustavo Adolf Becquer 7	2.128,45
AD-R28 Estrada de Ormazza, 24	523,45		

Taula 2. Bizitegi-zuzkidurako jarduketak

- Bizitegi Jarduketa Integratuak - AI-R

Izena	Azal. m ²	Etxeb. kop. (bab. eta libre)
AI-R01 Martikoena	8.004,1	81 (46 eta 35)
AI-R02 San Nicolas	5.451	46 (28 eta 18)
AI-R04 Katea-Puerto Orduña	4.142,18	55 (30 eta 25)
AI-R05 Algorta	1.348,42	14 (librea)
AI-R06 Zubilleta	61.616,38	357 (193 eta 164)
AI-R07 La Galea	3.597,94	10 (libre)
AI-R08 Txiskiena	1.569,36	24 (libre)
AI-R09 Areazpi	3.395,75	22 (libre)
AI-R10 Nervion-Iturgitxi	2.457,78	14 (libre)
AI-R11 Ormazza	46.141,90	214 (108 y 106)
AI-R12 Azkonarre	7.113,73	24 (24 libre)

Taula 3. Bizitegi Jarduketa Integratuak

Eremuak hiri-hutsuneen eta egungo eremu finkatuekin mugakide diren espazioen artean banatzen dira. Ahalik eta lurzoru gutxien kontsumitzen duten espazio trinkoak diseinatzeko saiatu da, betiere zuzkidura-estandarrak betetzen direla bermatuz. Eraikigarritasun-parametroak eta etxebizitza-kopurua justifikazio-memorian laburbiltzen dira, eta ordenantza xehatua zehazten dira.

Andra Marin lehendik dauden honako eremuek, hiri-lurzorutzat hartzeko beharrezko baldintzak betetzen dituzte, baina behar besteko finkatze-mailarik ez dutenez, Plan Bereziaren bidez antolamendu xehatura bidaltzen direnak.

- ARRU-PE-R01 Uri. 63.162 m²
- ARRU-PE-R02 Perune. 31.338 m²
- ARRU-PE-R03 Diliz Goikoa. 24.931 m²
- ARRU-PE-R04 Diliz Behekoa. 25.232 m²



- ARRU-PE-R05 Saratxaga. 32.080 m² - ARRU-PE-R06 Moreaga. 17.048 m²

Lurzoru urbanizagarri sektorizatua

Lurzoru urbanizagarriko bost sektore planteatzen dira guztira 590.465 m² hartzen dituztenak. 3.130 etxebizitza aurreikusten dira, hauetatik 2.521 babestuak. Hauetako batzuk HAPOn zuzenean antolatzen dira.

Izena	Kalifikazioa	Azal. m ²	Etxeb. kop. (bab. eta librea)
S-R01 Tosu	Bizitegia	133.190	808 (631 y 177)
S-R02 Muru	Bizitegia	89.740	455 (401 y 54)
S-R03 Peña Santa Marina	Bizitegia	136.084	897 (701 y 196)
S-R04 Dendariena	Bizitegia	135.058	571 (468 y 103)
S-R05 Dilizgoikoa	Bizitegia	96.393	399 (319 y 80)
GUZTIRA		590.465	3.130 (2.521 Y 610)

Taula 4. Bizitegi-sektoreak lurzoru urbanizagarri sektorizatuan

Lurzoru urbanizaezina

Lurralde-plangintzak zehaztutako kalifikazioak eta izaera sektorialeko beste eragin batzuk jasotzen dira, baita baldintzatzaile gainjarriak ere, nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapenari lotu gabeko bizitegi-garapenak nabarmen mugatzen dituztenak.

2.3.2. Jarduera ekonomikoetarako ereduaren hautaketa

Oro har, orain sakabanatuta dauden espazioak betetzea planteatzen da, batez ere, koherentzia emateko jarduketa integratuen bidez eta epe ertain-luzerako plangintza estrategikoago baten bidez, dagokion Plan Partzialaren bidez antolatu behareko lurzoru urbanizagarriko sektoreetan mugatuz.

Hiru-lurzoru finkatua eta finkatugabea

Bizitegi-erabilerarako bezala, lurzoru urbanizatua eta eraikia mugatu dira hiri-lurzoru finkatu gisa. Finkatugabetzat jo dira eskala eta inguruneko inguruabar juridiko eta fisikoak kontuan hartuta, 2/2006 Legearen 11.3 b) artikuluan ezarritakoa betetzen duten lurzoruak.. eremu hau mugatu da (Bategarritze-Plana): PC-M01 Mimenaga. 97.165 m².

Lurzoru urbanizagarria

Hirugarren sektoreko jarduera ekonomikoetarako, egungo Errotatxu industrialdearen beste aldean dagoen sektore bat mugatzea planteatzen da (SM-01 Martiturri, 123.317 m²) al otro lado del actual Polígono Errotatxu, jarduera berrietarako beharbezala ordenatzeko.



Lurzoru urbanizaezina

Nekazaritza- eta abeltzaintza-jardueraz eta natura-ingurunearekin zuzenean lotutako jardueraz gain (Nekazaritza eta Basozaintzako LPSaren erabilera-ereduari jarraikiz antolatzen dira), kirol- eta jolas-espazioak planteatzen dira, hala nola Galeako golf-zelaia.

2.3.3. Ekipamendu-ereduaren hautaketa

Ez da aurreikusten ekipamendu-sistema orokor berririk lortu beharrik, daudenak handitu eta/edo hobetzeari kalterik egin gabe. Planteatutako garapen-eremuak gauzatzearen ondoriozko tokiko osagarri-sistemek, behar bezala dimentsionatuta, behar bezala artikulatuko dute txertatzen diren ingurunea.

A. Sistema orokorrak

Udalerrria aztertu denean adierazi den bezala, Getxo, oro har, nahikoa hornituta dago ekipamenduei eta azpiegiturei dagokienez. Eredu orokorrari dagokienez, lurzoru urbanizagarriko sektore berriak modu egokian hornitzea proposatzen da.

B. Sistema lokalak

Garapen berriko eremu bakoitzak legeak ezarritako toki-zuzkidurak izan beharko ditu gutxienez. Haren kuantifikazioa antolamenduaren justifikazio-memorian laburbiltzen da, eta araudi xehatuaren dagozkion fitxetan zehazten da.

C. Zuzkidura egokaritzeko eremuak

Izena	Azal. m ²
AD-E01 Algorta, 108 (Col. Trinitarias)	2.382,44
AD-E05 Gobela, 17 (Col. Divino Pastor)	1.361,60
AD-E06 Atxekolandeta 1 (Lezama Jauregia Leguizamon ostatu azpierzemua)	11.374,22
AD-E07 Ibarrangoa 1 (Gasolindegia)	9.585,25
AD-E08 Caridad 2 (Ugartena jatetxea)	406,44
AD-E09 Santa Eugenia 25 (Aparkalekua)	451,48
AD-E10 Maidagan 45 (Kooperatiba)	1.303,41
AD-E11 Basagoiti 61 y 63 (Zubin+ Eterna)	336,59
AD-E12 Chopos 18 (Jolaseta Klub-a)	33.029,47

Taula 5. Zuzkidura-jarduketak, zuzkidurakoa



Izena	Azal. m ²
AEDP-SUC-A Paseo El Puerto, 29	202
AEDP-SUC-C Txakursolo 10-12	404
AEDP-SUC-D Apertura Particular de Ibarra (Particular de Ibarra 4)	92,39
AEDP-SUC-E Apertura Particular de Ibarra (Particular de Ibarra 5)	21,26
AEDP-SUC-F Apertura Padre Felix de la Virgen	1136,34
AEDP-SUC-G Ampliación Bastiantxuna	227,07
AEDP-SUC-H Ampliación salida Urgull	55,47
AEDP-SUC-I Ampliación Maidagan (Maidagan 5)	176,99
AEDP-SUC-J Ampliación Maidagan (Maidagan 41)	86,53
AEDP-SUC-L Malakate (Ollarretxe)	120,39
AEDP-SNU-A Larrañazubi, 12	1.392
AEDP-SNU-B Larrañazubi, 12	4.142
AEDP-SNU-C Ampliación Fadura, apertura vial trasero y mejora ambiental	44.565,89
AEDP-SNU-D Apertura calle Munarrikolanda Berango	206

Taula 6. Zuzkidura publikoak egikaritzeko jarduketak

Izena	Azal. m ²
PERU-01 Puerto Viejo	22.893
PERU-02 Plaza de la Estación	15.307

Taula 7. Zuzkidura Publikoen Plan Bereziak

D. Espazio libreak eta berdeguneak

Indarrean dagoen Plan Orokorrean aurreikusitako sistema orokorrei eutsi zaie, haien benetako mugaketari egokituta, eta beste sistema sortu berri batzuk aurreikusi dira, garapen berrietara egokituta. Berritasun garrantzitsuena Murun (ZSGEL-SR-Muru) parke handi bat sortzea da, 35.208 m²-koa.

2.3.4. Natura ingurunearen proposamena

Hauek dira HAPOn proposatutako lurzoru urbanizaezinaren **antolamendu-kategoriak** (ikus IV. eranskina):

- Babes Berezia
 - o Lehentasunezko Batasunaren intereseko habitatak
 - o Babes Berezia: bertako basoak edo antzeko espezieak dituztenak
 - o Hiri Hondartzak
- Basoa
 - o Basoa
- Gainazaleko uren babesa
 - o Gainazaleko uren babesa



- Hezeguneen babes eremuak
- Nekazaritza, Abeltzaintza eta Landazabala
 - Nekazaritza, Abeltzaintza eta Landazabala : Balio Estrategiko Handia
 - Nekazaritza, Abeltzaintza eta Landazabala : Trantsizioako landa-paisaia
- Ingurumen Hobekuntza
 - Ingurumen hobekuntza

Bestalde, honako **baldintzatzaile gainjarri** hauek hartzen dira kontuan:

Arrisku naturalei eta klima aldaketari buruzkoak:

- Akuiferoen zaurkortasuna (oso altua, altua eta ertaina)
- Arrisku geologikoak: muturrekoak eta oso larriak diren higadura-prozesuak
- Uholde arriskua
 - Uholde arriskua (10, 100, 500)
 - Lehentasunezko fluxu gunea
 - UAHE (ES017-BIZ-IBA-03-Getxo)
- Aldaketa klimatikoari lotutako arriskuak
 - Sute arrisku altua eta ertaina
 - Intereseko habitatak
 - Itsas mailaren igoeragatik urpean gera daitezkeen eremuak
 - Hiri-inguruneke ibai-uholdeak
 - Hiri-ingurunean itsasoa igotzearen ondoriozko uholdea
 - Bero-boladek osasinean izan dezaketen eragina

Azpiegitura berdea:

- Bere ingurune-balioengatik babestutako eremuak
 - Natura intereseko gunek katalogatua: 08-Punta Galea Barrika
 - Hondartzak
 - Hezeguneak: Bolue ibarreko istilak eta Gorrondatxeko putzua
- Batasunaren intereseko habitatak
 - Itsasoko hondakin metatuen gaineko urteroko Landaredia
 - Atlantikoko eta Baltikoko kostaldeetako landaredia duten labarrak
 - Enbrioi-duna mugikorak
 - Txilardi lehor europarrak
 - Altitude txikiko sega-belardi pobreak
 - Belardi lehor erdinaturalak eta sastrakadi-fazieak kare-substratuen gainean
- Kudeaketa plana duten espezie mehatxatuak (bisoi europarra eta arrain hiruarantza)



- Korridore ekologikoak (ingurumen Foroak proposatua)
- Paisaia intereseko elementuak
 - o Pasaia zedarriak: Aixerrota errota
 - o Paisaia berezien eta bikainen katalogoa

Beste baldintzatzaile batzuk :

- Geologia Intereseko Lekuak
 - o Gorrondaxeko eozenoa
 - o Galea-Barrikako paleorasa
 - o Tunelboca eta Gorrondaxeko hondartza zementatuak
 - o Numulites Punta-Galea-Tunelbocan
 - o Punta Galeako tolestura sinklinala
 - o Interes geologikoko ibilbideak
- Ibai eta errekek
 - o Osagai hidraulikoa
 - o Hirigintza osagaia (hiri-garapeneko marjina, hiri-garapenen potentziala duena, eta landa-eremukoa)
- Ondare arkeologikoa
 - o Interes arkeologikoko guneak (A, B, E klabeak)
 - o LPSrako proposatutako arkeologia-intereseko eremuak
 - o Proposatu ez diren beste arkeologia elementu batzuk
- Intereseko ibilbideak (oinezkoentzako (GR-123) eta bizikletentzako ibilbideak)
- Kutsatuta egon daitezkeen lurzorua
- Eragin akustikoa duten eremuak (ZAE-Zerbitzu akustikoko eremuak)
- Eragin aeronautikoko eremua
 - o Aireontzien eragiketen zortasuna
 - o Aerodromoaren eta irrati-elektrikoen zortasunen inguratzailea

Honez gain, lurzoru urbanizaezinean, zuzkidura publikoen jarduketa hauekaurreikusten dira:

- AEDP-SNU-A y B, Larrañazubi, 12. Azalera: 1.392 eta 4.142 m²
- AEDP-SNU-C, Ampliación Fadura (La Palmera). Azalera: 44.565,89 m²
- AEDP-SNU-D Munarrikolanda Berango kalea irekitzea. Azalera: 206,43 m²



3. UDALERRIAREN INGURUMEN-EGOERAREN DESKRIBAPENA

Getxo (Bizkaia) kostaldeko udalerria da, EAEko ipar-mendebaldean dago eta Bilbo Metropolitarrako Eremu Funtzionalean dago (1. mapa). Udallerriak 11,5km²-ko azalera du eta 75.430 biztanle ditu, 35.177 gizon eta 40.253 emakume (Eustat, 2023).

Itsas mailatik 47 metroko altueran dago, eta bere mugak honakoak dira: ipar-ekialdean Sopela; ekialdean Berango eta Erandio; hego-ekialdean Leioa eta Kantauri itsasoa eta Bilboko itsasadarra gainerako mugetan.

Getxoko Hiri Antolamenduko Plan Nagusiaren berrikuspenak ingurumenean duen eragina baloratu ahal izateko, honako arloak aztertu dira, batzuk besteak baino sakonago, garrantziaren arabera betiere:

- Ingurune fisikoa: Harri ama mota eta zorupea, iragazkortasuna, ur-masa eta -puntuak, faktore klimatikoak, lurzoru mota eta gaitasun agrologikoa.
- Ondare naturala: ibaiak, arriskuan dauden fauna- eta flora-espezieen banaketa-eremuak, batasunaren intereseko habitatak, naturgune babestuak, hezeguneak, bertako espezieen basoak, landaredia, flora eta fauna autoktonoak, interes geologikoko lekuak, korridore ekologikoak, etab.
- Ekosistemen zerbitzuak.
- Paisaia.
- Ingurumen-arriskuak eta -arazoak: higadura-arriskuak, lurazpiko uren kutsadurarekiko zaurgarritasuna, uholde-arriskua, arrisku geoteknikoak, klima-aldaketaren ondoriozko arriskuak.
- Ondare kulturala.
- Ingurumen izaera duten beste alderdi batzuk (mugikortasuna garraioa, irisgarritasuna, baliabide berriztagarrien eta ez-berriztagarrien kontsumoa, etab.).

3.1. Faktore klimatikoak

Getxo EAEko ipar isurialdean dago kokatua eta beraz orokorrean, klima mesotermiko baten ezaugarriak aurkezten ditu, hotz-beroaren ikuspegitik epela eta oso euritsua. Klima honetan Atlantiar ozeanoak eragin esanguratsua dauka. Ozeanoko urekin kontaktuan epeldutako aire masak itsasertzera iristean gau eta egunen, eta uda eta neguaren arteko oszilazio termikoak txikitzea dakar.



Ondoren aurkezten diren datu klimatikoak udalerrian dagoen estazio meteorologikoari dagozkio (C-042 -Punta Galea). Hau, 61m -ko altueran aurkitzen da UTM X 497077 eta UTM Y 4802268 koordinatuetan.


Urteko tenperaturen laburpena (°C)

Udako batez besteko tenperaturak 19,9-21°C-ren artean ibiltzen dira eta neguan 9,5-12,0°C-ren artean, Punta Galea estazioan urteko batez besteko tenperatura 15,8°C delarik. Hurrengo taulan, Punta Galea estazio meteorologikoan 2023an erregistratutako tenperatura minimoak eta maximoak adierazten dira.

Batez besteko tenperatura (°C)	15,9
Batez besteko tenperatura maximoa (°C)	18,3
Batez besteko tenperatura minimoa (°C)	11,9
Temperatura maximo absolutua (°C)	39,1
Temperatura minimo absolutua (°C)	0,6

Urteko prezipitazioen laburpena (l/m²)

2023an metatutako prezipitazioa 1002,1 l/m² izan ziren, maximoak urtarrilean eta azaroan izan ziren, guztira euroa egin zuten 173 egunekin.



Irudia 7. Punta Galeako estazio meteorologikorako (Getxo) diagrama onbrotermikoak (2023)



3.2. Substratu geologikoa eta litologia

Hasierako informazio moduan, EVEk 1/25.000 eskalan egindako kartografia geologikoa (37-III, 37-IV eta 61-II orriak) eta EAEko funtsezko kartografia hartu dira.

Eusko Jaurlaritzako kartografia funtsetik ateratako **mapa geologikoa**ren arabera (2. mapa), Getxon ondorengo unitate geologikoak nabarmentzen dira, adin geologikoa arabera kronologikoki ordenatuak (parentesi artean mapa geologikoa agertzen den kodea):

TERTZIARIOA (65 – 1,7 m.u.):

Oiz unitateko "flysch" tertziarioa Bizkaiko Sinklinorioaren nukleoan azaleratzen da eta izaera mistoa du (detritiko – karbonatua). Bertan dauden litologiak hurrengoak dira: **kareharri hareatsuen eta tuparrien txandakatze flyschoidea** (19) itsaspeko lautadako "flyscharen berezko litologiak dituena; **hareharriak lutitekin** (080), geruza lodietan hareharri horiz eta tupa fin-laminatuen tartekatze meheez osatuak, hauen artean ichnofosilak erraz aurkitu daitezke. Azkenik, **kareharriak, hareharri karetsuak eta tuparriak** (120), Haien berezitasunagatik, noizbehinka slumping" motako geruza edo olistostromikoaz osatutako sekuentzia bat agertzen da.

GOI KRETAZIKOA (95 – 65 m.u.):

Udalerraren erdialdean eta hegoaldean Goi Kretazeoko materialak daude. Bilboko Antiklinorioaren ipar hegaleko Goi Kretazeoaren ezaugarria, karbonatutako edo detritiko karbonatatuaren material flyschoideen segida handia dagoela da. Bertan, oinarritzko harri bolkaniko eta bolkanoklastiko batzuk tartekatzen dira.

- Maastrichtiar – Daniarreko kareharritzko formaziok hurrengo materialez osatuta dago: **marga beltz eta gris geruzatuak** (058), bertan *Inoceramus* sp. eta ekinodermoak ugariak dira; **tupa-kareharriak eta tupak, grisak edo gorriak. Kareharriak** (067), tarte berri bat agertzen da, batez ere kolore gorrixkako tupak dituena, tupa-karetsu-mailekin txandakatzen direnak, eta, tokian-tokian, potentzia gutxiko kareharri-mailak ere tartekatzen dituzte; **kareharri mikritikoak eta tupa-kareharri edo tupa gorri edo grisak** (068), kareharrien eta tupa-kareharrien txandakatze gisa aurkezten dira, ondo estratifikatutako banku dezimetrikoetan.
- Flysch detritikoa: **kareharri hareatsu edo limolitikoaren eta tupen txandakatze flyschoidea** (062), tupa edo lutita karetsuen eta flyschoide izaerako hareharri karetsuen multzo monotono gisa definitzen da, eta potentzia aldakorreko geruzetan txandakatzen dira, milimetro gutxi batzuetatik metro bateraino.



KUATERNARIOA (2-0 m.u.):

Material kuaternarioak berrienak dira:

- **Metaketa alubiarrak eta alubio-kolubiarrak** (184). Haran-hondoetako betegarriak dira, material askotako legar borobilez osatuta; metaketaren goialdean material finak daude. Gobelaren ibaiertzetan eta honen ibaiadarretan daude.
- **Metaketa kolubiarrak** (185). Mendi-hegalen higakinez osatzen da batez ere, tamaina desberdineko ertz askoko harri-koskorrekin. Barinatxe-Salvaje hondartzaren inguruetan eta ekialdean agertzen dira.
- **Estuarioetako hareak, hondartzak eta dunak** (189). Hondartza Hondartza hare metaketek osatzen dute. Dunak ere harea metaketak dira, normalean hondartzen haize babesetan sortuak eta hondartzetako hareak baina pikor xeheagoa izaten dute. Barinatxe-Salvaje hondartzaren iparraldean eta Aizkomi-Gorrondatxen, Galea lurmuturrean, Ereagan, Galeako lurmuturretik Arrigunarinoko kostaldean eta udalerraren hegoaldean daude.
- **Giza metaketak** (191).

Mapa litologikoak arroka tipologiaren arabera sailkatzen ditu adina kontutan hartu gabe. Beraz, mapa litologikoak Getxon hurrengo unitateak bereizten ditu:

- **Kararri ez puruak eta kalkarenitak**. Litologia ugariena da, ia udalerr osoan dago.
- **Gainazaleko metaketak**. Hegoaldean eta neurri txikiagoan iparraldean. Estuarioetako hareak, hondartzak eta dunak dira.
- **Hareharriak**. Udalerraren erdialdean eta iparraldean, lutitekin batez ere.
- **Tupa-kararri, marga karetsu eta kalkarenita txandaketa**. Orban txikietan udalerraren erdialdean. Marga beltz eta gris geruzatuekin bat dator.

Substratuaren aldakaritze prozesu geodinamikoaren ondorioz, lekuko litologiaren arabera, erregolitoaren lodieraren mapak hiru mota desberdin bereizten ditu gainazalean aldakaritutako materialen lodieraren arabera, 2 eta 5 motakoak azalera gehiena betetzen dutenak dira.

- **1. mota**. 0,5 metro baino gutxiagoko aldakari lodiera daukatenak, hau da, gainazaleko aldakaritasunak izan dituztenak. Azkorri eta Galea lurmuturreko itsaslabarretan dago eta Arrigunagatik Kanteraganaraino hedatzen da.
- **2. mota**. 0,5 eta metro 1 artekoa. Udalerrian ugariena da.
- **3. Mota**. Metro 1 eta 2 arteko erregolitoaren aldakaritzea dauka. Gorrondatxe-Azkorritik Berangoraino doan lerro batean agertzen da.
- **4. mota**. 2 eta 4 metro arteko lodierakoak. Udalerrian zehar orban txikietan banatzen da.



- **5. mota.** Kasu honetan 4 metro baino gehiagoko lodiera dauka eta Gobela, Itzaerreka eta Larrañazubi edo Bolue ibaiei lotuta dago, baita Ereaga, Arrigunaga, Gorrondatxe-Azkorri eta Barinatxe-Salvaje hondartzei eta Arrigunagatik Galea lurmuturrerainoko kostaldea.

3.2.1. Interes Geologikoko Eremuak eta Puntuak

EAEko gaikako kartografian oinarrituta, Getxon interes geologikoko puntu eta eremuak aurkitu dira (3. mapa). Hauetako batzuk, Geologia Interesdun Lekuak (GIL) dira, EAEko Geodibertsitatearen Estrategian jasota daudenak.

Udalerrian interes geologikoa duten 4 eremu eta 10 puntuen ezaugarriak ondorengo taulan jaso dira.

Kodea	Eremua	Interes maila	Interes mota	Balioa
0058	Rasa	Eskualdekoa	Zientifikoa-Didaktikoa-Dibulgetzailea	Ertaina
0059	Castako labarraren zehar-ebakia	Eskualdekoa	Zientifikoa-Didaktikoa-Dibulgetzailea	Oso altua
0060	Sinklinorioaren ardatza	Eskualdekoa	Zientifikoa-Didaktikoa	Ertaina
0061	Oraingo hondartza	Eskualdekoa	Zientifikoa-Didaktikoa-Dibulgetzailea	Oso altua
0062	Slumpak	Tokikoa	Zientifikoa-Didaktikoa	Altua
0063	Fosilak	Tokikoa	Zientifikoa-Didaktikoa	Altua
0064	Egitura sedimentarioak	Tokikoa	Zientifikoa-Didaktikoa	Ertaina
0065	Zehar-ebakia	Eskualdekoa	Zientifikoa-Didaktikoa	Ertaina
0066	Taffoniak	Eskualdekoa	Zientifikoa-Didaktikoa	Altua
0067	Maila alderantzikatua	Tokikoa	Zientifikoa-Didaktikoa	Baxua
0068	Dish egitura	Tokikoa	Zientifikoa-Didaktikoa	Ertaina
0104	Dunak	Tokikoa	Zientifikoa-Didaktikoa	Ertaina
3014	Bilboko itsasadarra	Eskualdekoa	Didaktikoa	Ertaina
GIL90	Barrika-Galeako paleozabalgunea	-	Geomorfologikoa	Oso altua
GIL49	Gorrondatxeko Eozenoa (GSSP)	-	Estratigrafikoa, paleontologikoa	Oso altua - Altua
GIL96	Gorrondatxe eta Tunelbocako hondartza zementatua	-	Geomorfologikoa, estratigrafikoa, petrologikoa	Altua - Ertaina - Oso altua
GIL132	Galea lurmuturra-Tunelbocako nummuliteak	-	Estratigrafikoa, paleontologikoa	Altua
GIL117	Galea lurmuturreko tolestura sinklinala	-	Tektonikoa/estruturala, estratigrafikoa, paleontologikoa	Altua - Ertaina

Taula 8. Getxoko interes geologikoko eremu eta puntuen ezaugarri nagusiak



Argazkia 1. Taffoniak Algortako Portu Zaharrean

- Gorrondatxeko Eozenoa (GSSP) (GIL 49)

Luteciarreko estratotipoa edo GSSP (Global Stratotype Section and Point) kokatzen da. Gorrondatxeko hondartzan azaleratzen diren materialek 5 bat milioi urteko historia (50 M.u.-tik 45 M.u.-ra) biltzen duen flysch sedimentazio bat adierazten dute. Material horiek itsas arro batean metatu ziren 1.500 metro inguruko sakoneran. Luteciarreko oinaren GSSPa daukan tarte estratigrafikoaren ezaugarri nagusia ingurune pelagikoetan metatutako arroken txandakatzea da: kareharriak eta tuparriak, eta milimetro gutxiko lodierako turbidita batzuk. Interes estratigrafiko oso altua eta paleontologiko altua du.

- Barrika-Galeako paleozabalgunea (GIL 90)

Kuaternarioan, olatuen eraginez sortutako gainazal laua (rasa) da itsas mailatik gora dagoena. Punta Galeatik Barrikaraino azaleratzen da; 7,2 km luze eta 1 kmzabalinguru da. Duela 100.000 eta 50.000 urte bitarteko aldi interglaziar batekoa da; lurraldearen zati handi bat urpean zegoeneko. Espazio honek interes geomorfologiko oso altua du.

- Gorrondatxe eta Tunelbocako hondartza zementatua (GIL 96)

Punta Galeako labarren oinean, itsasoko sedimentuen zenbait metaketa daude, kolore ilunekoak, beach-rock motakoak. Harri sedimentario batzuk dira, kaltzio karbonatoarekin maila desberdinetan zementatuak eta marearteko zonan eratzen direnak, sedimentu-mota desberdinak nahasiz, harea- eta legar-tamainakoak. Hondartza honetan, gaur baino lehenagoko harea horiek zertxobait zementatuta daude aragonitoarekin, sakonera txikiko itsasguneetan eta itsas eremu uberatsuetan oso ohikoa den prozesu diagenetiko baten ondorioz. Interes geomorfologiko, estratigrafikoa eta petrologikoa altua, ertaina eta oso altua da.



- Galea lurmuturreko tolestura sinklinala (GIL 117)

Oiz-Galea lurmuturra sinklinala Eusko-Kantauriar arroak Euskal Arkuan dituen egitura handien elementu tektonikoetako bat da. Eskualdean ezagu tzen diren hiru toles nagusietako bat da. Tolesak dekametrikotik hektometrikora bitartekoak dira; alpeak luzeak eta zuzenak dira, eta txangak biribilduak. Tolestura hau Eozenoaren ondokoa da. Sinklinalaren nukleoan azaleratzen diren materialak Galea muturretik Asbiribiltza muturrerako tartean ondo ikusten dira. Erdi Luteciarreko (Eozenoko) flysch kareduna da, lodiera zentimetrikoko bankuetan txandaka tzen diren kalkarenita, tuparri eta kareharri nummulitedunez osatua. Interés tektoniko/estrukturala altua eta estratigrafikoa eta paleontologiko ertaina du.

- Galea lurmuturra-Tunelbocako nummuliteak (GIL 132)

Organismo zelulabakarrak dira, eta oskol espiraldun bat dute (inboluta edo eboluta), forma lentikular bikonbexukoa, nahiko zapala. Galea lurmuturrean azaleratzen den Bizkaiko sinklinorioko ardatzetik hurbil, nummulitidoak turbidita-geruzen alde basalean daude eta Goi Lutetiarrekoak dira. Hauek, aloktonia-adibide argi bat dira, ez baitziren arroka eratu zen tokian bizi; uhertasun-korronteek plataforma kontinentaletik haraino arrastatu zituzten. Interés estratigrafiko eta paleontologiko altua du.

3.3. Geomorfologia

Atal honek udalerraren erliebe formak aztertzen ditu. Mapa geomorfologikotik malda, altuera eta esposizioak aztertu dira.

Altueren mapan (4. mapa) gehieneko kota Errotaetxe tontorrean dagoela ikus daiteke, Artea merkataritza-gunearen ondoan, 100 metrorekin. Bizitegitarako eta jarduera ekonomikoetarako garapen nagusiak udalerriko eremu lauenekin bat datoz.

Malde dagokienez, (5. mapa), udalerrriak %20 baino gutxiagoko maldak nagusitzen diren topografia izurtua aurkezten du. %50etik gorako maldak dituzten eremuak itsasertzeko itsaslabarrei dagozkie.

Esposizio mapak (6. mapa) azalera baten posizioa zehazten du puntu kardinali dagokienez. Getxoko orografia dela eta, era guztietako esposizioak daude. Hala ere, udalerrriaren erdialdean ekialdekoak dira nagusi eta iparraldean iparraldekoak.

Mapa geomorfologikoak (7. mapa) udalerrian aurki daitezkeen interes geomorfologikoa duten eremuak aurkezten ditu. Eremu hauek sistema ezberdinei dagozkie: itsasertzekoak, antropogenikoa, mendi-hegaletakoa, estuariokoa eta alubiarrak.



- Itsas-ertzekoa: abrasio-plataforma, lautze-gainazal netoa (golf inguruak), uharrri-hondartza, hondartza (Barinatxe, Gorrondatxe) eta harea zaharren metaketa (Zientoetxen).
- Antropogenikoa: hondakindegia, betegarriak eta indusketako gunek.
- Estuariokoak: Areetako isolatutako gunea eta marea arteko hareatsua (Ereaga eta Arrigunaga hondartzak).
- Alubiarrak: Gobelaren inguruetan eta honen ibaiadarretan, baita Larrañazubin ere.
- Mendi-hegalak: Martiartuko bloke kolubiarrak dira.

Mapa geoteknikoa (8. mapa) Eusko Jaurlaritzaren oinarritzko kartografikaterata dago. Substratu geologikoaren aplikazio praktikoa irudikatzen du, bere izaera litologikoa eta geomorfologikoa kontutan hartuta. Orokorrean, udalerraren zati gehienean eraikuntzarako aldeko baldintzak ditu. Baldintza oso aurkakoak hondartzak, dunaketa ibaietatik gertu dauden eremuak dira, uriola, istiltze eta zama-gaitasuna eta ezargune arazoak direla eta.

3.4. Hidrogeologia

Udalerraren azterketa hidrologikoa egiteko, EVEk 1/100.000 eskalan argitaratutako Euskadiko Mapa Hidrologikoa eta Eusko Jaurlaritzaren ingurune kartografia erabili dira.

Getxo Oiz Sinklinorioa/Goi Kretazikoa/ Konplexu Bolkanikoa (Getxo-Bergara ur-masa) Domeinu Hidrogeologikoan dago, hegoaldeko eta hego-ekialdeko eremu txiki batean izan ezik, Hegoaldeko Antiklinorioaren Domeinu Hidrogeologikoan dagoena (Sopuerta masa).

3.4.1. Iragazkortasuna

Lurzoruaren ezaugarri fisiko-kimikoen arabera (egitura, trinkotze maila, lodiera, etab.), Getxon ondorengo iragazkortasun kategoriak topatu daitezke (9. mapa).

- **Artesiagatiko iragazkortasun baxua:** Udalerraren hiru lerrotan hartzen ditu udalerraren iparraldean, hegoaldean eta erdialdean.
- **Porositateagatik iragazkortasun baxua.** Hego-ekialdeko azalera txiki batean dago Lamiakon (Leioako mugan), estuarioko lohiekin batera.
- **Artesiagatiko iragazkortasun ertaina:** ugariena da, udalerraren iparraldea hartzen du nagusiki.



- **Porositateagatik iragazkortasun ertaina:** Batez ere ibaiari eta inguru hurbilenari dagokio.
- **Porositateagatik iragazkortasun altua:** Hondartzetako, estuarioetako eta dunetako hondarren azaleko metaketak dira.

3.4.2. Akuiferoen zaurkortasuna

Udalerrri gehienak akuiferoen kutsadurarekiko kalteberatasun handia du (10. mapa). Hondartzek, iparraldeko labarrek eta ibai-inguruak zaurkortasun oso altua dute. Zaurgarritasun ertaineko eremu txikiak ere agertzen dira.

3.4.3. Ur-puntuak


Getxon mota askotariko ur ustiapenak daude (iturburuak, lurrazaleko ur-hornidura puntuak, zulatutako putzuak eta ustiapen-zundaketak) eta erabilera desberdinerako direnak (ureztapena, hiri-hornidura, etxe-erabilera eta industria jarduera). Hala ere, ez daude Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoak jasotako Eremu Babestuen Erregistroan sartuta.

3.5. Hidrologia

Getxoko sare hidrografikoa 4 arro hidrografikotako ibaiak, errekek eta isurketekosatzen dute: Gobelakoa, hedadurarik handiena duena ekialdean; Larrainazubikoa, Ibaizabalekoa hegoaldean eta txikiena eta Galea lurmuturrekoa iparraldean eta mendebaldean (11. mapa). Ibaizabal ibaiaz gain, hauek dira ibai-ibilgu adierazgarrienak: Gobela ibaia, Larrañazubi erreka, Gobela ibaiarekin elkartu aurretik Bolueko hezegunea osatzen duena; Itzaerreka, Gobela ibaira isurtzen dena Fadurako eremuan, eta Kanderu erreka, Andra Maritik igarotzen dena eta Gobelan itsasoratzen dena.



Argazkia 2. Larrañazubi erreka Bolueko hezegunearen inguruetan




Argazkia 3. Gobela ibaia eta inguruak Faduran

A pesar de no constar firmas manuscritas, este documento tiene validez legal. En la Página Web Municipal (https://www.getxo.eus/validadocuments) podrá obtener una copia auténtica de este documento en formato digital, mediante el Código Seguro de Verificación que aparece en el margen izquierdo.

Aqiri Honek eskuz idatzitako sinadurik ez izenperik ez duen arren, legezko balioa du. Getxoko Udaltaren web-orrialdeik (https://www.getxo.eus/dokumentuak/egiaztatatu) agiri honen benetako kopia eskuratu ahal duzu formatu digitalean, ezkerrealdean ageri den egiaztapen-kode segurua erabiliz.


CSV: GET/CSV/2024/21482 kjmtErBhrY



Argazkia 4. Kanderu erreka Perune inguruan, landaretza gutxirekin eta ibaiertzeko okupazioa

3.5.1. Lurrazaleko uren egoera ekologikoa

Gobela ibaiaren arroko ur-masa (Gobelas-A) oso eraldatuta dagoena, egoera ekologiko "eskasa" du 2019 urterako eta 2015-2019 bosturtekorako. Larrainazubi-A ur-masa egoera naturalean dago, eta potentzial ekologiko "ona" du 2019 urterako (nahiz eta kanpaina honek ez duen zuzeneko kontrolik) eta 2015-2019 bosturtekorako, 2019ko "EAEko ibaien egoera biologikoa"-ri buruzko txostenaren arabera.



Irudia 8. Ibaizabal: Ibaizabal Behea Unitate Hidrologikoaren masak eta egoera ekologikoa (2019). Jarraipen Sareko kontrol estazioak adierazten dira. Iturria: EAEko ibaien egoera biologikorako Jarraipen Sarea (URA)



Gobelas-A masak estazio bat du (GOB082). URaren 2019ko azken txostenaren arabera, bosturtekoaren urte guztietan potentzial ekologiko moderatua edo okerragoa du, makroornogabeen komunitateen kalitate eskasagatik (pobretuak eta desegituratuak) eta nahiz eta uraren kalitate fisiko-kimikoa ontzat eman.

Larrainazubi-A masari dagokionez (GLA047 estazioa), ez da 2019ko kanpainarako daturik erregistratu. Nolanahi ere, 2018an egoera ekologiko ona eta kalitate ona zituen adierazle biologiko guztietarako.

Masa	Estación	Indicador	2015	2016	2017	2018	2019
Gobelas-A	GOB082	Macroinvertebrados	Deficiente	Moderado	Deficiente	Moderado	Deficiente
		Fitobentos	Bueno	Bueno	Bueno	Muy Bueno	Muy Bueno
		Fauna Piscícola	Moderado	Moderado*	Bueno	Bueno	Bueno*
		Estado biológico	Deficiente	Moderado	Deficiente	Moderado	Deficiente
		Fisicoquímica	Bueno	Bueno	Bueno	Bueno	Bueno
		Hidromorfología	<Muy Bueno	No evaluado	No evaluado	No evaluado	No evaluado
		Potencial ecológico	Deficiente	Moderado	Deficiente	Moderado	Deficiente
Larrainazubi-A	GLA047	Macroinvertebrados	Bueno	Bueno	No evaluado	Bueno	No evaluado
		Fitobentos	Muy Bueno	Bueno	No evaluado	Bueno	No evaluado
		Fauna Piscícola	Moderado	Moderado	No evaluado	Bueno	No evaluado
		Estado biológico	Bueno	Bueno	No evaluado	Bueno	No evaluado
		Fisicoquímica	Bueno	Bueno	No evaluado	Bueno	No evaluado
		Hidromorfología	<Muy Bueno	No evaluado	No evaluado	No evaluado	No evaluado
		Estado ecológico	Bueno	Bueno	No evaluado	Bueno	No evaluado


Irudia 9. Gobelas-A eta Larrainazubi-A ur-masen baldintza ekologikoaren laburpena eta diagnostikoa. Iturria: Ibaien egoera biologikoaren jarraipena egiteko sarea (URA)

Kostaldeko uren egoera ekologikoa balioztatzeko, 2019 urtean egindako "EA Eren trantsizioko eta itsasbazterreko uren egoera ekologikoaren jarraipen-sarea" txostena erabili da eta Nerbioi Barnealdeko eta Nerbioi Kanpoaldeko trantsizioko ur-masen emaitzak aztertu dira, baita Kantabria-Matxitxako itsasertzeko masa ere.

Nerbioi Barnealdeko ur-masak hiru laginketa-estazio ditu (E-N10, E-N15 eta E-N17) eta Nerbioi Kanpoaldekoak bi (E-N20 eta E-N30).


Nerbioi Barnealdea. Egoera ekologikoari dagokionez, ur-masa osoaren balorazioa "ona baino okerragoa", hiru estazioetarako. Potentzial ekologikoa "ona" eta "oso ona" da E-N15 eta E-N10ean, eta "eskasa" E-N17an.

Nerbioi Kanpoaldea. Ur-masa osoaren egoera ekologikoa "ona baino okerragoa" da bi estazioetan, egoera kimiko ona lortzen ez duelako. Potentzial ekologikoa "ona" da.



Irudia 10. Nerbioi Barnealdea eta Nerbioi Kanpoaldea trantsizioko ur-masetako estazioen kalifikazioa, 2019. Iturria: EA Eren trantsizioko eta itsasbaterreko uren egoera ekologikoaren jarraipen-sarea (URA)

Kostaldea. Getxoko kostako ur-masa Kantabria-Matxitxako unitatean dago. Kostaldeko ur-masa honen presio garrantzitsuenak jatorri desberdineko isurketak dira.



Irudia 11. Kantabria-Matxitxakoko ur-masaren egoera ekologikoaren kalifikazioa, 2019 urtea. Iturria: EA Eren trantsizioko eta itsasbaterreko uren egoera ekologikoaren jarraipen-sarea (URA)

Getxo inguruan, bi laginketa-estazio daude: Abrako itsasertza (L-N10), Portu Autonomoaren kai-muturretik gertu eta Sopelako Itsasertza (L-N20). Lehen estazioak egoera ekologiko "oso ona" zuen 2019an, eta bigarrenak, berriz, e "moderatu".

A pesar de no constar firmas manuscritas, este documento tiene validez legal. En la Página Web Municipal (https://www.getxo.eus/validadocuments) podrá obtener una copia auténtica de este documento en formato digital, mediante el Código Seguro de Verificación que aparece en el margen izquierdo.

CSV: GET/CSV/2024/21482 kjmtErBhrY

A pesar de no constar firmas manuscritas, este documento tiene validez legal. En la Página Web Municipal (https://www.getxo.eus/validadocuments) podrá obtener una copia auténtica de este documento en formato digital, mediante el Código Seguro de Verificación que aparece en el margen izquierdo.

Agiri honek eskuz idatzitako sinadurik ez izenperik ez duen arren, legezko balioa du. Getxoko Udaltaren web-orrialdeitik (https://www.getxo.eus/dokumentuak/egiazta) agiri honen benetako kopia eskuratu ahal duzuri formatu digitalean, ezkerrealdean ageri den egiazta-kode segurua erabiliz.



3.6. Edafologia

Lurzoruaren profila geruza horizontalez osatzen da. Hauek prozesu fisiko-kimiko eta meteorizazio biologikoaren ondorioa dira (klima, topografia, izaki bizidunak, etab.) jatorrizko substratu arrokatsuan aldaketak sortu dituztenak. Edafologiari dagokionez (12. mapa), bost lurzoru mota desberdin topatu dira, kanbisolak (eutrikoa eta distrikoa) nagusi izanik. Flubisolak, akrisol ortikoak eta naurri txikiagoan litosolak ere agertzen dira.

- **Kanbisol eutrikoa:** kanbisolak, horizonte B *kanbiko* bat ama arroaren neurrizko aldaketa izateagatik eta horizonte A *molikoa* (zuria eta organikoa), *unbrikoa* (orbanikoa baina molikoa baino bigunagoa) edo *okrikoa* (gainazalekoa eta gutxi garatutakoa) izateagatik nabarmentzen dira. Kanbisoleutrikoa materia organiko aberatsa duen horizontea izateagatik bereizten da. Erandioko mugan orban txiki bat dago.
- **Kanbisol distrikoa:** base saturazioa %50ekoa baino baxuagoa da eta udalerraren iparraldeko herenean hedadura handia du. Ekialdean agertzen dira, Larrainazubi edo Bolueren ibilgua jarraituz.
- **Flubisol eutrikoa:** ibai ibilguetako lurzoruak dira, ibaiaren metaketez osatua eta aldian-aldian urez betetzen direnak. AC profila dauka, non horizonteak bereiztea zaila den. Gobela eta Larrainazubi ibaietara lotuta agertzen dira.
- **Akrisol ortikoa:** harri azidoen ganean garatzen da, karbono organiko gutxiko edo oso meheko A horizonte ilunarekin. Ekialdean daude, Bolue inguruetan eta Larrainazubi ibaia jarraituz, eta neurri txikiagoan, ipar-ekialdean, Sopela eta Berango arteko mugan.
- **Litosola:** gutxi garatutako eta bilakaera eta lodiera gutxiko lurzoruak dira, orokorrean ama arroka hareatsu baten ganean. Udalerraren iparraldeko kostaldean daude, hondartzetan ez ezik, bertan hareasolak baitaude.

Lurzoruen gaitasun agrologikoari dagokionez, kalitate agrologiko handieneko lurzorutzat nabarmentzen dira Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialean "Nekazaritza eta Abeltzaintza: Balio Estrategiko Handia" gisa identifikatutakoak, zeinetan nekazaritza-erabilera lehenesten baita. Lurzoru hauek Getxon bamealderantz doan zatian daude, Larrainazubi ibaiari jarraituz. Neurri handi batean flubisoleutrikoekin bat datoz eta 18,32 ha-ko azalera hartzen dute.



3.7. Landaredia eta lurzoruaren erabilera

3.7.1. Landaredi potentziala

Udalerriko landaredi potentziala 1:25.000 eskalan eginda dagoen EAEko landaretza mapan agertzen da. Bertan, hurrengo landaretza unitateak irudikatzen dira (13. mapa):

- *Itsas labarretako landaredia*
- *Paduretako landaredia*
- *Haltzadi kantauriarra*
- *Artadi kantauriarra*
- *Harizti azidofiloa eta harizti-baso misto atlantikoa*

Landaretza potentzial ugariena **artadi kantauriarra** da, udalerrri osotik agertzen dena. Artadi kantauriarrean artea (*Quercus ilex*) da zuhaitz-espezie nagusia. Masa hauek hostoiraunkorreko espezieengatik, landare igokariengatik eta dentsitate handiko zabalerengatik bereizten dira.

Gobelaren eta Larrainazubiren ibai-bazterretan, **haltzadi kantauriarrak** aurkitu daitezke hariztiaren ondoan.

Harizti azidofilo eta harizti baso misto atlantikoa udalerrriaren ekialdean egongo litzateke, Erandio eta Berangoko mugan. Kantauriar isurialdean oso ugaria den landaretza multzo honetan, harizti kandudunez osatutako basoak dira nagusi.

Itsaslabarretako landaredia iparraldean eta ipar-mendebaldean egongo litzateke, itsasoaren arteko mugan. Olatu eta haize zakarren eraginpean dauden hormatzarrak dira. Baldintza hauei gatz gehitu behar zaie, beraz, bertan oso berezitua den landaretza halofitoa eratzen da.

Hegoaldean, portuaren inguruetan, **paduretako landaredia** nagusituko litzateke, mareen eta gazitasunaren eraginpean. Gizakiaren esku-hartze handia jasaten duen eremua da, eta ia erabat ezabatu du landaredi potentzial bereizgarria.

3.7.2. Egungo landaredia

Landaredi potentziala zatitutako eta batez ere Bolue inguruan kokatutako orban txikietara murriztu da, urbanizazioa hedatzearen ondorioz (14. mapa). Ondorengo taulan landaredi unitate nagusien (>%1) azalera eta udalerrian okupatzen duen ehunekoa jasotzen dira.



Kodea	Landaredi unitatea	Azalera (Ha)	%
B1.21	Landarediarik gabeko hareazko hondartzak	19,15	1,62
B3.31	Kostako itsaslabar eta erlaitzak, angiospermo halofiloekin	27,19	2,30
E1.26	Albiztiak eta <i>Mesobromion</i> taldeko larreak	29,57	2,50
E2.11	Belardi larratuak eta manipulatu gabeko larreak	13,45	1,14
E2.21	Larratu gabeko segabelardi atlantiarrak	155,76	13,16
E2.6	Hobetutako belardi eta kirol zelaia	48,08	4,06
F4.231	<i>Ulex sp.</i> nagusitzen den txilardi atlantiarra	54,74	4,62
G2.81	<i>Eucaliptus sp.</i> landaketak	16,09	1,36
G3.F(M)	<i>Pinus pinaster</i> landaketak	21,60	1,82
G5.61	Zuhaitz hostozabalen baso gazteak	27,37	2,31
G5.73	Hostozabal hostoiraunkorren landaketa gazteak	19,80	1,67
G5.82	Koniferoen baso moztu berriak	12,36	1,04
I1.2	Baratzak eta mintegiak	21,00	1,77
J1	Herri eta hirietako eraikinak	477,73	40,36
J2	Dentsitate baxuko eraikinak	84,76	7,16
J4.2	Errepide-sareak	20,46	1,73

Taula 9. Getxon aurkitu daitezkeen landaredi unitate nagusiak

Udalerrriaren ezaugarri nagusia hiri-izaera eta populazio dentsitatea dira. Horrela, landaredi naturala iparraldean eta Berangoko eta Leioako mugan daude. Dentsitate handiko herri eta hirietako eraikuntzek udal-azaleraren %40 inguru hartzen dute. Neurri txikiagoan, belardiak eta larreak daude (%17). Bertako basoen presentzia oso urria da, lurraldearen azaleraren %5 inguru (hariztiak, haltzadiak eta hostozabalgazteak). Beren interesagatik eta irudikapenagatik nabarmentzen dira kostaldeko txilardiak; bertan, babes- eta birsortze-lanak egiten ari dira.

Eusko Jaurlaritzaren funtsezko kartografiaren arabera (2019an berrikusia), udalerrian honako landaretza elkartek aurkitu daitezke.

BASOAK ETA BASO-LANDAKETAK

- *Ibaiertzeko haltzadi eurosiberiarra*
- *Quercus robur* eta *Quercus ilex*-en baso mistoa
- *Quercus robur* nagusitzen deneko baso azidofiloa
- *Eucaliptus sp.* landaketak
- *Pinus pinaster* landaketak
- *Pinus radiata* landaketak
- Zuhaitz hostozabalen baso gazteak
- Hostozabal hostoiraunkorren landaketa gazteak
- Koniferoen landaketa gazteak
- Hostozabalen baso moztu berriak
- Koniferoen baso moztu berriak

GAINAZALEKO UR KONTINENTALAK

- *Phragmites* lezkadiak
- Landaredia baskularrik gabeko estuario eta itsasadarrak

HABITAT ITSASTARRAK

- Hareazko hondartzen itsasgoraren goimugako komunitateak
- Europa erdialdeko hondartza hareatsuen urteko komunitateak
- Itsasoko hondakin-metaketatzen hazten den urteko landaredia
- Alga eta likenak dituzten arroka supralitoralak
- Kostako itsaslabar eta erlaitzak, angiospermo halofiloekin
- Landaredia aitzindaria duten duna mugikorak

SASTRAKAK ETA ZUHAIXKAK

- Iratzedi atlantiar eta subatlantiar muinotarrak
- *Ulex sp.* nagusitzen den txilardi atlantiarra
- Kostako *Erica vagans*-en txilardia
- Bertako espezieen heskaia



- Lahardi azidofilo atlantiarra, elorriekin (*Rubus gr. - Magal hezeetako sahastiak, erreka glandulosus*)
- bazterretakoak ez direnak

BELARDIAK ETA BELARKARA HABITATAK

- Albiztiak eta Mesobromion taldeko larreak
- Larratu gabeko segabelardi atlantiarrak
- Belardi larratuak eta manipulatu gabeko larreak

LANDAREDIA GABEKO EDO LANDAREDIA IREKIKO LUR KONTINENTALAK

- Landarediarik gabeko hareazko hondartzak
- Landarediarik gabeko kostako itsaslabareta arrokak

NEKAZARITZA LURSAILAK ETA LORATEGIAK

- Lur zapalduak
- Hobekuntzaz lortutako belardiak eta kirol-zelaiak
- Baratza eta mintegiak
- Bestelako habitat artifizialak
- Pequeños parques y jardines ornamentales
- Eremu asfaltatuei loturiko landaredia
- Lorategi eta parke ornamental handiak



Argazkia 5. Belardiak, bertako heskaiekin eta zuhaitz sakabanatuekin, Andra Marin

3.7.3. Batasunaren Intereseko Habitatak

Batasunaren Intereseko Habitaten zabalera naturala oso txikia da edo asko gutxitu da batasunaren lurraldean (zohikaiztegiak, txilardiak, dunak, etab.), baita, inguru natural nabarmenak eta adierazgarriak ere (maiatzaren 21eko 92/43/CEE Kontseiluaren Habitaten Zuzentaraua).

2019an eguneratutako habitat-maparen arabera, 8 mota desberdin daude, hau da, udal-azaleraren %24 inguru. 6510 habitata (altuera txikiko sega-belarditxiroak) batasunaren intereseko habitatek okupatutako azaleraren erdia da, gutxi gorabehera, udalerriaren azaleraren %13 hartzen duena (17. mapa).



Kodea	Batasunaren Intereseko Habitata	Azalera (Ha)	Udalerriaren %
1210	Itsasoko hondakin-metaketetan hazten den urteroko landaredia	0,61	0,05
1230	Atlantiko eta Baltikoko kostako landaredia duten itsaslabarrak	27,19	2,30
2110	Duna mugikor aitzindariak	2,99	0,25
4030	Txilardi lehor europarrak	11,59	0,98
4040*	Kostako <i>Erica vagans</i> -eko txilardi lehor atlantiarrak	54,74	4,62
6210	Belardi lehor erdinaturalak eta kare-substratueta sastraka-faziesak (Festuco-Brometalia)	6,88	0,58
6210*	Belardi lehor seminaturalak eta substratu kalkareotako sastraka-eiteko formazioak (Festuco-Brometalia) (orkideo garrantzitsuekin)	22,69	1,92
6510	Altitude baxuetako segabelardi txiroak (<i>Alopecurus pratensis</i> , <i>Sanguisorba officinalis</i>)	155,76	13,16
91E0*	<i>Alnus glutinosa</i> eta <i>Fraxinus excelsior</i> -en ibarbasoak (Alno-Padion, Alnion incanae, Salicion albae)	5,93	0,50
GUZTIRA		288,37	24,36

Taula 10. Getxon aurkitzen diren batasunaren intereseko habitatak (*Batasunaren lehentasunezko intereseko habitatak). Iturria: Datu Espazialen Egitura. Eusko Jaurlaritza

Batasunaren Lehentasunezko Interesa duten Habitatak (*), desagertzeko arriskuan daudenez Batasun Europarrentzat kontserbazio ardua berezia duten habitatak dira. Udalerrian ondorengoak daude: 4040* habitata, Kostako *Erica vagans*-eko txilardilehor atlantiarrak, guztira udal-azaleraren % 4,62 hartzen dutenak (54,74 hektarea), 6210* habitata, Belardi lehor seminaturalak eta substratu kalkareotako sastraka-eiteko formazioak (Festuco-Brometalia) (orkideo garrantzitsuekin), eta 91E0*, *Alnus glutinosa* eta *Fraxinus excelsior*-en ibarbasoak, % 0,92koa, hurrenez hurren.

Batasunaren lehentasunezko intereseko habitaten azalpena

Kostako *Erica vagans*-eko txilardi lehor atlantiarrak (4040*)

Zurezko egitura baxuak dira, kuxin-formakoak eta itsasoko haize zakareksortzen duten lehortasunari egokituak. Orokorrean, itsaslabarren goialdean kokatzen dira banda estu bat eratzen. Azalera txikia du, baina ia bere eremu potentzial osoa hartzen du eta bere naturaltasuna altutzat jo daiteke.

2016an, Getxoko Udalak, plan pilotu bat jarri zuen martxan Azkorri-Gorrondatxe hondartzaren eta Galea Lurmuturraren artean dagoen kostaldeko txilardien ekosistema hobetzeko eta babesteko. Bi eremu itxi ziren, bat Azkorriko aparkalekuaren inguruan (zirkularra eta 350 metro inguruko perimetroa) eta bestea Alpenarri lumuturrean, Tunel Boka kalaren ondoan (800 metro inguruko itxitura lineala), higatutako gunetan landareztatze naturala indartzeko helburuarekin.



Jarduera honek, eremu haien birsorkuntzaren jarraipena egitea dakar, fauna-eta flora-adierazleen bidez. Aurrerapen gisa, 2017ko udaberriko jarraipen-kanpainan, aspaldi ikusi ez ziren zenbait hegazti-espezie itzuli zirela egiaztatu ahal izan zen (txirriskil arrunta, pitxartxar burubeltza, karnaba, zozoa, hesi-berdantza, sasi-txori arrunta, txinbo kaskabeltza, txinbo burubeltza, txepetxa eta belatz gorria).



Argazkia 6. Kostaldeko txikardiak Galea inguruan

Kostaldeko txilardiei dagokienez, bai Galea Lurmuturrean, baita Arrigunaga hondartzaren inguruan, lehentasunezko Batasunaren intereseko 4040* habitata dago, baina habitaten mapan kartografiatutakoa baino askoz azalera txikiagoa hartzen du.

Belardi lehor seminaturalak eta substratu kalkareotako sastraka-eiteko formazioak (Festuco-Brometalia) (orkideo garrantzitsuekin) (6210*)

Lastoak nagusi diren larreak dira, era askotako floristika-osaketarekin. Askotan albitz-belarra (*Brachypodium pinnatum*) da ugariena. *Bromus erectus* y *Festuca* gr. *Rubra* dira lastodun espezie nagusiak. Leku hauetan orkideak agertzen badira, *Ophrys*, *Orchis*, *Dactylorhiza*, etc. motakoak batez ere, lehentasunezko interes habitatak izango dira.

Habitat mota hau lurzoru lehor samarretan kokatzen da, baso basofilo eta txilardiei lotuta baita utzita geratu diren landatutako lursailetan ere. Bakarrik Andra Marin dago.

6210 habitatarekin kategorizatutako eremuetan orkideak dauden detektatzeko, 2015ean espezie hauek har zitzaketen albiztien azterketa xehatua egin zen, baina ez zen erabakigarria izan, prospekzioak egin ziren aldia ez baitzen nahikoa izan orkidoflora detektatzeko, espezie hauen fenologia dela eta.



2015ean egindako inbentarioan, bost espezie aurkitu ziren: *Anacamptis pyramidalis*, *Ophrys apifera*, *Ophrys lupercalis*, *Orchis purpurea* eta *Serapias cordigera*. Azken hau izan da ugariena, eta horietako bi (*O. purpurea* eta *O. lupercalis*) fruktifikatuak eta zimelduta aurkitu dira.

2021ean beste azterlan bat egin da, non Getxoko hiru gunek berrikusi diren, lehentasunezko batasunaren intereseko habitaten presentzia zehazteko helburuarekin. Azterlan hau IAE honen II. Eranskinean dago ("Análisis de presencia de los hábitats prioritarios 6210* lastonar y 4040* brezales costeros en el término municipal de Getxo" Amador Prieto Fernández. Mayo 2021). Jarraian, txostenaren ondorioak azaltzen dira: "Orkidea espezieak bilatu dira Andra Mari inguruko albizti batean, orkidea aipagarririk ba ote dagoen eta, beraz, Batasunaren lehentasunezko intereseko 6210* habitata ote den zehazteko".

Andra Mariko lastairaren kasuan, 2015ean bezala, egiaztatu zen bertan dauden larreak, sasiek kolonizatzen dituzten eremu bat dela, eta 6510 habitata dagoela (sega-belardiak). Orkideei dagokienez, 6210 habitata lehentasunezkoztat jotzeko, gutxienez honako baldintza hauetako bat bete behar da:

- Bertan orkidea espezie ugari daude.
- Guneak, gutxienez, lurralde nazionalen oso ohikotzat jotzen ez den orkidea baten populazioa du.
- Tokiak lurralde nazionalen arrarotzat, oso arrarotzat edo ohiz kanpokotzat jotzen diren orkidea espezie bat edo batzuk ditu.

Aztergai den eremuan, *Serapia cordigera* espezieko 63 ale baino ez dira aurkitu. Espezie hori Euskal Autonomia Erkidegoko Landare-Giltzarrietan "urria" gisa sailkatua dagoena (ohiko kategoriaren eta arraroaren artekoa). Beraz, ezin daiteke baieztatua arestian aipatutako baldintzetako batbera ere betetzen denik eta, ondorioz, lastaira horiek lehentasunezko intereseko habitatak direnik.


***Alnus glutinosa* eta *Fraxinus excelsior*-en ibarbasoak (91E0*)**

Ibaiei lotutako habitata da, eta ibaiertzeko baso eurosiberiaren eta trantsiziokoaren serieen etapa helduenak dira. Batez ere, Larrainazubi errekan agertzen dira, eta, neurri txikiagoan, Gobelan, Berangoko mugaren eta BI-637 errepidearen artean.

3.7.4. Mehatxatutako flora espezieak

Ingurumen-kartografiaren arabera, Getxon leheneratze-planak dituzten eta Arriskuan dauden Mehatxatutako Espezieen Euskal Katalogoan (MEEK) sartuta dauden biespezie erregistratu dira, galtzeko arriskuan kategoriarekin *Chamaesyce peplis* eta *Olea europaea* var. *sylvestris*.

Olea europaea var. *sylvestris* delakoak errekupeazio-eremu bat du Gorrondatxe hondartzan; *Chamaesyce pepelis* espezieak, berriz, berreskuratze-eremuak ditu udalerraren iparraldean, hau da, itsasertzeko itsaslabarren behealdean, eta Gorrondatxe hondartzan, eta kontserbazio-eremuak ditu hondartza horretan bertan.



Irudia 12. Leheneratzeko planak dituzten espezieak, Getxoko kostaldean (Iturria: Datu Espazialen Egitura. Eusko Jaurlaritza)

Getxoko Udalak plan pilotu bat jarri zuen martxan 2016an Azkorri-Gorrondatxe hondartzaren eta Galea lurmuturraren artean dagoen kostaldeko txilardien ekosistema hobetzeko eta babesteko. Bi eremu itxi ziren, bata Azkorriko aparkalekuaren inguruan (zirkularra eta 350 metro inguruko perimetroa) eta bestea Alpenarri lurmuturrean, Tunel Boka kalaren ondoan (800 metro inguruko itxitura lineala), higitutako guneeetan landareztatze naturala indartzeko helburuarekin.

Jarduera horrek berekin dakar eremu horietako ingurumen-ondorioen jaraipena egitea, fauna- eta flora-adierazleen bidez. Aurrerapen gisa, 2017ko udaberriko jarraipen-kanpainan hainbat hegazti espezie itzuli zirela egiaztatu ahal izan zen (txirriskila, pitxatxar burubeltza, karnaba, zozoa, hesi-berdantza, sasi-txoria, kurruka kapirotatua, txinbo kaskabeltza, txepetxa eta belatz gorria).


3.7.5. Flora exotiko inbaditzailea

Bizkaiko Iraunkortasunerako Institutuak 2010ean argitaratutako "Flora aloktono inbaditzailea Bizkaian" liburuaren eta Eusko Jaurlaritzaren webgunearen arabera, Getxon espezie hauek egon daitezke:



- *Acacia dealbata**
- *Agave americana**
- *Alianthus altissima**
- *Amaranthus deflexus*
- *Amaranthus hybridus*
- *Araujia sericifera**
- *Arctotheca caléndula*
- *Aster squamatus*
- *Baccharis halimifolia***
- *Bidens aurea*
- *Bromus catharticus*
- *Buddleja davidii**
- *Carpobrotus edulis**
- *Chamaesyce polygonifolia*
- *Chenopodium ambrosioides*
- *Conyza canadensis*
- *Coronopus dydimus*
- *Cortaderia selloana**
- *Cyperus eragrostis*
- *Erigeron karvinskianus*
- *Fallopia japonica**
- *Ipomoea indica**
- *Lonicera japonica*
- *Matthiola incana*
- *Oenothera glazioviana*
- *Oxalis latifolia*
- *Paspalum dilatatum*
- *Paspalum distichum*
- *Paspalum vaginatum*
- *Pittosporum tobira*
- *Reynoutria japonica*
- *Robinia pseudoacacia*
- *Senecio cineraria*
- *Senecio inaequidens**
- *Senecio mikanioides*
- *Solanum chenopodioides*
- *Sorgum halapense*
- *Spartina patens**
- *Sporobolus indicus*
- *Stenotaphrum secundatum*
- *Tradescantia fluminensis**
- *Xanthium strumarium*

Izartxo (*) batez markatutako espezieak Espezie Exotiko Inbaditzaileen Espainiako Katalogoan sartuta daude. Bi izartxo (*Baccharis halimifolia*) markatutako espeziea, lehen aipatutako katalogoan egoteaz gain, Europar Batasunerako kezkarriak diren espezie exotikoen zerrendan dago.



Argazkia 7. *Buddleja davidii* espezie inbaditzailearen alea Galea lurmuturrean

3.7.6. Lurzoruaren erabilera


Azken Baso Inbentarioan jasotakoaren arabera (2020 urtea), Getxoko lurzoruaren erabilera ondorengo moduan banatzen da (15. mapa):

Erabilera	Azal. (Ha)	Udalerriko %
Itsaslabarrak	60,57	5,12
Zuhaixkak	59,72	5,05
Artifiziala	695,08	58,73
Basoa	25,76	2,18
Ibar-basoa	7,29	< 1
Baso landaketak	46,89	3,96
Laborantzak	19,76	1,67
Ur-ibilguak	8,63	< 1
Belardi-larreak	23,70	2,00
Itsasoak eta ozeanoak	0,74	< 1
Larre-Sastrakadiak	34,01	2,87
Hondartzak, dunak eta hareatzak	11,15	< 1
Belardiak	190,29	16,08

Taula 11. Getxoko lurzoruaren erabilera (Iturria: 2020ko Baso Inbentarioa. Eusko Jaurlaritz)



Artifizializatutako lurzoruak lurraldearen erdia baino gehiago hartzen du (%59), 695 hektarea inguru, eta horietatik 561 hektarea hiri-lurzoruari dagozkio. Askoz neurri txikiagoan, belardiak daude, 190 hektarearekin (%16), iparraldean batez ere. Bertako basoak lurraldearen %3 baino gutxiago dira.



Irudia 13. Lurzoruaren erabilera nagusien banaketa Getxon

3.8. Fauna

Getxokon dauden fauna-espezie gehienak espazio antropizatuei lotutakoak dira. Interes handieneko espezieak ekosistema urtarrei lotutakoak (Bolue ibaiaren ingurua), bertako baso urriei lotutakoak (hariztiak eta haltzadiak), itsaslabarrei lotutakoak eta Aizkorri inguruneari lotutakoak dira. Azken hau da udalerrian nekazaritza eta abeltzaintzako erabilerak dituzten natura-gune urrietako bat, Larrainazubiko landa-eremuarekin batera.

Getxoko Ingurumen Foroak egindako informaziotik jasotzen denez, HAPo idazteko lehenengo faseetako parte hartzearen esparruan, honako fauna-espezie hauek daude udalerrian:

Bolue hezegunearen inguruan, Larrañazubi landa-eremuan eta errekan, intereseko espezieak daude, hala nola: zuhaitz-belatza, apo-hontza, amiltxori txikia, lezkari karratxina, lezkari arrunta, martin arrantzalea, amiltxori arrunta, dilindaria, uroilanda handia, txilinporta txikia, apoarmatu stiltzalea, apoarmatu korrontezalea eta bisoi europarra, besteak beste.



Baso autoktonoko orban urrietan eta haltzadietan honako fauna-espezie hauek egon daitezke: antzandobi arrunta, mirotz zuria, belatz gorria, zata arrunta, gabiraia, hontza zuria, miru arrunta, okil txikia, okil handia, lepitzulia, baso-igel iberiarra, arrabioa, eskulapioren sugea, kataginetak, bisoi europarra ibaien ondoan etab.

Kostaldean, besteak beste, belatz gorria, ubarroi mottoduna, harkaitz-zozo urdina eta apo lasterkaria daude.

Aizkorri ingurua, pinudiak eta inguruko landazabala dituen, hegazti migratzaileentzako lehen atsedenekua da, batez ere belardiak eta pinudia erabiltzen dituztenentzat. Beste alde batetik, inguru horretan, besteak beste, belatz handia, belatz beltza, mozoloa, hegatzabala, hontza, okil berdea, zata arrunta eta apo-hontza egon daitezke; baita ugaztunak ere, hala nola azeria, erbinudea, lepazuria eta katagorria; anfibioak eta narrastiak, hala nola musker berdea eta Schreiber muskerra eta seoane sugedorria.

Bestalde, Getxoko udalerriko faunaren egoerari buruzko azterlan eta inbentario ugari daude, Udaleko Ingurumen Arloak eskatuta. Bolueko hezegunearen eta Arrigunaga - Barinatxe (X. Buenetxea et al.) kostaldeko zatiaren jarraipen faunistikoak nabarmen dira, eta, besteak beste, arreta berezia jartzen dute apoarmatu korrontezalearen eta apo lasterkariaren populazioen kontrolean, biak interes handiko espezieak dira, eta "kaltebera" gisa katalogatuta daude.

Informazio gisa eta xehetasunik eman gabe, udalerriko hainbat inguruetan dauden fauna-espezieen zerrenda bat jaso da, kontsultatutako lan guztietatik (hegaztiak, ugaltzaileak bakarrik) hartutakoa, baita hauen babes-maila:

	Izen zientifikoa	Izen arrunta	Categoría CVEA
Ugaztunak	<i>Sciurus vulgaris</i>	Urtxintxa	-
	<i>Genetta genetta</i>	Kataginetak	-
	<i>Neomys fodiens</i>	Ur-satitsua	-
	<i>Mustela putorius</i>	Ipurtasa	Interes berezia
	<i>Mustela lutreola</i>	Bisoi europarra	Galtzeko arriskuan
Hegaztiak	<i>Lanius collurio</i>	Antzandobi arrunta	-
	<i>Falco subbuteo</i>	Zuhaitz belatza	Arrarora
	<i>Alauda arvensis</i>	Hegatzabal arrunta	-
	<i>Otus scops</i>	Apo-hontza	-
	<i>Ixobrychus minutus</i>	Amiltxori txikia	Arrarora
	<i>Acrocephalus scirpaceus</i>	Lezkari arrunta	Arrarora
	<i>Acrocephalus arundinaceus</i>	Lezkari karratxina	Arrarora
	<i>Falco tinnunculus</i>	Belatz gorria	-
	<i>Caprimulgus europaeus</i>	Zata arrunta	Interes berezia
	<i>Phalacrocorax aristotelis</i>	Ubarroi mottoduna	Arrarora
	<i>Corvus corax</i>	Erroia	Interes berezia
	<i>Sylvia melanocephala</i>	Txinbo burubeltza	-
	<i>Accipiter nisus</i>	Gabiraia	Interes berezia
	<i>Falco peregrinus</i>	Belatz handia	Arrarora
	<i>Tyto alba</i>	Hontza zuria	-
	<i>Alcedo atthis</i>	Martin arrantzalea	Interes berezia
	<i>Nycticorax nycticorax</i>	Amiltxori arrunta	Arrarora
	<i>Milvus migrans</i>	Miru beltza	-



	Izen zientifikoa	Izen arrunta	Categoría CVEA
	<i>Athene noctua</i>	Mozoloa	-
	<i>Remiz pendulinus</i>	Dilindaria	Interes berezia
	<i>Dendrocopos minor</i>	Okil txikia	Interes berezia
	<i>Dendrocopos major</i>	Okil handia	-
	<i>Porzana porzana</i>	Uroilanda pikarta	Interes berezia
	<i>Rallus aquaticus</i>	Uroilanda handia	Arraroa
	<i>Monticola solitarius</i>	Harkaitz-zozo urdina	Interes berezia
	<i>Jynx torquilla</i>	Lepitzulia	Interes berezia
	<i>Tachybaptus ruficollis</i>	Txilinporta txikia	Arraroa
Anfibioak eta narrastiak	<i>Salamandra salamandra</i>	Arrabioa	-
	<i>Bufo calamita</i>	Apo lasterkaria	Kaltebera
	<i>Triturus marmoratus</i>	Uhandre marmolairea	-
	<i>Lissotriton helveticus</i>	Uhandre palmatua	-
	<i>Rana temporaria</i>	Baso-igel gorria	-
	<i>Rana iberica</i>	Baso-igel iberiarra	Interes berezia
	<i>Hyla arborea</i>	Zuhaitz-igel arrunta	-
	<i>Lacerta schreiberi</i>	Schreiber muskerra	Interes berezia
	<i>Coronella girondica</i>	Suge leuna	-
	<i>Elaphe longissima</i>	Eskulapioren sugea	Interes berezia
	<i>Coronella austriaca</i>	Iparraldeko suge leuna	-
	<i>Vipera seoanei</i>	Seoane sugegorria	-
	<i>Chalcides striatus</i>	Eskinko hiruhatza	-
	<i>Emys orbicularis</i>	Apoarmatu istilzalea	Kaltebera
	<i>Mauremys leprosa</i>	Apoarmatu korrontezalea	Kaltebera
Arrainak	<i>Gasterosteus aculeatus</i>	Arrain hiruarantza	Kaltebera


Taula 12. Udalerriko hainbat lekutan dagoen fauna-espezie batzuk

Azpimarratu behar da Gorrondatxeko putzuan dagoen apo lasterkariaren jarraipena egiten duela Getxoko Udaleko Ingurumen Sailak, eta haren habitata hobetzeko lanak egiten direla.

Gainera, " S.O.S Galapagos" izeneko proiektuaren bidez, Bolueko hezegunean dauden bertako apoarmatuen (korrontezalea eta istilzalea) populazioaren jarraipena egiten da eta apoarmatu exotikoen erazketa.

Bestalde, Bolue ingurua eta udalerraren iparraldeko kostalde osoa Plentzia-Bolue-Lemoniz-Jata (2016ko maiatzaren 6ko Agindua. EHAA, 96. zk.) kostaldea babesteko eremuen barruan daude, hau da, hegazti-faunarentzat garrantzitsuak diren eremuak dira. Horientzat, 1432/2008 Errege Dekretuak arau teknikoak ezartzen ditu, goi-tentsioko aireko lineei aplikatzekoak, eroale biluziekin, hegazti-fauna linea elektrikoetan talka egitetik eta elektrokuziotik babesteko.

Hala ere, udalerrian goi-tentsioko aireko linea elektrikoak daude, 1432/2008 EDren 6. eta 7. artikulutean ezarritako preskripzio teknikoekin bat ez datozenak (2018ko ekainaren 18ko ebazpenak ezartzen duen bezala, Natura Ondare eta Klima Aldaketako zuzendariarena), hurrengo irudian ikus daitekeen bezala.



Irudia 14. Linea elektrikoak eta hegazti-fauna babesteko eremuak Getxon.
 (Iturria: Datu Espazialen Egitura. Eusko Jaurlaritza)

3.8.1. Mehatxatutako fauna espezieak

Eusko Jaurlaritzaren kartografia ofizialaren eta web orriaren arabera, Getxon, Kudeaketa Plana duten espezieetako batzuk aurkitu daitezke, Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan (EMEK) ere jasota daudenak. Hauek arrain hiruarantza (*Gasterosteus aculeatus*), espezie kaltebera, eta bisoi europarra (*Mustela lutreola*), desagertzeko arriskuan dagoena, dira.

Bisoi europarrak (*Mustela lutreola*) Bizkaiako Lurralde Historikorako Kudeaketa Plan bat dauka (2006/118 Foru Dekretua), beraz Kudeaketa Planean jasotako zehaztapen oro kontuan hartu beharko da ur-ibilgu hauetako ekosistemak eraldaketa ekiditeko (batez ere, egungo landarediaren eta ur kalitatearen mantenua). Kudeaketa Planak ez ditu udalerrian dauden ibai-ibilgueak plan honen aplikazio-eremua osatzen duten eremutzat hartzen. Hala ere, Eusko Jaurlaritzaren ingurumen-kartografiaren arabera, Getxoko ibai-ibilgu guztiak espezie honentzako "hobetu beharreko tartetzat" jo dira.

A pesar de no constar firmas manuscritas, este documento tiene validez legal. En la Página Web Municipal (https://www.getxo.eus/validadocumentos) podrá obtener una copia auténtica de este documento en formato digital, mediante el Código Seguro de Verificación que aparece en el margen izquierdo.
 Aqiri honek eskuz idatzitako sinadurik ez izenperik ez duen arren, legezko balioa du. Getxoko Udaltaren web-orrialdeik (https://www.getxo.eus/dokumentuak/guztizatu) agiri honen benetako kopia eskuratu ahal duzu formatu digitalean, ezkerrealdean ageri den egiaztapen-kode segurua erabiliz.

CSV: GET/CSV/2024/21482 kjmtErBhrY



Bisoi Europarraren Kudeaketa Plana

Bisoi Europarraren Kudeaketa Planaren arabera, Bizkaiko Lurralde Historiko osoan, Hurrengo debeku generikoak aplikatu ahal izango dira (6. artikulua):

- a) *Animaliak edo euren kumeak hil, jazarri edo gogaitzeko eta euren habitata eta batez ere euren umetzeko eta atsedena hartzeko lekuak suntsitzeko asmoz baimenik gabe egiten diren jarduera guztiak.*
- b) *Espezieko animalia biziak edo hilak eduki, naturalizatu, garraiatu, saldu, erakutsi, inportatu edo esportatzea, baldin eta beren-beregi baimenduta ez badago.*
- c) *Euren populazioei kalteak eragin diezaieketen beste animalia-espezie batzuk sartzea natura-inguruan.*

9. art.: Espezieak ugaltzeko edo babesteko erabiltzen duen habitataren ezaugarriak aldatzea eragingo duen jardueraren bat egin nahi bada interes bereziko arloetan, Nekazaritza Sailaren baimena beharko da.

10. art.: Interes bereziko arloetan, zuzenean zein zeharka, espeziea kontserbatu edo berreskuratzeari aintzat hartzeko moduko eraginik ekarriko dion edozein plan edo proiektu egitekotan, bera bakarrik edo beste plan edo proiektu batzuekin batera, Nekazaritza Sailaren nahitaezko txostena egin beharko da horri buruz. Izan ere, Kudeaketa Plan honetan azaldutako helburuengana izango dituen eraginak behar bezala balioztatuko direla zainduko da bertan. Balioztatze horrek, beste alderdi batzuen artean, espezieari, uren kalitateari eta habitatarekin eragintzeko eraginak aztertuko dira.

12. art.: Lurraldeko eta hirigintzako plangintza-tresnek bisoi europarraren habitatak gorde, iraunarazi edo leheneratzen direla ziurtatuko dute, eta habitat horiek mugatzea beharrezkoa denean, hori justifikatu beharko dute.

Era berean, arrain hiruarantzak (*Gasterosteus aculeatus*) 186/2008 Foru Dekretuaren bidez onartu zuen Kudeaketa Plana. Plan honetan, Gobela ibaia eta Bolueko hezegunea interes bereziko eremutat hartzen dira.

Gobela gainera, Plan Hidrografikoko Eremu Babestuen Erregistroko babes bereziko zonen barruan dago; beraz, bertan adierazten diren agindu guztiak bete beharko dira eta arreta handiz zaindu beharko da ibilgu horietako ekosistemak ez aldatzeko (batez ere, egungo landaredia eta uren kalitatea mantentzea).

Arrain hiruarantzaren Kudeaketa Plana

Bizkaiko Lurralde Historiko osoan ondoko debeku orokor hauek aplikatuko dira (Art.5):

- a) *Baimenduta ez dauden jarduketa guztiak baldin eta horien asmoa arrainak hiltzea, horiei jazartzea edo eragozteka bada, eta jarduera horien barruan sartzen dira arrainkume eta arrabak. Halaber, debeku da arrainen habitatak haustea eta, bereziki, ugalketa tokiak deusezteka.*
- b) *Animalia biziak eta hilak edukitzea, naturalizatzea, garraiatzea, saltzea, erakustea, inportatzea edo esportatzea, salbu eta berariaz baimenduta dauden kasuetan.*
- c) *Arrain hiruarantzaren habitatean beste animalia espezie batzuk sartzea, talde horietan eragin negatiboren bat izan ditzaketanak, alegia.*

6. art.: Interes bereziko aldeetan edozein jarduketa egiteko, baldin eta espezieak erabiltzen duen habitateko ezaugarriak aldarazteko arriskurik badago, alde zuzenetik Nekazaritza Sailaren baimena beharko da.

7. art.: Interes bereziko alde horietan espeziearen artapan edolehengoratzeari, zuzenean zein zeharka, era nabarmenean eragin handiak ekar ditzaketan plan, egitarau edo proiektu guztiak, berdina da euren bakarrik edo bestelako plan, egitarau edo proiektu batzuekin konbinatuta, Nekazaritza Sailaren manuzko txostena beharko dute. Nekazaritza Saila izango da horiek Kudeaketa Plan honen helburuei dagokienez dituzten eraginaren ebaluazio egokia egiteko ardura izango duena.

9. art.: Lurralde, sektore eta hirigintza mailako plangintzarako bitartekoek ere espezie honen habitata artatzeko, mantentzeko edo lehengoratzeko ahalegina egingo dute eta bidezkotu eta arazoitu egingo dituzte horiek mugatzeko beharrezkoak.



3.8.2. Fauna exotikoa

Bizkaiko Iraunkortasunerako Institutuak 2012an argitaratutako "Fauna exotiko inbaditzailea Bizkaian" dokumentuaren arabera (Eusko Jaurlaritzaren webgunea), Getxoko udalerrian espezie hauek egon daitezke:

- Basahatea (*Anas platyrhynchos*)
- Angilikola (*Anguillicoloides crassus*)
- Liztor asiarra (*Vespa velutina*)**
- Karramarro gorria (*Pocrambarus clarkii*)**
- *Potamopirgusa (Potamopyrgus antipodarum)**
- Urre-arraina (*Carassius auratus*)
- Kramer papagaitxo (*Psittacula kramer*)*
- Floridako dortoka (*Trachemys scripta*)**
- Ganbusia (*Gambusia holbrooki*)*
- Mandarín ahatea (*Aix galeuriculata*)
- Perka amerikarra (*Micropterus salmoides*)
- Indotxinako lur-planaria (*Bipalium kewense*)
- Bisoi amerikarra (*Neovison vison*)*

Izartxo (*) batez markatutako espezieak, halaber, Espezie Exotiko Inbaditzaileen Espainiako Katalogoan sartuta daude. Bi izartxo (**) dituzten espezieak, lehen aipatutako katalogoan egoteaz gain, Europar Batasunerako kezkarriak diren espezie exotikoen zerrendan daude.

3.9. Paisaia

Ingurune fisikoaren azterketan paisaia sartzea garrantzitsua da, banaka begiratzen diren osagai guztiak bateratzen dituelako. Gainera, paisaia, ondare kulturala den baliabide natural bat da, babestu eta lurralde antolamenduan kontutan hartu beharrekoa.

Testuinguru horretan, Getxoren kokapen pribilegiatuak, Ibaizabal ibaiaren bokalean eta kostaldeko zerrendan, eta paisaiaren mugarriek (Zubi Esekia, Aixerrrotako errota, Algortako Portu Zaharra, elementu arkitektonikoak, hondartzak, itsaslabarrak, etab.), oro har, balio handia ematen diote paisaiaren pertzepzioaren ikuspegitik, nahiz eta oso udalerrri urbanizatua izan.

Bestalde, artifizializatu gabeko lurzoruen azalera txikia da; izan ere, auzoek (Erromo, Areea, Algorta, Neguri eta Santa Maria) hiri-jarraitua osatzen dute, eta kostaldearen eta bere eragin-eremuaren ondoan dauden lurzoruen zati bat bakarrik uzten dute urbanizaziotik libre, baita Larrañazubiko haranari eta Bolueko hezegunearen inguruari dagokion landa eremua ere. Gune hauen ezaugarri nagusia nekazaritzako eta basogintzako mosaikoa da, zuhaitz-orban eta zuhaixka-heskaiak sakabanatura agertzen direlarik, baserriekin eta familia bakarreko etxebizitzekin batera, zalantzarik gabe paisaia-interesekoa dena. Kotarik altuena (125 metro inguru) Larrañazubibailaran dago.



Mendebaldetik ekialdera, honako hondartzak nabarmentzen dira: Ereaga, Arrigunaga, Tunel Boca, Azkorri eta Salvaje. Azkorriko hondartzak 810 metroko luzera du, eta interes botaniko handiko duna-landarediko komunitateak ditu. Salvaje 660 metroko luzera du eta duna interesgarriak ere baditu. Galea lurmuturraren eta Azkorri puntaren artean Tunel Boca hondartza dago, eta bertan saneamendu-kolektore bat itsasoratzen da.

3.9.1. Ikus arroak eta paisaia unitateak

Paisaiaren deskribapena ikus arroen eta paisaia unitateen bidez egin da. Ikus arroak eremu itxiko zonaldeak dira ikuspuntu desberdinetatik. Paisaia Unitateak, aldiz, eremu gutxi gora-behera homogeneobat osatzen dute, funtzionaltasunari eta pertzepzioari dagokionez. Orokorrean unitate hauek faktore naturalei lotuta daude (arroak, topografia, egitura geomorfologikoak, etab.).

EAEko ingurumen kartografiaren arabera, udalerrian lau ikus-arro daude: Getxo, azalera handienekoa; Sopela, ipar-ekialdeko zati txiki batean; Goierri, Larrainzubiibaia jarraituz Erandiorantz eta Barakaldo, hegoaldean. Udalerriak 12 paisaia unitate desberdin ditu, 3 domeinu geomorfologikoetan banatuta: flubiala, itsasbazterrekoa eta antropogenikoa (16. mapa).

Eremu flubiala	Itsasbazterreko eremua
<ul style="list-style-type: none">- Sastrakadia- Baso landaketak- Belardiak eta atlantikoaldeko laborantzak nagusi dituen nekazaritza- Mosaiko mistoa- Hiri inguruko mosaikoa	<ul style="list-style-type: none">- Itsaslabarra- Hondartza- Sastrakadia- Hiria- Baso landaketak- Belardiak eta atlantikoaldeko laborantzak nagusi dituen nekazaritza
	Eremu antropogenikoa
	<ul style="list-style-type: none">- Hiria

Taula 13. Getxoko paisaia unitateak. Iturria: EAEko ingurune kartografia

Paisaia unitate nagusia hiria eremu antropogenikoa da, udalerraren zatirik handiena hartzen baitu. Bertan bizitegi-garapen, jarduera ekonomiko eta azpiegitura nagusiak kokatzen dira.

Bolue ibarrean, paisaia-unitate adierazgarriena mosaiko mistoa eremu flubialean da. Era berean sastrakadia, baso landaketaketak, belardiak eta laborantzak nagusi dituen nekazaritza daude, denak eremu flubialean. Deskribatutako azken hiru paisaia-unitateak, udalerraren iparraldean ere daude, bertan belardiak eta atlantikoaldeko laborantzak nagusi dituen nekazaritza unitatea da azalera handienekoa. Hiri inguruko mosaikoari dagokionez, udalerraren ekialdean (Leioa eta Berangoko muga) azalera txikia du.



Azkenik, itsasbazterreko eremuko paisaia unitateak Aixerroan, Galean eta golfzelaia inguruetan daude, hiria eta belardiak eta atlantikoaldeko laborantzak nagusi dituen nekazaritza paisaia-unitateak tartekatuz. Itsaslabarreko paisaia-unitateakiparaldeko kostaldea hartzen du eta Arrigunagako hondartzaraino hedatzen da. Hondartza hau, Ereaga, Gorrodantxe (Azkorri) eta Barinatxerekin batera, hondartzako paisaia-unitatearen barruan dago.



Argazkia 8. Gorrondatxe hondartza, "hondartza eta itsaslabarrak" paisaia-unitatean

3.9.2. Paisaia Bikain eta Apartekoen Katalogo Irekia

Katalogo honek, itsasaldea (Sopelako mugatik kirol-porturaino) Itsas Eraginpeko Paisaia moduan katalogatzen du (Galea lurmuturra-Barrika eta Getxo), bertako paisaiarengan itsasoak eragin positiboak dituelako (16. mapa). Katalogo honek, gainera, Aixerotako Errota eta Bizkaia Zubia (Zubi Esekia) paisaia-mugarritzat jotzen ditu. Aipatu Bizkaia Zubia, 2006 urteaz geroztik UNESCOren Munduko Ondarearen Zerrendan dagoela.



Argazkia 9. Bizkaia Zubia



3.9.3. Bilbo Metropolitarrako Paisaiaren Katalogoa eta Zehaztapenak

Bilbo Metropolitarrako Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren 1.6.2 atalean adierazi den bezala, Getxon lau paisaia-unitate identifikatzen dira (Itsasadarra, Getxo, Uribe Kostako Landazabalak eta Uribe Kostako itsaslabarrak), eta lau PIBE: hiri-hezeguneak (Bolue) eta aparkaleku handiak (La Galea Golf, Azkorri itsaslabarra eta Gorratxe hondartza).

Azkenik, udalerrirako lortu nahi diren paisaia-kalitatearen helburuak paisaia fisiografiko eta naturalekin eta kultura-ondarearekin lotuta daude:

Antolamenduaren helburuak:

- Substratuak eta prozesu geologikoak paisaiaren determinatzaile gisa balioestea, Geologia Interesdun Lekueta arreta berezia jarriz (GIL).
- Mendiko larreak, zuhaixken, zuhaiztien, heskaien eta baso autoktonoen eraketak eta zuhaitz bereziak kontserbatzea eta hobetzea, biodibertsitate handiko kultura-paisaien erakusgarri bizi gisa.

Helburu mistoak (babesa eta antolamendua barne):

- Itsaslabarretako, hondartzetako eta badietako paisaia -kalitatea kontserbatzea eta hobetzea, degradatutako lekuak lehengoratzeko eta habitat hauskorenekin bateragarria eta errespetuzkoa den erabilera publiko sustatzea.
- Ibaietako, itsasadarretako eta hezeguneetako paisaiak leheneratzea eta hobetzea, bai elementu fisikoak, bai biologikoak, eta erabilera publiko bateragarria sustatzea.
- Eraikitako kultura-ondarea eta haren paisaia-ingurunea kontserbatzea, zaharberritzea eta balioestea.
- Paisaiaren aprobetxamendu historikoarekin lotutako kultura-ondare immateriala (erabilerak eta adierazpenak) sustatzea eta berreskuratzea, eta paisaia-balo handiko eremuetan (arrantza-portua eta ekitaldien kokapena) egiten dituzten kultura-, erlijio-, kirol- eta jai-ekitaldiak antolatzea.

3.9.4. Paisaiaren Ekintza Plana


Udalerrriak badu Paisaiaren Ekintza Plana (PEP) Getxoko itsas fatxadarako, Arriunagatik Begoñaraino, 2016an LASUMA Paisajistas enpresak egina, EAeko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzeari buruzko 90/2014 Dekretuaren esparruan.



Plan honek paisaiarengan eragin zuzena duten plangintza eta kudeaketa tresnei erreferentzia egiten die, hauen artean, HAPO, paisaia intereseko elementu eta balioak identifikatzen ditu, elementu natural edota arkitektonikoak, eta eremuan dauden paisaia unitateak zehazten ditu, ondoren, unitate bakoitzaren diagnostia egin eta paisaia kalitateko helburuak ezartzeko. PEPak jarduera-programa bat garatzen du identifikatutako 4 paisaia-unitateetarako:

01-PU. Arrigunaga Paisaia-Unitatea:


1. Paisaia landareztatu eta lehengoratu::
 - 1.a. landareztatze lanak
 - 1.b. habitaten lehengoratzea
 - 1.c. landaredia inbaditzailearen eliminazioa
2. Itsaslabarren ibilbidea
3. Arrigunagako landak:
 - 3.a. Tamarindos landaren egokitzapena
 - 3.b. Kaiokabide landaren egokitzapena
4. Blocao-La Kantera multzoa:
 - 4.a. itsaslabarren ibilbidearekin loturak
 - 4.b. elkarretaratze puntua
5. Arrigunaga hondartzaren naturalizazioa
 - 5.a. faunaren bizigarritasuna
 - 5.b. kostako arkitektura iraungikorra



Irudia 15. 01-PU Arrigunagan proposatutako jarduketak (Iturria: LASUMA Paisajistas 2016)

02-PU. Usategi Paisaia-Unitatea:

6. Landareztatzea
7. Itsaslabarren ibilbidea
8. Begiratokiak :
 - 8.a. dagoen begiratokia atontzea
 - 8.b. Vigía begiratokia atontzea
 - 8.c. begiratoki berria egokitzea
9. Bidexkak egokitzea
10. Palmera parkea
11. Usategi parkea



Irudia 16. 02- UP Usategin proposatutako jarduketak (Iturria: LASUMA Paisajistas 2016)

03-PU.Portu Zaharra Paisaia-Unitatea:


- 12. Jenaratu bidaren egokitzapena
 - 12.a. hareharri hormak
 - 12.b. Jenaratu bidaren berreskuratzea
- 13. Magalen hobekuntza
 - 13.a. magal hezegonkorren lehengoratzea
 - 13.b. magalaren hobekuntza aparkalekurako eskailera loturarekin
- 14. Askanpenako aitzinirudi parkea
- 15. Arrantza portua



Irudia 17. 03-UP Portu Zaharran proposatutako jarduketak (Iturria: LASUMA Paisajistas 2016)

04-PU. Ereaga Paisaia-Unitatea :

- 16. Oinezkoentzako egiteko estrategia
- 17. Artadiaren lehengoratztea
- 18. Oinezko eta begiratokien sarea
 - 18.a. oinezko sarearen finkatzea
 - 18.b. Chopos parkearen paisaia hobekuntza
 - 18.c. María Kristina parkearen hobekuntza
 - 18.d. Miramar kalean begiratokia, Montaño eta Urimendi kaleen artean
 - 18.e. Andres Isasi kaletik behera hiru begiratoki egokitzea
- 19. Paisaia atontzea:
 - 19.a. mugarri txikien nabarmentzea
 - 19.b. Dehesa
 - 19.c. heskaien ordezkapena
 - 19.d. "Txoko erromantiko" berriak
- 20. San Ignazio plazako ardatza - Igeretxe



Irudia 18.04-UP Ereagan (proposatutako jarduketak (Iturria: LASUMA Paisajistas 2016)



3.10. Naturguneak eta interes ekologikoa duten bestelako alderdiak

Getxoko udalerrian, ez dago Natura 2000 Sarean sartutako espaziorik, ez eta katalogatutako intereseko espazio naturalik ere, baina EAeko Paisaia Bikain eta Apartekoan Katalogo Irekian katalogatutako itsas eragineko eremuak ditu (18. mapa).

Bolueko hezegunea nabarmentzen da, Hezeguneen LPSk babestua (II. taldea) eta Gorrondatxeko putzua izen bereko hondartzan (III. taldea).

Bestalde, aipatu behar da Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2012ko irailaren 3ko Aginduaren bidez hasi zela Uribe Kosta-Butroe aldeko NBAP egiteko prozedura.


Txipio Bai Naturalista Elkartek 1999an argitaratutako "Uribe Kosta-Butroeko Natura Azlerlana": ingurune naturala, babestu beharreko biotopoa" lana abiapuntutzat hartuta, Bizkaiko Batzar Nagusiek 2010eko urrian, eta Gorlizko eta Plentziako udalek azaroan eta abenduan hurrenez hurren, aho batez onartu zuten Irizpen bat egitearen aldeko Adierazpen Institutuzional bat, eta Eusko Jaurlaritzari eskatu zioten eremu hori izendatzeko prozedura hasteko. 2011ko otsailean, EHUK Uribe Kosta Butroe eskualdeko natura-balioen azterketa amaitu zuen. Azterlan horren ondorio nagusia, eremua Biotopo babesteko gomendioa izan da.

Getxoko udalerria proposatutako Biotopoaren mugetatik kanpo badago ere, aipatutako azterlanak 1210 habitata eta *Chamaesyce pepelis* eta *Honckenya peploides* landare-espezieak babestea proposatzen du, baita Gorrondatxeko hondartzan dagoen apo lasterkariaren Bizkaiko populazio bakarra ere, gaur egun ez baitaude inongo gune babestutan sartuta.

3.10.1. Ekosistemen Zerbitzuak

Ekosistemen zerbitzuak naturak herritarrei zuzenean edo zeharka ematen dizkien zerbitzuak dira. Hiru zerbitzu mota daude: *hornidura* (lehengaiak ekoiztea, ur geza, etab.), *erregulazioa* (ziklo hidrologikoa arautzea, lurzorua higaduratik babestea, polinizazioa, zaratak moteltzea, etab.) eta *kulturalak* (gozamen estetikoa, aisialdia, etab.).

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak (Unesco Katedra - UPV-EHU, 2014) EAEko Ekosistemen Zerbitzuen Ebaluazioa egin du, karbonoaren biltegitzeari, ur-hornidurari, paisaiaren gozamen estetikoari eta uholdeen moteltzeari buruzko informazioa ematen duen kartografia eginez, besteak beste. Orokorean, Larrainazubiko ibilbideari jarraituz lurraldearen barnealdera sartzen den Getxoko zatia da balio handienak dituen gunea. Era berean, udalerriko kostalde ia osoak oso balio altuak ditu ur-hornikutzarako eta aisialdirako. Jarraian, aipatutako ekosistemen zerbitzuetarako eremu adierazgarrienak jaso dira.



Irudia 19. Ekosistemen Zerbitzuen kartografia Getxon
(Fuente: Infraestructura de Datos Espaciales del Gobierno Vasco)

3.10.2. Naturgune Garrantzitsuen Katalogo Irekia

“EAEko Naturgune Garrantzitsuen Katalogo Irekiak” (Eusko Jaurlaritza, 1996), balio altua duten sistema multzoa jasotzen du, non ezaugarri biotiko eta abiotikoek balio naturalistikoa eta interes paisajistikoa eratzten duten.

- **Balio naturalak:** aukera bakoitzean, batasunaren intereseko habitatek eta, hala badagokio, intereseko bertako beste zuhaitz- eta zuhaixka-landarediak hartutako azalaren ehunekoaren arabera neurtu dira.
- **Paisaia-balioak:** kontuan hartu da Katalogatutako Itsas Eraginaren Eremuetako azalera (Galea-Barrika). Ondorengo ingurumen-ebaluaziorako, paisaiaren kalitatea, ingurunearen artifizializazioa eta udalerriko puntu enblematikoetatik (Galea, Aizkorni) ikus-iragazkortasuna baloratu behar dira.
- **Ibaiak eta konektagarritasun ekologikoa:** aukera bakoitzean dauden edo hurbildauden ibaien (URAREN azken kartografiaren arabera) metro linealak kalkulatu dira, tokiko korridore ekologikoekin (Kanderu erreka) bat datozenak.
- **Akuiferoen zaurkortasuna:** aukera bakoitzean akuiferoen kutsaduraren oso zaurkortasun handia duen lurzoruaren ehunekoa.
- **Nekazaritza-balioak:** nekazaritza-balio handieneko lurzoruaren % aukera bakoitzean. Baratzeek, mintegiek eta sega-belardi atlantikoek hartzen duten azalera erabiliz kalkulatu da, Eusko Jaurlaritzaren EUNIS habitataren kartografia ofizialaren arabera (2020an argitaratua).
- **Lurzoruaren galera:** aukera bakoitzean aurreikusitako lurzoruaren okupazio-azalera.
- **Gaitasun handiko garraio publikorako distantzia:** hurbilen dagoen metro-geltokitik (Ibarbengoa) kilometro bateko erradiotik haratago dagoen azalera urbanizagarria; mugikortasuna errazten duena.
- **Zortasun akustikoko eremua:** aukera bakoitzaren azalera BI-637 foru-errepidearen zortasun akustikoko eremuaren barruan.
- **Geologia Interesdun Lekuen presentzia:** Barrika-Galeako paleozabalgunea GILn dagoen azalera.



Ez dira kontuan hartu hiru aukerarako antzekoak diren ingurumen-alderdiak, eta, beraz, elementu bereizlerik ematen ez dutenak (uholde-arriskua, naturgune babestuek, lurzoru kutsatuak edo Itsasertzeko LPSeko kategorietako batean sartzea. Flora mehatxatua ez da kontuan hartu, aztertutako aukerak ez dudelako arriskuan dauden flora-espezieak biltzen dituzten UTM laukien barruan (1Km x 1Km), Eusko Jaurlaritzaren kartografia ofizialaren arabera.

Beste alderdi posible batzuk azertu ondoren, hala nola, dagoeneko garatuta dagoen lurzoruarekiko hurbiltasuna edo trinkotasuna, hasiera batean, ez direla kontuan hartu diren aukerak aztertzeke elementu bereizgarri garrantzitsuak uste da.

Batasunaren intereseko habitatei dagokienez, aipatzekoa da Eusko Jaurlaritzaren kartografia ofizialaren arabera, aukeren eremuetan 6210* habitata, larre lehor erdinaturalak eta sastrakadi-fazieak substratu karedunen gainean (lehentasunezkoa orkidea garrantzitsuak badaude), egon arren, ez da lehentasunezkozat jo, egindako landa-lanen ondoren (2015 eta 2021 urteetan). Beraz, ez 6210 habitata, ezta 6510 habitata (altitude txikiko sega-belardi pobreak) ere, ez dira lehentasunezkozat hartu (3.7.3 atala, Batasunaren intereseko habitatak ikusi).

0 Aukera

Azalera: 250,9 ha

Andra Mari eremuaren azalera: 190,3 ha

Indarrean dagoen Plan Orokorren zehaztapenak dira, HAPOren berrikuspena ez gauzatzea eta 2001eko HAPOren aurreikuspenak mantentzea suposatuko lukeena. Hau da, etxebizitza-kopurua, ekonomia- eta merkataritza-jarduerak eta okupazio-eredua mantentzea eta indarrean dagoen hirigintza- eta lurralde-araudiari ez egokitzea (EAEko eta Estatuko Lurzoruaren Legea, LPS, LAG, etab.).



Irudia 28. 0 Aukerako bizitegi-lurzoru urbanizagarriarako okupazio-eremua

Ingurumen-faktore bereizleak	Azalera (m ²)
Lurzoruaren galera	1.903.613
Nekazaritza-intereseko lurzorua	1.152.140
Batasunaren intereseko habitatak (lehentasunezkoak ez direnak)	1.311.027
6510 - 380.867 m ²	
6210 - 561 m ²	
GIL	1.650.083
Katalogatutako paisaiak	136.171
Akuiferoen zaurkortasun oso altua	290.249
Ibaien presentzia/bertako korridore ekologikoa	824 m linealetan mugatu eta zeharkatzen du
Errepideen zortasun akustikoaren barruko azalera	149.284
Garraio publikotik km 1 baino gehiagora dagoen azalera	776.745

Taula 21. 0. Aukeraren ezaugarriak, ingurumen-faktoreei dagokienez



1. Aukera Azalera: 54,53 ha

Aukera honek Tosu, Muru, Peña Santa Marina, Dendariena eta Moreaga bizitegi-sektoreak hartzen ditu, azkena, Kurtzesko (Berango) perimetroko garapenekin mugakide delarik. Erantsitako taulan, aukeren hierarkizazioan kontuan hartu beharreko bereizgarritzat jotzen diren ingurumen-faktoreei buruzko informazioa jasotzen da.



Irudia 29. 1. Aukerako bizitegi-lurzoru urbanizagarriko okupazio-eremua

Ingurumen-faktore bereizleak	Azalera (m ²)
Lurzoruaren galera	545.333
Nekazaritza-intereseko lurzorua	399.246
Batasunaren intereseko habitatak (lehentasunezkoak ez direnak)	381.428
6510 - 380.867 m ²	
6210 - 561 m ²	
GIL	337.403
Katalogatutako paisaiak	-
Akuiferoen zaurkortasun oso altua	132.150
Ibaien presentzia/bertako korridore ekologikoa	250 m linealetan mugatu eta zeharkatzen du
Errepideen zortasun akustikoaren barruko azalera	144.513
Garraio publikotik km 1 baino gehiagora dagoen azalera	142.000

Taula 22. 1. Aukeraren ezaugarriak, ingurumen-faktoreei dagokienez



2. Aukera Azalera: 69,11 ha

Aukera honek Tosu, Muru, Peña Santa Marina, Dendariena, Diliz Goikoa eta Matxikortifeko (Diliz-Erribaseraino) bizitegi-lurzoru edo -sektoreak hartzen ditu. Dendariena nabarmen murriztuko litzateke, korridore berde handi bat sortzeko, beste espezie batzuekiko lotura bermatzeko eta nekazaritza- eta abeltzaintza-erabilerak garatu ahal izateko Berangoko garapenak bereiziko lituzkeen zerrenda horretan.

4.2 ataleko taulan, aukeren hierarkizazioan kontuan hartu beharreko bereizgarritzat jotzen diren ingurumen-faktoreei buruzko informazioa jasotzen da.



Irudia 30. 2. Aukerako bizitegi-lurzoru urbanizagarriko okupazio-eremua

Ingurumen-faktore bereizleak	Azalera (m ²)
Lurzoruaren galera	691.066
Nekazaritza-intereseko lurzorua	322.302
Batasunaren intereseko habitatak (lehentasunezkoak ez direnak)	515.925
6510-308.825 m ²	
6210-207.100 m ²	
GIL	508.955
Katalogatutako paisaiak	32.205
Akuiferoen zaurkortasun oso altua	97.734
Ibaien presentzia/bertako korridore ekologikoa	-
Errepideen zortasun akustikoaren barruko azalera	78.819
Garraio publikotik km 1 baino gehiagora dagoen azalera	349.000

Taula 23. 2. Aukeraren ezaugarriak, ingurumen-faktoreei dagokienez

3. Aukera Azalera: 59,4 ha

Aukera honek Tosu, Muru, Santa Marina Peña, Dendariena eta Diliz Goikoa bizitegi-sektoreak hartzen ditu.




Irudia 31. 3. Aukerako bizitegi-lurzoru urbanizagarriarako okupazio-eremua


Ingurumen-faktore bereizleak	Azalera (m ²)
Lurzoruararen galera	593.991
Nekazaritza-intereseko lurzoria	348.487
Batasunaren intereseko habitatak (lehentasunezkoak ez direnak)	433.256
6510 - 332.571 m ²	
6210 - 100.685 m ²	
GIL	409.767
Katalogatutako paisaiak	16.714
Akuiferoen zaurkortasun oso altua	106.797
Ibaien presentzia/bertako korridore ekologikoa	Limita en 200 ml
Errepideen zortasun akustikoaren barruko azalera	117.175
Garraio publikotik km 1 baino gehiagora dagoen azalera	199.000 m ²

Taula 24. 3. Aukeraren ezaugarriak, ingurumen-faktoreei dagokienez


Hurrengo irudietan, ingurumen-alderdi esanguratsuenak islatzen dira (balio naturalak, paisaia-balioak, ibaiak eta konektibitate ekologikoa, akuiferoen zaurkortasuna, nekazaritza-balioak, edukiera handiko garraio publikoarekiko hurbiltasuna, zortasun akustikoko eremua eta Geologia Interesdun Lekuen presentzia), aukerak aztertzerakoan kontuan hartu direnak.




Irudia 32. Balio naturalak




Irudia 33. Paisaia-balioak




Irudia 34. Ibai-ibilguak eta konektibitate ekologiko




Irudia 35. Akuiferoak kutsatzeko zaurkortasuna




Irudia 36. Nekazaritza-balioak



Irudia 37. Garraio publikoarekiko hurbiltasuna



Irudia 38. Zortasun akustikoko eremua



Irudia 39. Geologia Interesdun Lekuak (GIL)

A pesar de no constar firmas manuscritas, este documento tiene validez legal. En la Página Web Municipal (https://www.getxo.eus/validadocumentos) podrá obtener una copia auténtica de este documento en formato digital, mediante el Código Seguro de Verificación que aparece en el margen izquierdo.

A pesar de no constar firmas manuscritas, este documento tiene validez legal. En la Página Web Municipal (https://www.getxo.eus/validadocumentos) podrá obtener una copia auténtica de este documento en formato digital, mediante el Código Seguro de Verificación que aparece en el margen izquierdo.

Agi Honek eskuz idatzitako sinadurik ez izenperik ez duen arren, legezko balioa du. Getxoko Udaltaren web-orrialdeak (https://www.getxo.eus/dokumentuak/egiazta) agiri honen benetako kopia eskuratu ahal duzu formatu digitalan, ezkerrean ageri den egiazta-kode segurua erabiliz.

CSV: GET/CSV/2024/21482 kjmtErBhrY



4.3. Aukeren hierarkizazioa

Ingurumenean erasan txikiena duen aukera hautatzeko, metodologikoki, aztertutako aukerei hierarkizazio-prozesu bate gin zaie (hurrengo taula ikusi). Prozedura honen bidez, hautatutako parametro bereizleak ordenatzen dira, inpaktu txikienetik handienara, edo baldintza txarrenetatik edo hobeagoetatik, 1 onena eta 3 txarrena izanik. Parentesi artean, parametro bakoitzari esleitutako tartea agertzen da, dagokion aukerarekin.

- Gaitasun handiko garraio publikorako distantzia: hurbilen dagoen metro-geltokitik (Ibarbengoa) kilometro bateko erradiotik haratago dagoen azalera urbanizagarria; mugikortasuna errazten duena.

Ingurumen-faktoreak	1. Aukera	2. Aukera	3. Aukera
Balio naturalak (Batasunaren intereseko habitatak edota intereseko zuhaitz/zuhaixkak okupatutako azalaren %)	381.428 m ² (1)	515.925 m ² (3)	433.256 m ² (2)
Paisaia-balioak (Itsas Eraginpeko Paisaien presentzia)	- (1)	32.205 m ² (3)	16.714 m ² (2)
Ibaik eta konektagarritasun ekologikoa (ibaien metro linealak eta alternatiba bakoitzarekiko hurbiltasuna)	Mugan eta zeharkatzen 250 ml-etan (3)	- (1)	200 ml-etan egiten du muga (2)
Akuiferoen zaurkortasuna (oso altuko azalera)	132.150 m ² (3)	97.734 m ² (1)	106.797 m ² (2)
Nekazaritza-balioak (Nekazaritza-balio handieneko azalera lurzorua)	399.246 m ² (3)	322.302 m ² (1)	348.487 m ² (2)
Lurzorua galera (hartuko den azalera)	545.333 m ² (1)	691.066 m ² (3)	593.991 m ² (2)
Garraio publikoarekiko urruntasuna (Ibarbengoako geltokitik km 1 baino gehiagora dagoen azalera)	142.000 m ² (1)	349.000 m ² (3)	199.000 m ² (2)
BI-637aren ZAEren barruan dagoen azalera urbanizagarria	144.513 m ² (3)	78.819 m ² (1)	117.175 m ² (2)
GILen presentzia (Barrika-Galeako paleozabalgunea GILn dagoen azalera)	337.403 m ² (1)	508.955 m ² (3)	409.767 m ² (2)

Taula 25. Aztertutako aukeren ezaugarrien laburpena eta hierarkizazio-prozesua

Aukerak	1. maila	2. maila	3. maila	Guztira	Lekua
1	5* (5x1)	-	4 (4x3)	17	1.
2	4 (4x1)	-	5 (5x3)	19	3.
3	-	9 (9x2)	-	18	2.

(*Aukera bakoitzean errepikatu den maila kopurua)

Emaitza hauen arabera, aztertutako aukeren ingurumen-aldagaiaren arabera hierarkizazioa honakoa izango litzateke:


1. lekuan, 1 Aukera
2. lekuan 3. Aukera
3. lekuan 2. Aukera

Aukeren hierarkizazio-prozesu honen arabera, hiru aukerek oso antzeko emaitzak lortzen dituzte, eta ez dute alde erabakigarrik aukera bat edo bestea argi eta garbi aukeratzeko. Lehen posizioan dagoen alternatiba 1. aukera izango litzateke, nahiz eta egokiena 3. aukera izango litzatekeen, aztertutako parametroen zati handi batean tarteko posizioa hartzen baitu, nekazaritza-lurzoruaren azalera txikiagoa duelako eta ibaietan eragin txikiagoa duelako 1. aukeraren aldean; beraz, ingurumen-kostu txikiena duena izango litzateke.

Gainera, 3. Aukerak lurzoru naturala (urbanizaezina) gutxiago zatikatzen du, eta aurreikusitako lurzoru urbanizaezina trinkoago eta lurralde-jarraitutasun handiagoarekin mantentzea ahalbidetzen du, baita Kanderu errekaen tokiko korridore ekologikoarekin ere.

Hurrengo atalean, azkenean hautatutako proposamenak (2022ko uztailea) xehetasunez deskribatzen dira. Aldaketek garrantzi txikiko aldaketa txiki batzuk egiten dituzte hautatutako aukerarekin alderatuta.

4.4. Hiri-lurzoruko eta urbanizagarriko proposamenen azterketa



Irudia 40. HAPÖren proposamenak



4.4.1. Hiri-lurzoru finkatugabea

Hiri-lurzoru finkatugabeko zuzkidura-jarduketan proposamen asko eraikita edo artifizializatuta daude. Ingurumenaren ikuspegitik kontuan hartzeko alderdi garrantzitsurik aurkezten ez denez, ez dira inpaktuak ebaluatzeko prozesuan sartu, nahiz eta, informazio gisa, taula honetan jaso diren:

Izena	Azal. m ²	Izena	Azal. m ²
AD-R01 Maidagan, 22	1.163,29	AD-R30 Oca 2A	437,75
AD-R02 Aretxondo, 04	892,30	AD-R31 Cervantes 4 y Zugatzarte 56-6	9.345,54
AD-R03 Basagoiti, 43	1.753,13	AD-R32 Máximo Aguirre 29	302,56
AD-R06 Julian Garaizar, 10	907,61	AD-R33 Amistad 7	305,79
AD-R07 Julian Garaizar, 08	1.262,41	AD-R34 Leioa 15	1.562,62
AD-R08 Julian Garaizar, 06	1.585,25	AD-R35 Simon Otxandategi 140	374,30
AD-R09 Marques del Real, 03	1.417,25	AD-R36 Salsidu 113	524,14
AD-R10 Manuel Smith, 03	1.089,42	AD-R37 Salsidu 70	504,24
AD-R11 Amalloa, 08	96,86	AD-R38 Aretxondo 14	450,18
AD-R12 Amalloa, 06	128,31	AD-R39 San Ignacio 8	2.159,45
AD-R13 Santa Eugenia, 18	299,38	AD-R41 Telefonica Ibaigane 10	1.981,17
AD-R14 Mayor, 29	212,22	AD-R42 Telefonica Gaztelumendi 19	1.087,14
AD-R15 Maximo Aguirre, 18	431,93	AD-R43 Muxikeaurrekoa 14	152,22
AD-R16 Jolastokieta, 11	264,98	AD-R44 Ibaibide 11	398,84
AD-R17 Errebitarte, 09	285,18	AD-R45 Neguri 6	264,35
AD-R18 Santa Ana, 25	123,82	AD-R46 Torrebarria 1 y 3	2.268,44
AD-R21 Eretza, 4A	747,73	AD-R47 Maidagan 58	1.905,41
AD-R22 Martikoena, 11-13	515,20	AD-R48 Maidagan 60A	974,85
AD-R24 San Nicolas, 08	1.020,95	AD-R49 Zubitxoa 1	4.205,79
AD-R27 Estrada de Goñi, 05	1.059	AD-R50 Gustavo Adolf Becquer 7	2.128,45
AD-R28 Estrada de Ormaza, 24	523,45		

Taula 1. Bizitegiko Zuzkidura-Jarduketak hiri-lurzoru finkatugabea

Finkatu gabeko hiri-lurzoruan dauden gainerako zuzkidura-jarduketak ebaluazio-prozesuan sartu dira. Aipatu behar da AI-R01, AI-R05 eta AI-R08 deskribatu direla, baina oso ingurune artifizializatueta daudenez, ez direla inpaktuen matrizean sartu.

Izena	Kalifikazioa	Azalera(m ²)	Etxebizitza kop. (protegida y libre)
AI-R01 Martikoena	Bizitegia	8.044,1	81 (35 eta 46)
AI-R02 San Nicolas		5.451	46 (18 eta 28)
AI-R04 Katea-P. Orduña		4.142,18	60 (28 eta 32)
AI-R05 Algorta		1.348,42	14 (libre)
AI-R06 Zubilleta		61.616,38	357 (164 eta 193)
AI-R07 La Galea		3.597,94	4 (libre)
AI-R08 Txiskiena		1.569,36	8 (libre)
AI-R09 Areneazpi		3.395,75	20 (libre)
AI-R10 Nervion-Iturgitxi		2.457,78	12 (libre)
AI-R11 Ormaza		46.141,9	211 (105 eta 106)
AI-R12 Azkorrane		7.113,73	24 (libre)
BIZITEGIA GUZTIRA		144.878,54	837 (432 eta 405)
PC-M01 Mimenaga	J. Ekonomikoa	97.165,58	-
GUZTIRA	242.044,12	837 (461 eta 376)	

Taula 2. Jarduketa Integratuak hiri-lurzoru finkatugabeen

Hiri-lurzoruan lehendik dauden Andra Mariko eremu hauek antolamendu xehatura bidaltzen dira, Plan Bereziaren bidez:

- ARRU-PE-R01 Uri. 63.162 m²
- ARRU-PE-R02 Perune. 31.338 m²
- ARRU-PE-R03 Diliz Goikoa. 24.931 m²
- ARRU-PE-R04 Diliz Behekoa. 25.232 m²
- ARRU-PE-R05 Saratxaga. 32.080 m²
- ARRU-PE-R06 Moreaga. 17.048 m²

Eremu hauek ez dira deskribatu, ezta inpaktuen matrizean sartu ere, hiri-lurzoruan daudelako eta dagoeneko antropizatuta daudelako.

Bizitegia

MARTIKOENA AI-R01 Azalera: 8.004 m²

81 etxebizitza (35 babestuak eta 46 libreak)



Martikoena eremuaren antolamendu xehatua (berdea: eremu libreak; urdina: ekipamenduak eta arrosa eraikinak)

Proposamenaren xedea da Alango kalearen ingurunearekin bat ez datozen erabilerak dituen eremu bat berrantolatzea: udal-zerbitzuen bulegoak eta tailerrak; eta dentsitate oso desberdinak (lehendik dagoen familia bakarreko bat barne). Ehun hori berritu nahi da, bizitegi-bloke kolektiboen bidez, ingurunearekin pareka daitezkeenak.

Proposamenak Konporte kalearekiko oinezkoentzako konexioa ahalbidetuko du (aurreko plangintzetan proposatutako irtenbidea).

SAN NICOLAS AI-R02 Azalera: 5.451 m²

46 etxebizitza (18 babestuak eta 28 libreak)



San Nicolas eremuaren antolamendu xehatua (berdea: eremu libreak; urdina: ekipamenduak eta arrosa eraikinak)

Gaur egun kontserbazio-egoera txarrean dauden lurzati eta eraikinetan dagoen hutsunea osatu nahi da, Portu Zaharra deritzonaren iparraldean garatu gabe baitago. Proposamenak oinezkoentzako konexio bat sartzen du (igogailueksendotua), Etxeandia Apezpikuaren kalearen eta Aretxondo kalearen artean.

Eremuan hainbat eraikin daude, horietako batzuk hustuta, baratzeaketa hainbat zuhaitz (koniferoak, haritza), zuhaixkak eta lorategietako landaredi tipikoa. Lurzoru-mota erabilera ertaineko ahalmena duen kanbisol distrikoari dagokio. Akuiferoen kutsadurarekiko zaurkortasuna handia da sektore osoan. Malda ertainak ditu hegoaldean (%20-30), iparraldean, berriz, zertxobait leunagoak dira (%10-20). Getxoko Itsas Itsas Eraginpeko Paisaiaren barruan dago, Paisaia Berezien eta Apartekoaren Katalogo Irekiaren arabera.



Argazkia 16. Eremuaren mendebaldean dagoen hustutako eraikuntzaren bista (San Nikolas kaletik) eta lorategia eta etxebizitza iparraldetik

2015ean egindako udal-zarataren maparen arabera, maila handienak kaleetatik gertuen dagoen eremuan daude, 40-55 dB(A) artean, egunez eta arratsaldez, eta 40 dB(A) baino gutxiago gauez.

KATEA-P. ORDUÑA AI-R04 Azalera: 4.142 m²

55 etxebizitza (25 babestuak eta 30 libreak)




Antolamendu xehatua (berdea: eremu libreak; urdina: ekipamenduak eta arrosa eraikinak)

Bi (hegoaldean) eraikinak eta lorategiak dituzte. Hirugarrena (erantsitako irudia) eraikinez inguratuta dago, eta bertako landaredia zuhaixkak, zuhaitzak eta landaretza inbaditzailea dira. Malda leunak ditu (%5-20), eta akuiferoen kutsadurarekiko zaurkortasuna oso handia da. Kanbisol distrikoa dagoen eremu batean dago, erabilera ertaineko ahalmena duena.

Azterketa akustikoaren arabera, eremuan ez dira ezarritako KAHak betetzen, batez ere mendebaldeko mugan dagoen metro-linearengatik, gauez KAHak 11dB(A) gaituz, baita Sarrikobaso kalea ere beste aldean.

ALGORTA AI-R05 Azalera: 1.348 m²

14 etxebizitza (libreak)



Antolamendu xehatua (berdea: eremu libreak; urdina: ekipamenduak eta arrosa eraikinak)

Proposamenak, gaur egun Algortako etorbidean kirol-patioa (gainjasa) egiteko erabiltzen den lursaila ordenatzen du. Dagoen mehelina osatzen duen eraikuntza bat definitzen da. Kirol-patioaren erabilerari eutsi zaio, baina Algortako etorbideari erantsitako espazio libre bat definitu da, sestra berean, irisgarritasuna bermatuko duena.

Azterketa akustikoaren emaitzen arabera, ez dira KAHak betetzen Algorta hiribideko trafikoagatik; egunez 6dB(A) gainditzen dira.

ZUBILLETA AI-R06 Azalera: 61.616,38 m²

357 etxebizitza (164 babestuak eta 193 libreak)



Zubilleta eremuaren antolamendu xehatua (berdea: eremu libreak; urdina: ekipamenduak eta arrosa eraikinak)

Ibai-ibilguari atxikitako eraikinak eraistea proposatu da, uholde-arriskua dela-eta gaur egun dauden arriskuak ezabatzeko. Horren ordean, espazio libre bat eta gainazaleko zuzkidura bat (kirol-espazioak edo bestelakoak) sortzea planteatzen da.


Eraikinek bizitegi-erabilera izango dute, hirugarren sektoreko eraikinak, ekipamendu-eta zuzkidura-bizitokiko eraikinak barne. Eremuaren zati bat urbanizatuta dago (etxebizitza blokeak eta familia bakarreko edo bi familiako etxeak, karabanentzako aparkalekua, DYaren oinarria, etab.) eta malda leunak (<%10) ditu.

Landarediari dagokionez, eraikinak ez dauden lekuetan belardiak (6510 batasunaren intereseko habitata), baratzak eta fruta-arbolak daude, baita lorezaintzako espezieak eta zuhaitz-ale batzuk ere (sahatsak, koniferoak, arteak). Gainera, hainbat zonaldeetan espezie inbaditzaileak daude, hala nola kainaberak, Panpako belarrak eta *Buddleja davidii*. Lurzoru mota flubisol eutrikoa da, lurzoruaren erabiletarako oso ahalmen handia duena.



Argazkia 17. Lursailean dauden belardiak eta baratzak

Mendebaldeko mugatik Gobela ibaia igarotzen da, UAHE gisa identifikatua (ES017-BIZ-IBA-03), eta uholde-arriskua dago hiru errepikatze-denboretan (10, 100 eta 500 urte) mendebaldeko erdialdean.




Irudia 41. Hiru errepikatze-denboretarako uholde arriskua (Iturria: Datu Espazialen Egitura. Eusko Jaurlaritz)

Eraikitze baldintzak oso desegokiak dira mendebaldean, uholdeagatik, istiltzeagatik eta ezargune arazoengatik. Era berean, akuiferoen kutsadura errekiko zaurkortasun handia eta oso handia du.

Zatirik handiena errepideen zortasun akustikoaren barruan dago (BI-637 eta Los Chupos etorbidea). Azterketa akustikoak adierazten du KAHk ez direla betetzen, batez ere BI-634 errepideko trafikoagatik, eremua errepidea baino altuago dagoen areneta zarata-pantailak egon arren.

Fauna mehatxatuari dagokionez, Gobela arrain hiruarantza rentzako Interes Bereziko Eremua da, eta bisoi europarrarentzako hobetu beharreko tartea, EAEko ingurumen-kartografiaren arabera.

LA GALEA AI-R07 Azalera: 3.598 m²10 etxebizitza (libreak)

La Galea eremuaren antolamendu xehatua (berdea: eremu libreak; urdina: ekipamenduak eta arrosa eraikinak)

Antolamendu xehatuak Kaioa kalea eta Itsasargiaren Bidea lotuko dituen bide-sistema bat definituko du, gaur egungo Peña de Santa Marina bidea eta Itsasargiaren Bidearen lehen zatia komunikatzeko alternatiba gisa balioko duena. Garatu beharreko erabilerari dagokionez, bizitegi-erabilera ere planteatzen da, dentsitate txikian. Dena den, antolamendua indarrean dagoen legeriara egokitu eta beteko da.

Eremuan, egoera erdihondatuan dagoen eraikin bat, bide bazterretako landaredia eta interes txikiko hainbat zuhaitz eta zuhaixka daude, %3-5 arteko maldetan. Eremu honetako lurzoru-mota erabilera ertaineko ahalmena duen kanbisoro distrikoari dagokio. Akuiferoen kutsadurarekiko zaurkortasuna handia da.



Argazkia 18. AI-R07 La Galea eremuaren inguruak


TXISKIENA AI-R08

 Azalera: 1.569 m²
24 etxebizitza (libreak)


Txiskiena eremuaren antolamendu xehatua (berdea: eremu libreak; urdina: ekipamenduak eta arrosa eraikinak)

Hiri-berrikuntzako jarduketak txiki bat da, egungo eraikinen egoera eta testuingurua (bizitegietakoa) kontuan hartuta.


ARENAZPI AI-R09

 Azalera: 3.396 m²
22 etxebizitza (libreak)


Arenazpi eremuaren antolamendu xehatua (berdea: eremu libreak; urdina: ekipamenduak eta arrosa eraikinak)

Kaltetutako etxadiaren barruko bilbea berrantolatu nahi da, lehendik dagoen ehun eraikia leheneratuz, espazio libre berriak eta zuzkidura-lurzati bat lortu ondoren bame-bilbea irekiz. Jarduketak sarbideak hobetzeko aukera ere aprobetxatzen du.

Eremuan hainbat eraikin, baratze eta interes txikiko hainbat zuhaitz eta zuhaixka daude. Akuiferoen kutsadurarekiko zaurkortasuna handia eta oso handia da. Eremuaren gehiengoan hiru errepikatze-denboretarako (10, 100 eta 500 urte) uholde-arriskua dago. Iparraldeko zati batean kutsatuta egon daitezkeen lurzorua daude, baina baliteke akats kartografiko baten ondorio izatea. Eremu osoa errepideetako zortasun akustikoko eremuaren barruan dago (BI-637 eta Los Chopos hiribidea).

NERVION-ITURGITXI**AI-R10**Azalera: 2.458 m²14 etxebizitza (libreak)

Nervion-Iturgitxi eremuaren antolamendu xehatua (berdea: eremu libreak; arrosa eraikinak)

Jardueraren helburua da bizitegi-sare eraikia amaitzea eta Ibaizabal kalea eta Nerbioi eta Iturgitxi kaleekin bat egitea luzatzea. Aurreko plangintzan planteatu zen, baina ez zen gauzatu. Berriz ere saihasbide txikiekin birplanteatu da, jarduketa integratu moduan, eta lehendik dagoen hiri-bilbea osatzen duten bi bizitegi-eraikin berriantolatu dira.

Eraikuntza bat, bide bazterretako landaredia eta zuhaitz batzuk daude. Akuiferoen kutsadurarekiko oso zaurkortasun handia du. Halaber, eremua errepideen zortasun akustikoko eremuaren barruan dago (BI-637 eta Los Chopos hiribidea). Zaratari buruzko azterlanaren arabera, eremuaren iparraldean ezarritako KAHak betetzen dira, eta hegoaldean, berriz, Los ChOpos etorbidetik datorren zarataren ondoriozko mailak gainditzen dituzte.

ORMAZA**AI-R11**Azalera: 46.142 m²214 etxebizitza (106 babestuak eta 108 libreak)

Eremuan, metroaren bidearen ondoan, hainbat eraikin eta ikastetxe bat daude. Landaredia zuhaitzez eta zuhaixkez osatuta dago, eta flora exotiko inbaditzaileko espezieak ditu (Panpa belarra, *Buddeja davidii*). Akuiferoen kutsadurarekiko zaurkortasuna handia da eremuaren mendebaldean, eta oso handia ekialdean.

Zaratari buruzko azterlanaren arabera, ekialdean dagoen eraikinean ez dira ezarritako KAHak betetzen, Estrada Ormazatik datorren zarata dela eta.



Argazia 19. AI-R11 eremuan dauden eraikinak eta landaredia

AZKORRANE AI-R12 Azalera: 7.113,73m²
24 etxebizitza (babeak)



Irudia 42. Azkorrane eremuaren antolamendu xehatua (berdea: espazio libreak; urdina: ekipamenduak eta arrosa eraikinak).

Jarduketa horrek aukera ematen du inguruko bizitegi-izakinen inpaktua onartzeko, Martiturri sektoreko izaera estrategikoko jarduera ekonomikoak uztartuta.

Eremu horretan hainbat eraikin daude, artzaintzarik gabeko sega-zelai atlantikoak (Batasunaren intereseko habitata, 6510 kodea), eremuaren 0,073 ha eta lorategi-landaretzari lotutako zuhaitz-oin batzuk hartzen dituztenak. Eremu honetako lurzorua bat dator erabilera moderaturako ahalmena duen kanbison distrikoarekin. Akuiferoen kutsadurarekiko zaurgarritasuna oso handia da sektore osoan. Malda leunak ditu, inklinazioa % 3-5 artekoa eta % 3tik beherakoa baita.

A pesar de no constar firmas manuscritas, este documento tiene validez legal. En la Página Web Municipal (https://www.getxo.eus/validardocumentos) podrá obtener una copia auténtica de este documento en formato digital, mediante el Código Seguro de Verificación que aparece en el margen izquierdo.
 Agiri honek eskuz idatzitako sinadurik ez izanperik ez duen arren, legezko balioa du. Getxoko Udaltaren web-orrialdean (https://www.getxo.eus/dokumentuak/egiaztatu) agiri honen benetako kopia eskuratu ahal duzu formatu digitalean, ezkerrealdean ageri den egiaztaperen-kode segurua erabiliz.

CSV: GET/CSV/2024/21482 kjmtErBhrY

Jarduera ekonomikoak


MIMENAGA PC-M01

Azalera: 97.165,58 m²



Berangorekin bateragarritze-planaren bidez antolatzeko eremua da. Azaleraren gehiengoan garai batean pabiloiak zeuden orube bat dago. Eremuan jarduera ekonomikoa berreskuratzeko aukera planteatzen da, ondoko udalemiko (Berango) hiri-bilbeari jarraipena emango dion elementu gisa. Lurzoruak kutsatuta egon daitezke, industria-jarduerarekin lotuta.

Gobela ibaia sektorearen iparraldetik igarotzen da (eta Berangon zeharkatzen du), eta uholde-arriskua du hiru birgertatze-aldietan (10, 100 eta 500 urte) eremuaren iparraldean, erdialdean eta hegoaldean. Gainera, ibai hori Arrisku Handiko Eremua da (UAPGG ES017-BIZ-IBA-03).



Irudia 43. Mimenaga eremuko uholde arriskua (hiru errepika denboretan)
(Iturria: Datu Espazialen Egitura. Eusko Jaurlaritza)



Gainontzeko eremuan, eraikin eraitsi bat, hainbat zelai, baratze, zuhaixka, tamaina handiko zuhaitz sakabanatuak (koniferoak, sahatsak, bananondoak, etab.), Gobela ibaiaren ondoan kainaberak eta haltzadiak (91E0* batasunaren lehentasuneko habitata) daude, baita bertako espezieen heskaiak ere hegoaldean dagoen zonalde txiki batean.

Eremu osoa BI-637 errepidearen zortasun akustikoaren barruan dago. Trafikoak eragindako egungo zarata-mailak hauek dira: 60-65 dB(A) egunez eta arratsalde eta 50-55 dB(A) gauez, errepidetik hurbilen dauden guneeetan.

Fauna mehatxatuari dagokionez, EAeko ingurumen-kartografiaren arabera, Gobela Interes Berezikoko Eremua da arrain hiruarantzarentzako (kaltebera), eta bisoi europarrarentzako (desagertzeko arriskuan) hobetu beharreko tartea. Akuiferoen kutsadurarekiko zaurkortasuna oso handia da hego-ekialdean, eta handiagaintzeko azalera. Zati handi batean eraikuntzarako oso baldintza desegokiak ditu, uholde-, istiltze-, eta zama-gaitasuna eta ezargune arazoak direla eta. Bestalde, malda handienak hegoaldean eta ekialdean daude (%10-20). Azalera gehiena trantsizioko landa-paisaiatzat hartzen du Nekazaritza eta Basozaintzako LPSak (65.534 m²).

4.4.2. Lurzoru urbanizagarri sektorizatua

Izena	Kalifikazioa	Azalera (m ²)	Etxebizitza kop. (babestu eta librea)
S-R01 Tosu	Bizitegia	133.190	808 (631 eta 177)
S-R02 Muru	Bizitegia	89.740	455 (401 eta 54)
S-R03 Peña Santa Marina	Bizitegia	136.084	897 (701 eta 196)
S-R04 Dendariena	Bizitegia	135.058	571 (468 eta 103)
S-R05 Dilizgoikoa	Bizitegia	96.393	399 (319 eta 80)
GUZTIRA		590.465	3.130 (2.521 eta 610)
S-M0 1 Martiturri	Industrialia	123.757	-
GUZTIRA		714.222	3.130 (2.521 eta 610)


Taula 26. Lurzoru urbanizagarriko sektoreak

Bizitegia

TOSU S-01 Azalera: 133.190 m²

808 etxebizitza (631 babestuak eta 177 libreak)

Ekipamendu-hornidura handia nabarmentzen da, Ibarbengoako metro-geltokiarekin zuzenean lotuta. Eremuak gertu dagoen Muruko Espazio Librean Sistema Orokorren (SGEQ) zati bat du atxikita (13.945 m²), antolamendu berriaren parke nagusia. SGEQk 7.700 m²-ko azalera du, bideak 23.058 m² eta Espazio librean tokiko sistemak 14.104 m².



Tosu eremuaren antolamendu xehatua (berdea: eremu libreak; urdina: ekipamenduak eta arrosa eraikinak)

Neurri handi batean artifizializatuta dago; izan ere, familia bakarreko etxebizitza asko daude, batzuk baratzeekin; negutegiak, mintegi bat, kamioientzako aparkaleku bat eta kirol-zelaiak daude. Metro-geltokiaren inguruan, eraikuntzako materialen biltegi gisa erabilitako leku narriatuak nabarmentzen dira.



Argazkia 20. ANU SR-01 eremuan dagoen leku narriatua

Agiri Honek eskuz idatzitako sinadurik ez izenperik ez duen arren, legezko balioa du. Getxoko Udaltaren web-orrialdeitik (<https://www.getxo.eus/dokumentuak/egiaztiatu>) agiri honen benetako kopia eskuratu ahal duzu formatu digitalean, ezkerrean ageri den egiazteko kode segurua erabiliz. A pesar de no constar firmas manuscritas, este documento tiene validez legal. En la Página Web Municipal (<https://www.getxo.eus/validardocumentos>) podrá obtener una copia auténtica de este documento en formato digital, mediante el Código Seguro de Verificación que aparece en el margen izquierdo.

CSV: GET/CSV/2024/21482 kjmtErBhrY



Argazkia 21. ANU SR-01 eremuan dauden belardiak

Urbanizatu gabeko lekuan sega-belardiak dira nagusi (6510 habitata), erdialdean eta iparraldean batez ere, zuhaixka-heskaiekin eta zuhaitzekin tartekatuta, baita landaredi inbaditzailea ere (Panpako belarra eta kainaberak, besteak beste).

Akuiferoen kutsadurarekiko zaurkortasuna handia da mendebaldean, eta oso handia ekialdean. Iparralderago dagoen eremua Barrika-Galeako Paleozabalgunearean Geologia Intereseko Lekuan (GIL) dago. Malda nagusiak %5-10ekoak dira. BI-637 errepidetik gertuen dagoen zatia Zortasun Akustikoko Eremuaren barruan dago. Azterketa akustikoaren arabera, sektorearen zati batean ez dira ezarritako KAHak betetzen, metrotik, Estrada Ormaza bezalako bideetatik eta inguruansortuko diren bide berrietatik datorren zarata dela eta. Ondareari dagokionez, eremuan Tosu Baserria dago, Eusko Jaurlaritzak tokiko babeserako proposatu duena.

MURU S-02 Azalera: 89.740 m²

455 etxebizitza (401 babestuak eta 54 libreak)



Muru eremuaren antolamendu xehatua (berdea: eremu libreak; urdina: ekipamenduak eta arrosa eraikinak)

Eremuaren izaera mistoa nabarmentzen da (oinezkoentzako, bizikletentzako eta bideentzako komunikazioa, egonlekuekin konbinatuta). Muruko SGEQaren zati bat du atxikita (14.614 m²), antolamendu berriko erdiguneko parkea. Bideen eremu orokorren azalera 15.698 m²-koa da eta Espazio libreen tokiko sistemena 20.156 m².

Zenbait eraikin ditu (Karmeldarren monasterioa eta familia bakarreko etxebizitzak). Azalera handienak belardiek hartzen dituzte (6510 habitata), baina beste landaretza mota batzuk ere badaude (bertako heskaiak, hostozabalen zuhaitzak eta brategietako espezieak), baita laboreak ekialdean. Akuiferoen zaurkortasuna handia da. Aurreko eremua bezala, mendebaldea Barrika-Galeako Paleozabalgunearen GILn dago. Malda handienak hego-ekialdean daude (%10-20); gainerako eremuan, %10etik beherakoak dira.



Argazkia 22. ANU SR-02 eremuko landaredia

Peña Santa Marina S-03 Azalera: 136.084 m²

897 etxebizitza (701 babestuak eta 196 libreak)



Peña Santa Marina eremuaren antolamendu xehatua (berdea: eremu libreak; urdina: ekipamenduak eta arrosa eraikinak)

Eremu horretan, xehetasunez ordenatuta, ekipamendu-hornidura handia nabarmentzen da, eta horri esker, eremu berean irakaskuntza handitu ahal izango da, hala beharizanez gero.



Zuzkidura-bizitokietarako lurzattia ere nabarmentzekoa da. Muruko SGEQaren zati bat du atxikita (12.869m²) eta beste zati bat itsasargia (9.692 m²) (ZGEL-SR03-FARO). Bideen eremu orokorren azalera 17.249 m²-koa da eta Espazio libreen tokiko sistemena 21.852 m².

Eremua Aixerrrotako institutuarekin eta Galeako urbanizazioarekin egiten du muga, eta erdian hainbat eraikin daude. Azaleraren zatirik handiena larreak (6510 habitata) dira; laboreekin (erdialdean eta ekialdean), sasiekin (ipar-mendebaldeko mugan) eta zenbait zuhaitz orban eta zuhaixka sakabanatu. Maldak suabeak dira (<%10).




Argazkia 23. Peña Santa Marina eremuko belardiak

Landaredia, batez ere, bide bazterreko landaredia, sasiak eta sega-belardiak dira. Iparraldeko mugan, Batasunaren intereseko 6210 habitata dago (albitziak eta Mesobromion taldeko larreak). Aurreko eremuan bezala, akuiferoen kutsadurarekiko kalteberatasuna handia da, eta eremu osoa Barrika-Galeako Paleozabalgunek GILn dago.

Zarata-mailei dagokienez, azterketa akustikoaren arabera, ez dira ezarritako KAHk betetzen, batez ere sektorean aurreikusitako bide berrietako baten ondorioz, eraikinen gehieneko lerrokadura, bidetik oso hurbil baitago.

Dendariena S-04 Azalera: 134.314 m²

571 etxebizitza (468 babestuak eta 103 libreak)





Iturrianerekin eta ibai-ibilguaren inguruarekin kontakturik izango ez duen espazio bat aurreikusiko du. Antolamendu xehatua Plan Partzialaren idazketara bidaltzen da. SGELen azalera 12.791 m² da eta SGViarioak 9.115 m²-ko azalera du.

Eremuaren zati bat Berangoren mugakidea da. Bertan, besteak beste, baratzak dituzten familia bakarreko hainbat etxebizitza daude, abeltzaintzako ustategiak, labore eta fruta-arbolak eta karabanentzako aparkalekua dago.



Argazkia 24. Autokarabanan lursaila (eremuaren ekialdean), eta Kanderu erreken ondoko landaredia

Landaredia gehiena belardiak dira (6510 habitata) eta, neurri txikiagoan, sasiak (iparraldean). Zuhaitz-orban txikiak eta zuhaitz sakabanatuak ere badaude (pikondoak, haritzak, koniferoak), baita landaretza inbaditzailea (kainaberak) eta lorezaintzan ohikoak direnak ere (palmondoak, heskaiak, etab.).



Argazkia 25. Dendariena eremuan dagoen landaredia

Kanderu erreka, HAPOn tokiko korridore ekologikoaren gainjarritako baldintzatzaile gisa sartua, sektorearen ekialdeko mugaren ondotik doa. Kanderu, hobetu beharreko tartetzat hartzen da bisoi europarrarentzat (galtzeko arriskuan), EAEko ingurumen-kartografiaren arabera.

Ekialdean eta hegoaldean, akuiferoen zaurkortasuna handia eta oso handia da. Eremuaren erdia, gutxi gorabehera, Barrika-Galeako GILean dago. Maldak ertainak dira ekialdean (%10-20), baina gainerako eremuan ez dira %10ekoak gainditzen.

Eremuaren erdiari BI-637 errepidearen zortasun akustikoko eremuak eragiten dio. 2022an egindako azterketa akustikoaren arabera, ez dira betetzen sektorearen zati batean ezarritako kalitate akustikoko helburuak. Metroko lineak eta aurreikusitako bideren batek KAHak baino maila altuagoak sortzen dituzte eremuko zenbait eremutan.

Diliz Goikoa S-05 Azalera: 96.393 m²

399 etxebizitza (319 babestuak eta 80 libreak)



Lurzoru urbanizaezinarekin kontakturik gabeko espazio bat aurreikusiko du. Antolamendu xehatua Plan Partzialaren idazketara bidaltzen da. SGELak 10.654 m²-ko azalera du guztira. SGELaren azalera 9.152 m² dira.

Eremuaren zati handi batean albiztiak daude (6210 habitata), baina orkidea askorik ez dagoenez, ezin da lehentasunezko zatitza jo. Bertan, sasien eta sega-belardien azalera asko handitu da (6510 habitata).




Argazkia 26. Albiztiak Diliz Goikoan

Akuiferoen kutsadurarekiko zaurkortasuna handia da, eta azalera guztia Barrika-Galeako GILean dago. Maldak ez dira %10etik gorakoak. Paisaiari dagokionez, eta EAeko Paisaia Berezi eta Apartekoen Katalogo Irekiaren arabera, eremuaren mendebaldeko zatia Getxoko Itsas Eraginpeko Paisaiaren barruan dago.

Industrialia

Martiturri S-M01 Azalera: 123.757 m²



Esparru honen bidez, dauden enpresa-garapeneko arlo estrategikoen eskaintza osatu nahi da, sormen-industriako enpresak erakartzeko eta bultzatzeko erreferentzia-eremu bat ezarrita. Mugatutako sektorea sustapeneko eta interes publikoko jardura ekonomikoetarako lurzorua sustatzeko jarduketa bat da,

Jardura ekonomikorako planteatzen da, udalerrian bertan jarduerak egiteko. Foru sarera zuzenean konektatzea, eta bereziki Ibarbengoako metro geltokira, funtsezko faktoreak dira bertan kokatzeko. Bere berezitasunagatik, bere diseinua etorkizuneko Plan Partzial bat idaztera bideratzen da, antolamendu xehatua zehaztuko duena. SGELe 26.319 m²-ko azalera du, Bide Zerbitzu Orokorrak 9.207 m²-koa eta Espazio librearen tokiko sistemek 5.649 m²-koa.

Eremua, neurri batean, artifizializatuta dago, familia bakarreko etxebizitzekin, txabolekin, gasolindegia batekin eta aparkalekuekin (kamioiena eta karabanena). Gainerako azalera, belardiak (6510 batasunaren intereseko habitata), baratzeak, zuhaitz eta zuhaixken hainbat bertako espezieen (sahatsak, hurritzak, besteakbeste) orban sakabanatuak, landare apaingarriak (palmondoak) eta landaredi inbaditzailea (Panpako belarra, kainaberak) daude, besteak beste.



Argazkia 27. Martiturrin dagoen landaredia

Iparraldetik Kanderu erreka igarotzen da, bisoi europarrarentzat hobetu beharreko tartea dena EAeko ingurumen-kartografiaren arabera. Uholde-arriskua oso txikia da hiru errepikatze-denboretarako (10, 100 eta 500 urte). Akuiferoen kutsadurarekiko zaurkortasuna oso handia da eta maldak, oro har, %10etik beherakoak dira.

Ia eremu osoa, hego-mendebaldeko zati txiki bat izan ezik, BI-637 errepidearen zortasun akustikoko eremuaren eraginpean dago. Azterketa akustikoak adierazten duenez, hirugarren sektoreko erabilera bati aplikatu dakizkiokeen KAHak beteko dira, Ollarretxe kaletik gertu dagoen zerrenda batean izan ezik. Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen inbentarioaren arabera, hego-ekialdean gasolindegia lotutako lursail bat dago.

Kultura-ondareari dagokionez, hirigintza-fitxaren arabera, babestuta dagoen baserri bat dago sektorean, eta Plan Partzialak ezartzen duen antolamendu xehatua mantendu eta txertatu behar da.



Argazkia 28. Martiturriko auto-zinemaren lursaila





4.4.3. Getxoko HAPOren proposamenen laburpena

Hurrengo taulan, HAPOk hiri-lurzoru finkatugabeari eta lurzoru urbanizagarri sektorizatuari buruz planteatzen dituen proposamen guztiak jasotzen dira, 869.439 m²-ko guztizko azalerarekin. Azalera handiena (714.222 m²) lurzoru urbanizagarri sektorizatuei dagokie (bizitegiak eta jarduera ekonomikoak). Hiri-lurzoru finkatugabearen proposamena 242.083 m²-koa da.

Eremua	Klasifikazioa	Kalifikazio orokorra	Azalera (m ²)	Etxebizitza kop. (babeztua eta libre)
AI-R01 Martikoena	Hiri-lurzoru finkatugabea	Bizitegia	8.044	77 (35 y 42)
AI-R02 San Nicolás			5.451	47 (23 y 24)
AI-R04 Katea-P. Orduña			4.142	60 (28 y 32)
AI-R05 Algorta			1.348	14 (libre)
AI-R06 Zubilleta			61.616	357 (164 y 193)
AI-R07 La Galea			3.598	4 (libre)
AI-R08 Txiskiena			2.807	8 (libre)
AI-R09 Areneazpi			3.396	20 (libre)
AI-R10 Nervion-Iturgitxi			2.458	12 (libre)
AI-R11 Ormaza			46.142	211 (105 y 106)
AI-R12 Azkorrane			J. ekonom.	7.114
PC-M01 Mimenaga			AAEE	97.166
<i>Hiri-lurzoru finkatugabea guztira</i>	<i>242.044</i>	<i>837 (432 y 405)</i>		
S-R01 Tosu	Lurzoru urbanizagarri sektorizatua	Bizitegia	133.190	808 (631 y 177)
S-R02 Muru			89.740	455 (401 y 54)
S-R03 Peña Sta. Marina			136.084	897 (701 y 196)
S-R04 Dendariena			135.058	571 (468 y 103)
S-R05 Dilizgoikoa			96.393	399 (319 y 80)
S-M01 Martiturri		J. ekonom.	123.757	-
<i>Lurzoru urbanizagarri sektorizatua guztira</i>	<i>714.222</i>	<i>3.130 (2.521 y 610)</i>		
GUZTIRA	956.266	3.967 (2.953 y 1.015)		

Taula 27. Getxoko HAPOren hiri-lurzoru finkatugabea eta urbanizagarriko proposamenen laburpena



4.5. Lurzoru Urbanizaezinerako proposamenak

Hauek dira HAPOn proposatutako lurzoru urbanizaezineraren **antolamendu-kategoriak** (ikus IV. eranskina):

- Babes Berezia
 - o Lehentasunezko Batasunaren intereseko habitatak
 - o Babes Berezia: bertako basoak edo antzeko espezieak dituztenak
 - o Hiri Hondartzak
- Basoa
 - o Basoa
- Gainazaleko uren babesa
 - o Gainazaleko uren babesa
 - o Hezeguneen babes eremuak
- Nekazaritza, Abeltzaintza eta Landazabala
 - o Nekazaritza, Abeltzaintza eta Landazabala: Balio Estrategiko Handia
 - o Nekazaritza, Abeltzaintza eta Landazabala: Trantsizioako landa-paisaia
- Ingurumen Hobekuntza
 - o Ingurumen hobekuntza

Bestalde, honako **baldintzatzaile gainjarri** hauek hartzen dira kontuan:

Arrisku naturalei eta klima aldaketari buruzkoak:

- Akuiferoen zaurkortasuna (oso altua, altua eta ertaina)
- Arrisku geologikoak: muturrekoak eta oso larriak diren higadura-prozesuak
- Uholde arriskua
 - o Uholde arriskua (10, 100, 500)
 - o Lehentasunezko fluxu gunea
 - o UAHE (ES017-BIZ-IBA-03-Getxo)
- Aldaketa klimatikoari lotutako arriskuak
 - o Sute arrisku altua eta ertaina
 - o Intereseko habitatak
 - o Itsas mailaren igoeragatik urpean gera daitezkeen eremuak
 - o Hiri-inguruneke ibai-uholdeak
 - o Hiri-ingurunean itsasoa igotzearen ondoriozko uholdea
 - o Bero-boladek osasinean izan dezaketen eragina

Azpiegitura berdea:

- Bere ingurune-balioengatik babestutako eremuak
 - o Natura intereseko gune katalogatua: 08-Punta Galea Barrika



- o Hondartzak
 - o Hezeguneak: Bolue ibarreko istilak eta Gorrondatxeko putzua
- Batasunaren intereseko habitatak
 - o Itsasoko hondakin metatuen gaineko urteroko Landaredia
 - o Atlantikoko eta Baltikoko kostaldeetako landaredia duten labarrak
 - o Enbrioi-duna mugikorak
 - o Txilardi lehor europarrak
 - o Altitude txikiko sega-belardi pobreak
 - o Belardi lehor erdinaturalak eta sastrakadi-fazieak kare-substratuen gainean
- Kudeaketa plana duten espezie mehatxatuak (bisoi europarra eta arrain hiruarantza)
- Korridore ekologikoak (ingurumen Foroak proposatua)
- Paisaia intereseko elementuak
 - o Pasaia zedarriak: Aixerrota errota
 - o Paisaia berezien eta bikainen katalogoa

Beste baldintzatzaile batzuk :

- Geologia Intereseko Lekuak
 - o Gorrondaxeko eozenoa
 - o Galea-Barrikako paleorasa
 - o Tunelboca eta Gorrondatxeko hondartza zementatuak
 - o Numulites Punta-Galea-Tunelbocan
 - o Punta Galeako tolestura sinklinala
 - o Interes geologikoko ibilbideak
- Ibai eta errekek
 - o Osagai hidraulikoa
 - o Hirigintza osagaia (hiri-garapeneko marjina, hiri-garapenen potentziala duena, eta landa-eremukoa)
- Ondare arkeologikoa
 - o Interes arkeologikoko guneak (A, B, E klabeak)
 - o LPSrako proposatutako arkeologia-intereseko eremuak
 - o Proposatu ez diren beste arkeologia elementu batzuk
- Intereseko ibilbideak (oinezkoentzako (GR-123) eta bizikletentzako ibilbideak)
- Kutsatuta egon daitezkeen lurzorua
- Eragin akustikoa duten eremuak (ZAE-Zerbitzu akustikoko eremuak)
- Eragin aeronautikoko eremua
 - o Aireontzien eragiketen zortasuna
 - o Aerodromoaren eta irrati-elektrikoen zortasunen inguratzailea



Honez gain, lurzoru urbanizaezinean, zuzkidura publikoen jarduketa hauekaumeikusten dira:

- AEDP-SNU-A y B, Larrañazubi, 12. Azalera: 1.392 eta 4.142 m²
- AEDP-SNU-C, Ampliación Fadura (La Palmera). Azalera: 44.565,89 m²
- AEDP-SNU-D Munarrikolanda Berango kalea irekitzea. Azalera: 206,43 m²

Orokorrean, Nekazaritza eta Basozaintzaren LPSk ezarritako kategoriaketa mugak jaso dira, baina errealitate fisikoari, lursailei eta eskalari egokituta. Gainera, udalaz gaindiko gainerako plangintzarekin eta udalerrari eragiten dioten sektoreko araudiarekin konbinatu dira.

4.5.1. Zuzkidura publikoak gauzatzeko jarduketak

AEDP-SNU-A y B, Larrañazubi, 12 Azalera: 1.392 eta 4.142 m²

Jarduera hauen bidez, Getxoko Hondakinak Transferitzeko Zentrorako eta ingurumengelarako aparkaleku bat garatu nahi da.

AEDP-SNU-C, Fadura handitzea (La Palmera) Azalera: 39.538 m²

Fadurako kirol-gunea etorkizunean handitu ahal izateko, lurzoru erreserba bat mugatu da.

Erabilera eta kalifikazioa: kirol- eta bide-sistema orokorra. 36.250 m²-ko eraikigarritasuna ezarri da.

AEDP-SNU-D, MUNARRIKOLANDA BERANGO (KALEAREN IREKIERA) Azalera: 206 m²

Bi udalen (Getxo eta Berango) arteko hitzarmen bat ezartzearen baldintzapean, zuzkidura publikoak egikartzeko jarduketa bat mugatzen da lurzoru urbanizaezin baten gainean, Uribe Kostako korridorera Berangoko garapen berriak ateratzea erraztuko duena.



5. PLAN OROKORRAREN ZEHAZTAPENETATIK ERATORRITAKO INPAKTUEN IDENTIFIKAZIOA ETA BALORAZIOA

Ingurumen Azterketa Estrategikoak jarraitutako prozesu metodologikoan, leheniketa behin, Getxoko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko zehaztapanetatik eratorritako balizko ingurumen inpaktuak identifikatzen dira.

Ondoren, ingurumen ebaluaketaren, abenduaren 9ko 10/2021 Legean definitutako ezaugarri eta kontzeptu teknikoen arabera aipatutako inpaktuen karakterizazioa egiten da. Eta azkenik, hautemandako inpaktuen balorazioa egiten da aipatutako Legeak ezarritako terminologia erabilita (5.2 atala ikusi).

5.1. Inpaktuen identifikazioa

Ingurumen inpaktuak sor ditzaketen zehaztapanak antzeman ondoren, eraldaketa jaso dezaketen ingurumen elementuen identifikazioa egiten da. Informazio hau oinarritzat hartuta inpaktuen identifikaziorako matriz kromatiko bat egiten da (1. matriza) ondoren, inpaktu esanguratsuen karakterizazioa eta azken balorazioa egiteko (2. matriza).

Balizko inpaktuak eragin ditzaketen ekintzen identifikazioa

HAPOn proposatutako zehaztapanak gauzatzean, inpaktu handiagoak edo txikiagoak eragiten dituzten hainbat ekintza gauzatu behar dira. Inpaktu horiek eraikitze-fasean eta/edo erabilera-fasean eman daitezke.

Eraikitze fasea	Erabilera/funtzionamendu fasea:
<ul style="list-style-type: none"> - Mozketa eta soiltzeak (I-01) - Indusketak eta lur mugimenduak (I-02) - Makinariaren zirkulazioa (I-03) - Hondakinen sorrera (I-04) - Lehengaien kontsumoa (I-05) - Pisuzko garraioaren igoera (I-06) - Bideen mozketak (I-07) - Bide zirkulazioaren eta garraioaren aldaketa (I-08) - Aldi baterako okupazioak (I-09) - Eraikinak, bideak eta bestelako obrak (I-10) - Ereintzak eta landaketak (I-11) 	<ul style="list-style-type: none"> - Eremu iragazgaitzen berrien presentzia (I-12) - Argiteri publikoa handitzea (I-13) - Eraikin eta bide berriak (I-14) - Paisaiaren aldaketa (I-15) - Aldaketa geomorfologikoak (I-16) - Lurzoru erabileraren aldaketa (I-17)

**parentesi artean kode bat eman zaio*



Eraginda gerta daitezkeen ingurumen elementuen identifikazioa

Jarraian, Getxoko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean aurreikusitako zehaztapenek eragin ditzaketen ingurumen alderdien zerrenda jasotzen da, alderdi hauen ezaugarriak, nolakotasunak eta hauekin lotutako prozesuak zehaztuz. Hau da, eraginda gerta daitezkeen ingurumen elementu guztien identifikazioa egiten da.

Ingurumen eta giza-alderdiak	Elementu edo ingurumen ezaugarriak (Kodea)
Lurzorua	- Lurzoru galera (higadura eta trinkotzea) (EA-01)
Gainazaleko eta lurrazpiko urak	- Ur-ibilguetan eragina (eta ibaiertzeko landaredia) (EA-02) - Iragazgaitze eta betetzeko gaitasunaren murrizketa (EA-03) - Akuiferoak kutsatzeko zaurkortasuna (EA-04)
Airea	- Kutsadura atmosferikoa (EA-05) - Zarata maila (EA-06)
Paisaia	- Paisaiaren kalitatea (EA-07) - Hauskortasun bisuala (EA-08)
Landaredia	- Intereseko zuhaitz- eta zuhaixka-landaredia murriztea eta Batasunaren intereseko habitatei eragitea (EA-09) - Belardiak, larreak eta laboreak (EA-10)
Fauna	- Habitaten desagertzea eta/edo hauei eragitea (EA-11)
Prozesu eta arriskuak	- Uholde arriskua (EA-12)
Giza-ingurunea eta sozio-ekonomia	- Etxebizitzaren eskaintza (EA-13) - Lana (EA-14) - Nekazaritza produktibitatearen galera (EA-15) - Mugikortasuna/Irisgarritasuna (EA-16) - Bizi kalitatea/ Bizigarritasuna (EA-17)
Hondakinak eta lehengaiak	- Hondakinen sorrera (EA-18) - Lehengaien kontsumoa (ura, energia...) (EA-19)
Aldaketa klimatikoa	- Berotegi-efektuko gasen emisioa handitzea energia-kontsumo handiagoagatik (EA-20)

"Inpaktuen identifikazioa eta aurre-balorazio" matrizean (1. Matriza) aurreikusitako zehaztapenak eta ingurumen alderdiak lotzen dira. Horrela, balizko aldaketak identifikatu eta era berean inpaktuen negatibo zein positiboen mailaren lehen balorazio bat egin daiteke. Aurre-balorazio honek Getxoko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra hasiera batean behintzat ingurumen ezaugarrietara nola egokituden antzemandateke. Inpaktuak daukaten garrantzi mailaren arabera sailkatzen dira:

- Esangura gutxikoa
- Oso esanguratsua
- Esanguratsua
- Positiboa

1. matrizearen emaitzaren arabera, 3 eragin oso esanguratsu eta 62 esanguratsu identifikatu dira, batez ere, hauek: iragazgaitzea eta betetzeko gaitasuna gutxitzea, lurzorua galtzea eta horren ondoriozko nekazaritza-produktibitatea, Batasunaren intereseko landaretza eta habitatei eragitea, paisaia, fauna babestua, geologia intereseko lekuak (GIL), kalitate akustikoko helburuak, baliabideen kontsumoa eta hondakinen sorrera. Gainerako ingurumen-faktoreen gaineko gainerako eraginak esangura gutxikoak eta/edo positiboak.



5.2. Inpaktuen karakterizazioa eta balorazioa

in identifikazio Matriza egin eta inpaktuak aurre-baloratutakoan, hurrengo urratsa dagokien matrizean (2. matriza) inpaktuen karakterizazioa egitea da. Matriz honetan "esanguratsu" edo "oso esanguratsu" gisa kalifikatu diren inpaktu negatiboen ebaluaketa egiten da, "esangura gutxikotzat" hartu diren inpaktuak bateragarriak direla onartzen baita.

Inpaktuen karakterizazio eta balorazioa egiterakoan plan, programa edota proiektuen eragin esanguratsuak ebaluatzeko 10/2021 Legeko VI. Eranskinean deskribatzen diren ondorengo kontzeptu teknikoak hartu dira kontuan. Prozesua amaitzeko, antzemandako inpaktuak balioesten dira eta aipatutako Legearen terminologiaren arabera sailkatzen dira.

Karakterizazio irizpideak:

- *Ondorio zuzena: Ingurumen-alderdiren batean berehalako eragina duena.*
- *Zeharkako ondorioa: Interdependentzia, edo, oro har, ingurumen-sektore batek beste batekin duen erlazioan, berehalako eragina duena.*
- *Metatze-ondorioa: Eragilearen ekintza denboran luzatzearen ondorioz, larritasuna pixkanaka areagotzen duena, deuseztatzeko mekanismoek ez baitute kaltea eragiten duen eragilearen hazkundearen pareko eraginkortasunik.*
- *Ondorio sinergikoa: Hainbat eragileren ekintzek batera gertakari banakakoek baino ingurumen-eragin handiagoa dakartenean sortzen dena. Halaber, efektu baten ekintza-modua dela-eta, denborarekin beste ondorio batzuk agertzea eragiten badu, mota honen barruan sartzen da.*
- *Aldi baterako ondorioa: Denboran irauten ez duen alterazioa, zehaztu edo aurreikus daitekeen denbora-tartean gertatzen dena.*
- *Etengabeko efektua: tokian dauden ekologia- edo ingurumen-harremanen sistemen egituraren edo funtzioaren nagusi diren ekintza-faktoreen denbora-aldaketa mugagabea dakarrena.*
- *Epe labur, ertain eta luzeko eragina: eragina, hurrenez hurren, urteko ziklo baten barruan ager daiteke, bost urte baino lehen, edo epe luzeagoan.*

Inpaktu mailaren klasifikazioa:

- *INGURUMEN INPAKTU BATERAGARRIA: Jarduera amaitutakoan berehalakoan berreskuratzen den inpaktua, inolako badaezpadako neurri edota neurri zuzentzailerik behar ez duena.*
- *INGURUMEN INPAKTU MODERATUA: Berreskurtzeko badaezpadako neurri edota neurri zuzentzaile gogorrik behar ez duen inpaktua, eta aurretiazko ingurumen egoerara bueltatzeko denbora nahiko behar duena.*
- *INGURUMEN INPAKTU LARRIA: ingurumen egoeraren berreskurapenerako neurri zuzentzaile eta badaezpadako neurriak ezarrita ere denbora tarte luzea behar duena.*
- *INGURUMEN INPAKTU KRITIKOA: Onargarria ez den inpaktu maila da. Ingurumen kalitatearen behin betiko galera ematen da, berreskuratu ezina badaezpadako neurri edota neurri zuzentzaileak hartuta ere.*



5.2.1. Lurrazpiko eta lurrazaleko urengan eragina

Hiri-lurzoru finkatugabeen HAPOn jasotako proposamenetako batzuk ibai-ibilguen ondoan daude, zati batean (PC-M01 Mimenaga, Zubilleta AI-R06), baita Dendariena ANU S-R04 eta Martiturri ANU S-M01 eremuetako lurzoru urbanizagarrietan ere. Hala ere, hauen gaineko eragina Esangura gutxikoa eta Bateragarria da, kontuan hartuta kontaktu-luzera txikia dela eta urbanizazioaren eta eraikuntzaren garapena ibaietatik behar bezala bereizi behar dela. Horrela, ibaiertzeko landaredia errespetatuko da, tarte batzuetan interes handikoa dena, Kanderu errekarari lotutakoa bereziki.

Testuinguru honetan, nabarmendu behar da ibaien mugakide diren eremuetarako aurreikusitako antolamendu xehatuak, oro har, eremu libreak ibaien inguruan kokatzea aurreikusten duela. Nolanahi ere, eremuen garapena erreka hauen presentziak baldintzatuko du, lurrazaleko urak babesteko araudia betez eta arlo horretan indarrean dagoen legeriak ezarritako gutxieneko atzerapenak errespetatuz.

Azpimarratzekoa da, Zubilletan (AI-R06) uholde-arriskua desagerrarazteko, ibaiari atxikitako eraikinak eraistea planteatzen dela, eta, honen ordez, espazio libre bat eta gainazaleko zuzkidura bat sortu, ibai-ekosistema berreskuratzen lagunduko duena. Halaber, Gobela ibaiaren edukiera hidraulikoa handitu nahi da, Zubilleta kaleko eta Salsidu kaleko zubien gainean esku hartuz, uholde-arriskua murrizteko.

Aldiz, Esanguratsutzat jo da lurzoru iragazgaizteko azalera handiaren ondoriozko afekzioa eta, ondorioz, birkargatzeko ahalmen urriagoa, batez ere hedadura handieneko eremuetan (AI-R06, AI-R11, S-R01, S-R03, S-R04, S-R05 eta S-M01), eta Moderatutzat hartu da neurri zuzentzaileak ezarri daitezkeelako (drainatze-ahalmena murrizten duten lurpeko zoladurak, etab.).

Lurrazpiko urei dagokienez, adierazi behar da kontuan hartuta ko eremuak bat datozela akuiferoen kutsadurarekiko zaurkortasun handia edo oso handia duten eremuekin. Beraz, eremu horien gaineko eragina Esanguratsua eta Moderatua da industriako lurzoru urbanizagarriaren proposamenerako (S-M01), eta Esangura gutxikoa eta Bateragarria hiri-lurzoru finkatugabeko eta urbanizagarriko bizitegi-proposamen guztietarako, etxebizitzak kutsatzeko aukera txikiagoa dutelako.

Kontuan hartu beharreko alderdi bat, aurreikusitako garapenek dakartzaten hondakin-uren hazkundera da, hiri- eta industria-hazkundera hondakin-uren sorrerarekin zuzenean lotuta baitago. Hauek udalerriko hondakin-uren sarera isuriko dira, garapen berriak hartzeko proposamenetako batek ere ez baitu saneamendu-sarean sartzeko zailtasunik.



Kontuan hartu beharreko alderdi bat aurreikusitako garapenek dakartzaten hondakin-uren hazkundera da, hiri- eta industria-hazkundera hondakin-uren sorrerarekin zuzenean lotuta baitago. Horiek udalerriko hondakin-uren sarera isuriko dira, garapen berriak hartzeko proposamenetako batek ere ez baitu saneamendu-sarean sartzeko zailtasunik.

Azkenik, Lurzoru Urbanizaezineko "Lurrazaleko Uren Babesa" kategoriaren eta Tokiko Korridore Ekologikoaren Azpiegitura Berdearen Baldintzatzaile Gainjarriaren definizioak ondorio Positiboak izango ditu ingurune hidrikoan, udalerriko ibaiak modu eraginkorragoan babestea ahalbidetuko baitu.

5.2.2. Lurzoru galera

Lurzoruaren okupazioak konpon ezineko galera dakar, birsortzeko gaitasun txikia duelako, eta, ondorioz, orain arte garatu diren erabileretarako etorkizunean desgaitzea dakar.

Hiri-lurzoru finkatugabearen egindako proposamenak, oro har, Esangura gutxikoak eta Bateragarriak dira, azalera txikia dutelako edo erasana lehenago gertatu delako (artifizializatutako lurzoruak), Zubilleta (AI-R06) eta Ormaza (AI-R11) izan ezik, artifizializatu gabeko lurzoru kaltetuaren azalera handiagoa dutelako. Eremu hauetarako erasana Esanguratsua da, Moderatua AI-R06 eremurako, nekazaritza-balio handiagoko eta erabilera-ahalmen handiko (flubisol eutrikoa) lurzoruak galtzea dakarrelako eta Bateragarria AI-R11 eremurako lurzoruek nekazaritza-baliorik ez dutelako.

Lurzoru urbanizagarri sektoretarako (bizitegitarako eta industriakoa) landa-lurzoruaren okupazio berrirako proposamenei dagokienez, hurrengo proposamenek lurzoruaren galeran duten eragina Esanguratsua da: Diliz Goikoa S-R05 eta Martiturri S-M01, azken hau azalera handi oso artifizializatuak ditu (gasolindegia, autobusen eta karabanen aparkalekua, autozinea, etab.). Inpaktua Moderatutzat jo da Diliz Goikoa S-R05 eremurako, lurzoruek neurritzko erabilera-ahalmena dutelako (kanbisol distrikoa) eta Bateragarria industria-eremurako, lurzoruaren zati handi bat antropizatuta dagoelako.

Bizitegi-eremu urbanizagarrietarako (S-R01, S-R03 eta S-R04), erasana Oso esanguratsua da, eta Larritzat hartu da, neurri handi batean nekazaritza- eta abeltzaintza-erabilerarako (sega- eta hortz-larreak, laboreak eta baratzeak) lurzoru-azalera handiagoa galtzeagatik, nahiz eta nekazaritza-erabilerarako gaitasuna ere txikia izan.



Muru S-R02 eremuan, erasana Esangura gutxikoa da, eta Bateragarritzat jo da; izan ere, azaleraren zati handi bat eremu libreetarako da (41.208 m²), eta, beraz, lurzoruaren galera aurreko parrafoetan aipatutako eremuetan baino txikiagoa izango da.

Proposatutako eremu urbanizagarri bakoitzeko lurzoruaren galerari buruzko balorazioa alde batera utzita, nabarmendu behar da Plan Orokor berriak, erabilera naturalerako lurzoru-azalera garrantzitsu bat lurzoru urbanizaezin gisa berreskuratu duela, indarrean dagoen Plan Orokorrean lurzoru urbanizagarrietara bideratutako azalera idagokionez. Beraz, eta oro har, esan daiteke zehaztapen berriek nabarmen murrizten dutela lurzoruaren galera, modu positiboan baloratzen dena.

Era berean, nabarmendu behar da, proposamenak gauzatzeko irizpide objektiboen arabera, Dendariena S-R04 eta Diliz Goikoa S-R05 sektoreen garapena baldintzatzen dela, Tosu S-R01, Muru S-R02 eta Peña Santa Marina S-R03 sektoreak egikaritzen ez diren bitartean. Beraz, une horretara arte, lurzoruek gaur egun dituzten ezaugarri naturalak mantenduko dituzte, baita haien erabilera ere.

5.2.3. Airearen kalitatearengan eragina

Obra garaian eta sektore guztietan esekitako partikulen eta beste kutsatzaile batzuen maila handitu egingo da, baina hasiera batean behintzat, ez litzateke kezkatzekoa izan beharko prebentzio neurri egokiak hartuz gero (ureztatzeak, kamioietako kargaren estaltzea, egoera onean dagoen makinariaren erabilera, etab.). Beraz, inpaktua Esangura gutzikotzat eta Bateragarri gisa baloratzen da.

Erabilera garaian eta industriarako proposatutako eremuaren kasuan (S-M01), kamioien eta beste ibilgailu batzuen trafikoa handituko da eta, ondorioz, emisioak ere. Eragin-maila ezarriko diren jardueren arabera izango da, beraz, inpaktua hasiera batean Esangura gutzikotzat eta Bateragarri baloratuko da; izan ere, kokatzen diren jarduerak inguruko airearen kalitate ona bermatzeko beharrezkoak diren neumizuzentzaile guztiak bete beharko dituzte. Bestalde, eremua biztanle gehien dituzten bizitegi-eremuetatik urrun dago.

5.2.4. Zarata mailaren igoera

Obra garaian, proposatutako sektore guztien zarata maila handitzea Esangura gutxikoa da, eta Bateragarritzat jo da, aldi baterako delako; izan ere, obrak amaitutakoan, inpaktua eten egingo da.



Erabilera garaian, industriarako proposatutako lurzoru urbanizagarri sektorizatu berriarekin (Martiturri S-M01), eta bertan kokatuko diren jardueren arabera, zarata-mailak handitu daitezkeela uste da, Esanguratsutzat hartzen dena, nahiz eta Bateragarritzat jo den, 2024ko uztailan egindako zaratari buruzko azterlanaren arabera, kalitate akustikoko helburuak beteko liratekeelako, Ollarretxe kaletik gertu dagoen zati batean izan ezik.

Zubilleta AI-R06 eremua, finkatu gabeko hiri-lurzoruan bizitegirako proposatu dena, gaur egun BI-637 errepidearen zortasun akustikoaren eremuan dago (ikus 19. irudia). Kasu honetan, eragina Esanguratsua da, eta Moderatutzat jo da; izan ere, zaratari buruzko azterlanaren arabera, eremu honetan ez dira kalitate akustikoko helburuak betetzen, batez ere BI-634 errepideko trafikoagatik.

Gainerako egoitza-Jarduera Integratuetan (Trinitarios AI-R03, Katea-P. Orduña AI-R04, Nervion-Iturgitxi AI-R10 eta Ormaza AI-R11), hiri-lurzoru finkatugabearen proposatutakoak eta inpaktuak ebaluatzeko prozesuan sartutakoak, kalitate akustikoko helburuak gainditzen dira osorik edo, zati batean; batez ere, errepide-trafikoagatik eta metroagatik. Hori dela eta, eragina Esanguratsutzat jotzen bada ere, Bateragarria da, aipatutako zarata azterlanak neurri zuzentzaileak proposatzen dituelako aipatutako eremu guztietarako.

Lurzoru urbanizagarrian proposatutako Tosu S-R01, Dendariena S-R04 (biak bizitegi-erabilerarako) eta Martiturri S-M01 (industria-erabilerarako) eremuak dagokienez, BI-637 errepidearen Zortasun Akustikoko Eremuaren barruan daude. Azterketa akustikoaren arabera, Tosu S-R01 eta Dendariena S-R04 sektoreen zati batean, ez dira kalitate akustikoko helburuak betetzen, metroaren zaratagatik, inguruetan sortuko diren bideengatik eta Tosuren kasuan, dauden bideengatik, Estrada Ormaza esaterako. Ondorioz, afekzioa Esanguratsutzat baina Bateragarritzat jo da, eragindako azalera txikia delako. Era berean, aipatu behar da Tosu eta Dendariena sektoreetan, metroaren linearen ondoan, zuzkidura-erabilerak (kirolekoak eta hezkuntzakoak) eta ekipamendu-erabilerak azpiegitura honen ondoan jarri direla, azkenean proposatzen den motaren arabera zarataren eragin-maila handiagoa jasan dezaketena.

Peña Santa Marinari dagokionez (S-R03, bizitegi erabilera), lurzoru urbanizagarrian proposatutako eremua dena, ez dira kalitate akustikoko helburuak betetzen sektorean aurreikusitako bide berrietako baten ondorioz, eraikinen gehieneko lerrokadura bidetik oso hurbil baitago. Hala ere, eragina Esanguratsuz gisa identifikatzen bada ere, Bateragarritzat jo da; izan ere, azterketa akustikoaren arabera, eraikinen gehieneko lerrokadurak aldatuz eta egoteko espazioak mugatuz, kalitate akustikoko helburuak beteko lirateke eraikinaren fatxadaren kanpoaldean.



EAEko hots-kutsadurari buruzko 213/2012 Dekretuaren I. eranskinean definitutako kalitate akustikoko helburuak betetzen direla egiaztatzeko, dagozkion azterlan akustikoak egin beharko dira.

Bestalde, foru-errepideetako Zortasun Akustikoko Eremuaren barruan dauden eremuetan, aplikatzekoa da EAEko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 30. artikulua, zeinak ezartzen baitu beharrezkoa dela inpaktu akustikoari buruzko azterlan bat idaztea. Azterlan hori Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomiaren eta Lurralde Garapeneko Sailari igorriko zaio, hark nahitaezko txostena egin dezan.

Nolanahi ere, hirigintza-plangintza berriaren zehaztapenek Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duen urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuak zonakatzeko akustikoari, kalitate-helburuei eta emisio akustikoei dagokienez eta EAEko zaratari buruzko 213/2012 Dekretuak ezarritako soinu-mugak betetzen direla ziurtatu beharko dute.

5.2.5. Intereseko landarediaren eta batasunaren intereseko habitataren eragina

Lurzoru urbanizagarri sektorizatu gisa proposatutako eremuetako landaredia (S-R01, S-R03, S-R04 eta S-R05), neurri handi batean, batasunaren intereseko habitat gisa hartzen diren sega-belardiei dagokie (6510 kodea). S-R05 eremuan, gainera, albiziak daude (6210 habitata), baina kasu honetan ez da lehentasunezko hartu (ikus 3.7.3 atala). Habitat hauen galera eta belardiek, baratzeek eta laboreek eragindako azalera handia inpaktu Esanguratsua da, baina Bateragarritzat hartu da, 6510 habitataren presentzia handia dela bai udalerrian, bai Bizkaia osoan kontuan hartuta, eta 6210 habitata ez dela lehentasunezko batasunaren intereseko habitat gisa hartzen.

Mimenaga PC-M01 eta Dendariena S-R04 eremuetan, Gobela ibaiari eta Kanderu errekarri lotutako intereseko zuhaitz- eta zuhaixka-landaredia dago, hurrenez hurren, mantentzea eta eremuaren diseinuan integratzea komeni dena. Testuinguru honetan, nabarmendu behar da ibaien mugakide diren eremuetarako aurreikusitako antolamendu xehatuak, oro har, eremu libreak ibaien inguruan kokatzea aurreikusten duela.



5.2.6. Nekazal produktibitatearengan eragina/Belardiak, larreak eta laborantzak

Hiri-lurzoru finkatugabeko eremuak (Zubilleta AI-R06) eta lurzoru urbanizagarriek (Tosu eta Dendariena, batez ere) lurzoru horietan garatzen den nekazaritza -jarduerari eragiten diote (baratzeak, belardiak eta laboreak), batez ere neurrizko erabilera duten nekazaritza-lurzoruetan (kanbisol distrikoa).

Okupatzen duten azalera eta partzela batzuek duten antropizazio-maila kontuan hartuta (etxebizitzak, txabolak, landaredi erruderala, etab.), nekazaritzako produktibitatean duten eragina, nahiz eta Esanguratsu gisa identifikatzen den, Bateragarritzat hatuda, betiere lur emankorra bereizteko eta berrerabiltzeko neurri egokiak hartzen badira. Testuinguru honetan, egungo antolamendu-proposamenarekin, nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategi gehienak eta baratzeak lurzoru urbanizaezinaren barruan geratzen dira (ikusi irudia 3.13 atalean).

5.2.7. Nekazaritza arloko afekzioa

Nekazaritza Arloko Erasanaren Ebaluazio Protokoloak (NAAEP) hurrengo aldagaiak kontuan hartu eta neurri babesle eta konpentsatzaile egokiak proposatu beharko ditu. Honi dagokionez, kasu gehienetan ez dago informazio egokirik gauzatu ahal izateko:

- Lurzoruaren antolamendu-kategoriaren araberako erasana, Balio estrategiko handiko azalera eta Onura publikoko mendiak eta mendi babesleak berariaz aintzat hartuta.
- Eraginpeko ustiategien bideragarritasun ekonomikoaren gaineko erasana.
- Ustiategiei lotutako eraikin eta azpiegituren gaineko erasana.

Testuinguru honetan, nabarmendu behar da HAPOren berrikuspenak etorkizuneko hiri-erabileretarako planteatzen dituen lurzoruaren okupazio-proposamen berriek nabarmen murriztu dutela lurzoruaren azalera indarrean dagoen plangintzarekin alderatuta, eta aukera eman dutela egungo lurzoruaren zati handi bat egoera naturalean mantentzeko, nekazaritza-erabileretarako erabiltzen jarrai baitaiteke, biodibertsitatea eta landa-paisaiaren babesa bultzatuz.



a) Lurzoruaren antolamendu-kategoriaren arabeko eragina

Nekazaritzako Lurzatien Informazio Geografikoko Sistema (SIGPAC) osatzen duten lurzatien azterketa egin da, baldin eta lurzoru urbanizagarriaren proposamenekin bat datozen nekazaritza-balio handiko lurzoruen proposamenen eragina jasanbadezakete. Oro har, partzelen zatiketa eta/edo okupazioa oso txikia da. Bestalde, nekazaritza-balio handieneko lurzoruetan dauden lursailei dagokienez (lur arabiarrek, zuhaixka-larreak, baratzeak, larreak, fruta-arbolak, mahastia eta negutegia eta plastikopeko laboreak), eragina ez da oso adierazgarria, erantsitako SIGPACeko tauletan ikus daitekeen bezala.

SIGPACek jasotzen dituen erabilerak honako hauek dira: korronteak eta ur-azalera (AG); ez-produktiboak (IM); larreak (PA); larreak (PS); lur arabiarrek (TA); zuhaixka-larreak (PR); bideak (CA); baratzeak (TH); eraikinak (GH); forestal-FO; fruta-arbolak (FY); mahastia (VI); berotegiak eta plastikopeko laborantzak (IV); hiri-zona-ZU. Hurrengo tauletan, nekazaritza-erabilerak dituzten lurzatiak itzaltzen dira.

IZENA	Partzel a SIGPAC	Az. partzela totala (m ²)	Eragindako azalera (m ²)	% afekzioa	Erabilera
S-R01 TOSU	90001	1006,17	1006,17	100	IV
	90001	7042647,3	114167,1	1,62	ZU
	90001	101,56	101,56	100	IV
	90001	64832,75	31087,66	47,95	PS
	90001	1313,65	1284,82	97,80	TA
	90001	1094,30	1094,30	100	TH
SM-01 MARTITURRI	90006	47788,13	6777,3	14,18	CA
	90009	199650,4	41,44	0,020	CA
	90001	7042647,3	124033,87	1,76	ZU
S-R03 PEÑA SANTAMARINA	90001	7042647,3	136085,26	1,93	ZU
	90001	27466,88	17549,98	63,89	PS
S-R04 DENDARIENA	90001	1313,65	10,71	0,81	TA
	90007	159354,63	17,50	0,01	ZU
	90001	7042647,30	117485,21	1,66	ZU
S-R05 DILIZGOIKOA	90001	7042647,30	96385,35	1,36	ZU
TOTALA		35717158,6	647128,23	1,81	

Taula 28. Nekazaritzako lurzoru motak, SIGPACen arabera.

HAPOk 2001. urterako aurreikusitako lurzoru urbanizagarriaren desklasifikazioa beharrezkoa da ingurune naturala zaintzeko edo, gutxienez, ahalik eta antropizazio gutxien gertatzeko, Aizkorriko paisaia naturala eta bisuala zaintzea ahalbidetuko duen birika berde handia izan ahal izateko. Beraz, ingurumenaren ikuspegitik, desklasifikazioak aukera ematen du Aizkorriko elementu naturalen balioa nabarmentzeko, hazkundearen "muga" elementu naturalen bidez zehazteko eta korridore berdeak eta landatarrak artikulatzeko, ahal den neurrian, espezie naturalak gune eta ekosistemen artean aske ibil daitezten.



Era berean, eta hiria klima-aldaketara egokitzeko helburuarekin lerrotuta, desklasifikazioa ahalbidetzen duen berdegune handi baten kokapenak, birika berde handi berriak, hiri-garapenaren eta lehendik dagoen lurzoruen antropizazioaren ondoriozko bero-uhartearen efektua arintzen lagunduko du, eta, beraz, guztion eta datozen belaunaldien onurarako ekintza estrategiko gisa definitzen da.

Hirigintza jasangarriaren printzipioak proposatutako lurralde-eredu berriari aplikatzearen ondorioz, lurzoru urbanizagarriko azalera handi bat desklasifikatzen da, eta lurzoru urbanizaezin gisa sailkatzen da. Desklasifikazio horren arrazoiak honako hauek dira: lurzoruen gutxieneko kontsumoko eredu trinko baten aldeko hautua egitea, Planaren lehen partaidetza-faseetatik hasita, eta egungo HAPOk lurzoru urbanizagarria garatzeko plangintzarik eza eta landa-lurzoruko lurzoruen errealitatea (Andra Mariko hiri-lurzoruko zenbait eremutan izan ezik) eta haren kudeaketa falta.

5.2.8. Faunarengan eragina

Proposatutako eremuek nitxo ekologiko desberdinak okupatzeak, batez ere, omogabeei eragingo die, eta neurri txikiagoan ugaztun eta narrasti txikiei. Ugaztun handiek eta hegaztiak mugikortasun handiagoa dute. Horregatik, faunaren gaineko inpaktua, oro har, Esangura gutxikoa eta Bateragarria izango da.

Edonola ere, Kanderu eta Gobela ibaien ondoan proposatutako eremuak ipatu beharra dago (S-M01 Martiturri, S-R04 Dendariena, AI-R06 Zubilleta eta PC-M01 Mimenaga), ibai biek bisoi europarraren Kudeaketa Planean hobetu beharreko tartea direlako. Bestalde, Gobela interes bereziko eremua da arrain hiruarantzarako; beraz, eremuak garatzean eremuak garatzean eta Bizkaiko Foru Aldundiko Natura Ondarearen Zerbitzuaren manuzko txostena eskatu beharko da, espezie hauen gaineko eraginari buruz.

Aurrekoa kontuan hartuta, inpaktuak Esanguratsuak izango dira, ibaietatik oso hurbil daudelako. Hala ere, eragina Bateragarritzat hartu da, neurri babesle eta zuzentzaile eraginkorrak hartu daitezkeelako.



5.2.9. Kultura-ondarearen gaineko eragina

HAPOren zehaztapenak ez diote eragiten udalerriko ondare babestuari.

5.2.10. Paisaiarengan eragina

Bizitegi-garapenek (hiri-garapen finkatugabeak eta urbanizagarrien Tosu eta Muru eremuak) eta industria-garapenek paisaiaren kalitatea gutxitzea eta ikusmen-intrusio erlatiboa eragingo dute; izan ere, neurri handiagoan edo txikiagoan, lehendik zegoen hiri-erabilerarekin bat egiten dute, eta honek okupazio-azalera handitzea dakar, baina ez elementu berriak agertzea. Era berean, diseinatzen diren garapen-proiektueiesker, intereseko elementu natural eta kulturalak landareztatze eta babesteko ekintzakegin ahal izango dira, paisaia-inpaktua murrizten lagunduko dutenak. Honekin guztiarekin, inpaktua Esangura gutxiko gisa identifikatu da eta Bateragarritzat hartu da.

Peña Santa Marina, Diliz Goikoa eta Dendariena bizitegi-eremu urbanizagarriekegungo paisaiaren kalitatean eragin handiagoa izango dutela uste da. Lehenengo biak, La Galeatik udalerriko inguru honen (Andra Mari) natura-nekazaritza paisaiarantzko azken ikuspegi interesgarriak ixtean paisaia sartzen direlako; azkena, bere hedaturagatiketa gaur egun naturaltasun handiagatik nabarmentzen den natura-nekazaritza paisaiaren pertzepzioan sortzen den aldaketagatik.

Kasu guztietan, paisaiaren kalitatearen aldaketaren gaineko eragina Esanguratsua da, iraunkorra delako, eta Moderatutzat hartu da, diseinu- eta paisaia-integratioko neurri eraginkorrak onartzen dituelako. Bestalde, garrantzitsua da azpimarratzea aipatutako Peña Santa Marina S-R03 eta Diliz Goikoa S-R05 sektoreen bizitegi-erabilerarako okupazioak aukera ematen duela Muruko magaletan eta Dilizen eraikitako presentzia murrizteko, hasierako aukera batzuetan jasotzen zen bezala, Aizkorriko paisaia- eta natura-ondarearen zati hori zainduz.

Azpimarratzekoa da, Muruko eremu libreen proposamenak eragin positiboa izango duela, Aizkorritik dituen ikuspegi interesgarriak gaur egun duen egoeran mantendu ahal izateko, baita lurzoru urbanizaezin gisa sailkatzen den azalera handia ere, indarrean dagoen araudiari dagokionez.



5.2.11. Arrisku mailaren igoera


Eusko Jaurlaritzaren ingurumen-kartografian eskuragarri dagoen informazioaren arabera, Getxoko hiri-lurzoruaren zati handi batek uholde-arriskua du hiru errepikatze-aldietan (10, 100 eta 500 urte). Errealitate hori bereziki nabarmena da udalerrriaren mendebaldean, Gobela ibaiaren ertzetan (Salsidu, Fadura, Etxezuri-Larrañazubi eta Ereka-gane), 19. mapan uholde-orbanei eta lehentasunezko fluxu-eremuari buruz adierazten den bezala.

Horri dagokionez, adierazi behar da uholdeetatik babesteko jarduerak egin direla, "Getxon Gobela ibaiaren hobekuntza hidraulikorako jarduketa-proiektuaren" baman. Jarduketak lau exekuzio-fasetan banatu ziren: Salsidu (2014), Etxezuri-Larrañazubi (2014), Errekagane (2016) eta Fadura (2017). Azken urteotan egindako obren ondorioz, udalerriri eragiten dioten uholde-arriskuaren orbanak nabarmen murriztu dira. Aldaketarik handiena lehentasunezko fluxu-eremua estutzean ikusten da, Bolueko hezegunetik ibaian behera eta Fadurako kirol-gunean. Fadurako iparraldean, berriz, Zubilleta-Salsidu eremuaren zati handi bat urpean gera daitekeen orbanetik kanpo dagoela ikus daiteke.

Gaur egun, indarrean dagoen Planaren jarraipena egiten eta plangintza hidrologikoko 2022-2027 zikloari dagozkion berrikuspen-lanak garatzen ari dira. Hurrengo irudian, uholde-arriskuko eremu berriak kartografiatzen dira, alturako (T10), ertainerako (T100) eta txikirako (T500), lehentasunezko fluxu-eremuan, eta uholde-arriskua neurri handiagoan edo txikiagoan murrizten da honako eremu hauetan: AI-R06 eta PC-M01.

Era berean, eta lehen esan bezala, AI-R06 Zubilleta eremuan ibai-ibilguari atxikitako eraikinak eraistea planteatzen da, uholde-arriskua ezabatzeko eta, horren ordez, ibai-ekosistema leheneratzen lagunduko duen espazio libre bat sortzeko. Gainera, Gobela ibaiaren edukiera hidraulikoa handitu nahi da, dauden zubietan esku hartuz, eta, beraz, egungo baldintzak nabarmen hobetzea aurreikusten da.

Aurrekoa kontuan hartuta, Zubilleta AI-R06, Areneazpi AI-R09 eta Mimenaga PC-M01 garatzeko proposamenean uholde-arriskua esanguratsutzat jotzen da, eta bateragarritzat jotzen da lehen eremurako eta moderatutzat AI-R09 eta PC-M01 eremuetarako, betiere Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoko zehaztapenak betetzen badira (art.). 40 eta 41), urak har ditzakeen eremuetako erabilerei dagokienez. Gainerako proposamenei dagokienez (Dendariena S-R04 eta Martiturri S-M01), uholde-arriskua esangura gutxikoa eta bateragarria da.



Irudia 44. Getxoko herriguneko lehentasunezko fluxu-eremuan uholde-arriskuaren mugaketa berria. Gobela ibaia 1 eta 5, Kanderu ibaia 2, Itzaerreka ibaia 3, Larrañazubi ibaia 4, 6. eta 7. irteera-1 eta 2. Iturria: ura eta Kantauri Ekialdeko Ur Konfederazioa. 2021eko ekaina

5.2.12. Lehengaien kontsumoa eta hondakinen sorrera

Baliabideen kontsumoa Esangurta gutxikotzat hartu da, eta Bateragarri gisa baloratzen da da hedadura txikieneko bizitegi-eremuetarako, eta Esanguratsua gainerako eremu urbanizagarrietarako, Muru izan ezik, bere eremu librean azalera handiagatik, eraikuntza-fasean eta funtzionamendu-fasean egongo den lehengai-kontsumoagatik.

Hala ere, kontuan izan behar da egoiliar berriek aurreko etxebizitzetan egiteari utziko diotela; beraz, balantze orokorra neutroa edo positiboa izango da, eraikuntza berriek kontsumoak murriztu baititzakete iraunkortasun-irizpideak hartuz (energia aurrezte, ura aurrezte, geotermia, bioklimatismoa, bioeraikuntzako materialak, ekodiseinuko irizpideak hartzea, etab.).

Hondakinen sorrerari dagokionez, sektore berrietako obra fasean lur soberakin kopuru handia sortuko da, oraindik zehaztu gabe dagoena. Lurrak inguruetan berrerabili ahal izango dira edo lur eta arroken zabortege batera eraman beharko dira.

Hala ere, bizitegitarako hiri-hazkundearen ondorioz sortzen den hondakinen gehikuntzari dagokionez, kontuan izan behar da aurreko bizilekuko hondakinen ekoizpena ere gutxitzea ekarriko duela, beraz, teorikoki, zenbaketa orokorrakegonkor iraungo duela.

Eragina, oro har, Esangura gutxikoa da azalera txikiagoko bizitegi-eremuetarako, eta Esanguratsua azalera handieneko gainerako eremu urbanizagarrietarako; hala ere, proposamen guztietarako eragina Bateragarri gisa baloratu da aipatutako argudioengatik.



5.2.13. Etxebizitza eta lana

Etxebizitza ahalmena igotzeak, egongo den jarduera ekonomikoaren igoerarekin eta lanarekin batera, efektu Positiboa izango duela uste da.

Era berean, udalerrian enpresa berriak ezartzeko aukera (Martiturri eta Mimenaga) Positiboa izango da enplegua sortzeko, bai udalerrian, baita eskualdean ere; izan ere, biztanle gazteen galera geldiarazten lagunduko du, lan-aukera berriak eskainiz eta,aldi berean, mugikortasuna murriztuz, dauden garraio publikoko azpiegiturek zein egungo eta aurreikusitako mugikortasun jasangarritasuneko sareak lagunduta.

5.2.14. Bizi kalitatea/Bizigarritasuna

Obra orok inguruko bizi kalitatea aldatuko du (zarata, kutsatzaileen igorpena, irisgarritasunaren eta trafikoaren mugapena, etab.). Hala ere, erasan hauek aldi baterako dira eta behin obrak bukatuta, geldituko lirateke; beraz, Esangura gutxiokak izango dira eta Bateragarri bezala baloratu dira.

Bestalde, erabilera mistoak izango dituen hiri trinkoago bat sortzeko aukerari esker, hurbiltasuneko oinarrizko zerbitzuak ugarituko dira, egungo bizitegi-eremuei eta sortu berriei bizitasun handiagoa emateko. Ondorioz, hiriko bizi-kalitatea handitzea.

5.2.15. Mugikortasuna/Irisgarritasuna

Orokorrean, finkatu gabeko hiri-lurzoruko bizitegi-proposamenak hiri-bilbearen eta garraio publikoko azpiegituren barruan edo ondoan daude, mugikortasunarengaineko inpaktua Esangura gutxiokoa eta Bateragarria izanik. Antzeko balorazioa ematen zaio Martiturriren jarduera-sektoreari; izan ere, ahalmen handiko garraio publikoko azpiegitura baten ondoan dago, eta enplegua sortzeaz gain, ibilgailu pribatua erabiltzeko behar txikiagoa ahalbidetuko du. Mugikortasunaren murrizketak, gainera, egungo eta etorkizuneko mugikortasun jasangarriko sareak babestuko du.

Bestalde, gaitasun handiko garraio publikotik urrunen dauden eremu urbanizagarrien proposamenek (Santa Marina haitza, Diliz Goikoa eta, neurri txikiagoan, Dendariena), Mimenagako jarduera ekonomikoetarako eremua bezala, mugikortasuna ahalbidetzen dute; beraz, eragina Esanguratsutzat hartu da, distantziak oinezkoen eta/edo txirrindularien mugikortasuna sustatzen ez delako.



Hala ere, eragin hori Moderatua izango da da, erabilerak nahasten dituzten bizitegi-eremu berrietan biztanleria handitzeak oinarrizko zerbitzuak ezartzea erraztuko duelako gaur egun halakorik ez duten bizitegi-eremuetan, eta zerbitzu horietara iristeko dagoen mugikortasuna murriztu ahal izango duelako.

Hau nabarmenagoa aurreikusten da Peña Santa Marina eta Diliz Goikoa sektoreetan, hiri-trinkotasun handiagoa proposatzen baitute, erabilerak nahastuta eta egungo eta etorkizuneko premia handiko zuzkidura publikoetatik hurbil. Honek hurbileko mugikortasuna (oinezkoena eta bizikletena) erraztuko du, auto pribatuaren erabilera gutxituz eta, horrela, lotutako ingurumen-inpaktuak murriztuz (emisioak, zarata, espazio publikoaren okupazioa, etab.).

5.2.16. Klima Aldaketari egindako ekarpena

Orokorrean, proposatutako etxebizitza-eremu guztiek aldaketa klimatikoan erasanik izango ez dutela uste da.

Hala ere, hondeaketa-lanetan, lurren mugimenduetan eta eraikinak eta errepideak egitean (makinen funtzionamenduagatik, kamioien mugimenduagatik, etab. batez ere), CO₂ isurketen gorakada egongo da, erregai fosilen erabileragatik. Zentzu honetan, inpaktu hau Esanqura gutxikotzat eta Bateragarritzat jo da behin-behinekoa izango delako.

Martiturriko jarduera ekonomikoetarako eremua abian jartzeak erasan Esanquratsua izan lezake, Moderatutzat jotzen dena, berotegi-efektuko gasen emisioak areagotzea dakarten industrien kokapena, tamaina eta balizko ezarpena direla eta, ezezaguna dena plangintzaren fase honetan. Gainera, egungo egoerarekin alderatuta, mugikortasunak gora egin dezake.

Era berean, udalerriko zuhaitz-orban urriak areagotzeko konpentsazio-neurriak ezartzeko aukera dago, karbono-hustubide gisa jardun ahal izan dezaten. Eraikitako elementuen diseinuan irtenbide naturalak sartzeak ere, hala nola fatxada eta teilatu berdeak, helburu hau lortzen lagun dezake, hiri-biodibertsitatea handitzeaz gain.

Era berean, ekintza honii esker, lehendik bide bazterretako landaredia eta/edo namiatua duten eremu ugariak leheneratu ahal izango liriateke, udalerriko lurzoru urbanizaezinetan paisaiaren kalitatea eta biodibertsitatea hobetuz.



Honekin batera, eraikin berrietan isurketa balantze neutroa izatera lagunduko duten neurriak ezartzeko aukera dago (energia termikoa eta fotovoltaikoa, bestelako energia berriztagarriak, eraikin pasiboak edota bioklimatikoak, etab.).

5.3. Inpaktuen balorazioaren laburpena eta ondorioak

Antzemandako 3 inpaktu oso esanguratsuen eta 62 esanguratsuen azken balorazioa honakoa da: 2 larri, 23 moderatu eta 37 bateragarri (ikus 2. matriza). Gainontzeko inpaktuak positibo eta bateragarri gisa baloratu dira, izan ere, 1. matrizean esangura gutxikotzat jo diren inpaktuak BATERAGARRIA moduan baloratzen dira.

Inpaktu maila	Eragindako elementuak	Zehaztapenak
LARRIA	Lurzoruaren galera	S-R01, S-R03, S-R04
MODERATUA	Iragazgai eta betetzeko gaitasunaren murrizketa	AI-R06, AI-R11, S-R01, S-R03, S-R04, S-R05, S-M01
	Akuiferoak kutsatzeko zaurkortasuna	S-M01
	Lurzoruaren galera	AI-R06, S-R05
	Zarata	AI-R06
	Prozesu eta arriskuak (uholdeak)	AI-R09, PC-M01
	Paisaiaren kalitatea	S-R03, SR-04, S-R05
	Hauskortasun bisuala	S-R03, S-R05
	Mugikortasuna/ Irisgarritasuna	S-R03, S-R04, S-R05, PC-M01
BATERAGARRIA	Aldaketa klimatikoa	S-M01
	Lurzoruaren galera	AI-R11, S-M01
	Zarata	AI-R03, AI-R04, AI-R10, AI-R11, S-M01, S-R01, S-R04
	Prozesu eta arriskuak (uholdeak)	AI-R06
	Intereseko zuhaitz-landaredia eta/edo Batasunaren intereseko habitatak	S-R01, S-R03, R04, R05
	Belardi, ortu eta laborantzak	AI-R06, S-R01, S-R03, S-R04, S-R05
	Nekazal produktibitatea	AI-R06, S-R01, S-R03, S-R04, S-R05
	Fauna	AI-R06, PC-M01, S-M01, S-R04
	Lehengaien kontsumoa	S-R01, S-R03, S-R04, S-R05, S-M01
	Hondakinen sorrera	S-R01, S-R03, S-R04, S-R05, S-M01

Taula 29. Inpaktuen balorazioaren laburpena

Ingurumen-Azterketa Estrategiko honetatik ondorioztatzen denez, garapen berrien proposamenen ondoriozko aldaketak neurrizkoak, bateragarriak eta/edo positiboak izan dira nagusiki, eta hiru inpaktu larri baino ez dira identifikatu lurzoruaren galerari dagokionez. Bestalde, kontuan izan behar da HAPOnen berrikuspenak desklasifikatu egiten duela indarrean dagoen lurzoru urbanizagarriaren azalera handi bat, eta lurzoru urbanizaezin bihurtzen dela, lurzoru-faktore garrantzitsua eta beste natura- eta paisai-alderdi garrantzitsu batzuk babesteko eragiten dituen ondorio positiboekin.


Agiri honek eskuz idatzitako sinadurik ez izenperik ez duen arren, legezko balioa du. Getxoko Udalaren web-orrialdetik (<https://www.getxo.eus/dokumentuak/gaztatu>) agiri honen benetako kopia eskuratu ahal duzu formatu digitallean, ezkerretik ageri denegiaztapan-kode segurua erabiliz.

A pesar de no constar firmas manuscritas, este documento tiene validez legal. En la Página Web Municipal (<https://www.getxo.eus/validardocumentos>) podrá obtener una copia auténtica de este documento en formato digital, mediante el Código Seguro de Verificación que aparece en el margen izquierdo.

CSV: GET/CSV/2024/21482 kjmtE:BhrY

1.MATRIZA: GETXOKO (BIZKAIA) H.A.P.O.-REN ZEHAZTAPENETATIK ERATORRITAKO INPAKTUEN IDENTIFIKAZIOA

GIZARTE ETA INGURUMENEN ALDERDIAK			URA			LURZORUA	AIREA	LANDAREDIA		FAUNA	Geologia Intereseko Lekuak	PAISAIA		PROZESU ETA ARRISKUAK (uholdeak)	LEHENGAIEN KONTSUMOA	HONDAKINEN SORRERA	LURZORU KUTSATUAK	ALDAKETA KLIMATIKOA	INGURUNE SOZIOEKONOMIKO A ETA KULTURALA			BIZI-KALITATEA/BIZIGARRITASUNA	ONDARE KULTURALA
			Gainazalekoak eta lurrazpikoak					Lurzorua galera	Kutsadura atmosferikoa			Zarata	Intereseko zuhaitzak eta batasunaren intereseko habitatak						Belardi, ortu eta laborantzak	Paisaiaren kalitatea	Hauskortasun bisuala		
LURZORUAREN KLASIFIKAZIOA ETA KALIFIKAZIOA			Akuiferoen kutsatzeko zaurgarritasuna	Iragazgaizte eta betetzeko gaitasunaren murrizketa	Ubide eta ibaiertzengand eragina																		
Hiri lurzoru finkatugabea	Bizitegia (Guzt.: 133.542 m ²)	San Nicolas AI-R02	5.451 m ²																				
		Trinitarios AI-R03	6.627 m ²																				
		Katea-P. Orduña AI-R04	4.521 m ²																				
		Zubilleta AI-R06	65.978 m ²																				
		Areneazpi AI-R09	3.397 m ²																				
		Nervion-Iturgitxi AI-R10	2.468 m ²																				
		Ormaza AI-R11	46.334 m ²																				
		Jarduera ekonom.	Mimenaga PC-M01	13.824 m ²																			
Lurzoru urbanizagarri sektoriala	Bizitegia (Guzt.: 568.881 m ²)	Tosu S-R01	124.717 m ²																				
		Muru S-R02	78.375 m ²																				
		Peña Santa Marina S-R03	135.238 m ²																				
		Dendariena S-R04	134.314 m ²																				
		Diliz Goikoa S-R05	95.237 m ²																				
		Industrial	Martiturri S-M01	138.270 m ²																			



A pesar de no constar firmas manuscritas, este documento tiene validez legal. En la Página Web Municipal (https://www.getxo.eus/validardocumentos) podrá obtener una copia auténtica de este documento en formato digital, mediante el Código Seguro de Verificación que aparece en el margen izquierdo.

Agiri honek eskuz idatzitako sinadurik ez izenperik ez duen arren, legezko balioa du. Getxoko Udaleren web-orrialdetik (https://www.getxo.eus/dokumentuak/guztizatu) agiri honen benetako kopia eskuratu ahal duzu formatu digitalan, ezkerrean ageri denegiaztapan-kode segurua erabiliz.

Agiri honek eskuz idatzitako sinadurik ez izenperik ez duen arren, legezko balioa du. Getxoko Udalaren web-orrialdetik (<https://www.getxo.eus/dokumentuak/guztizatu>) agiri honen benetako kopia eskuratu ahal duzu formatu digitallean, ezkerretik ageri denegiaztapan-kode segurua erabiliz.

A pesar de no constar firmas manuscritas, este documento tiene validez legal. En la Página Web Municipal (<https://www.getxo.eus/validardocumentos>) podrá obtener una copia auténtica de este documento en formato digital, mediante el Código Seguro de Verificación que aparece en el margen izquierdo.

CSV: GET/CSV/2024/21482 kjmtEtBhrY

2. MATRIZA: GETXOKO (BIZKAIA) H.A.P.O.-AREN ZEHAZTAPENETATIK ERATORRITAKO INPAKTUEN KARAKTERIZAZIO ETA BALORAZIOA

	INPAKTU ESANGURATSUEN KARAKTERIZAZIOA		INTENTSITATEA		MOTA		UNEA			IRAUNKORTA SUNA		ITZULGARRIT ASUNA		BERRESKURATZEA		ALDIZKOTASUNA		HEDADURA		KOKAPENA		PROBABILTATEA			NEURRIAK ONARTZEN DITU		INPAKTUAREN BALORAZIOA				
	EREMUA	INGURUMEN ALDERDIA ETA ERAGINAK	Nabarmena	Minimo	Zuzena	Zeharkakoa	Epe motzera	Epe ertainera	Epe luzera	Aldi baterako	Iraunkorra	Itzulgarria	Itzulezina	Berrekuragarria	Berreskurazina	Irregularra	Jarraikor	Etena	Mugatua	Hedagarria	Sorburutik gertu	Sorburutik urrun	Ziurra	Gertagarri	Nekez gertatzeko	Ezezaguna		BAI	EZ		
Hiri Lurzoru finkatugabea	Trinitarios AI-R03 (Bizitegia)	Zarata																													
	Katea-P. Orduña AI-R04 (Bizitegia)	Zarata																													
	Areneazpi AI-R09 (Bizitegia)	Prozesuak eta arriskuak (uholdeak)																													
	Nervi3n-Iturgitxi AI-R10 (Bizitegia)	Zarata																													
	Ormaza AI-R11 (Bizitegia)	Iragazgaizte eta betetzeko gaitasunaren murrizketa Zarata Lurzoru galera																													
	Zubilleta AI-R06 (Bizitegia)	Iragazgaizte eta betetzeko gaitasunaren murrizketa Lurzoru galera																													
		Zarata																													
Prozesuak eta arriskuak (uholdeak)																															
Nekazal produktibitatea Belardi, ortu eta laborantzak Fauna																															
Mimenaga PC-M01 (jarduera ekonomikoak)	Prozesuak eta arriskuak (uholdeak) Fauna Mugikortasuna / irisgarritasuna																														
Lurzoru urbanizagarri sektoretzatua	Tosu S-R01 (Bizitegia)	Iragazgaizte eta betetzeko gaitasunaren murrizketa Lurzoru galera																													
		Zarata																													
		Intereseko zuhaitzak edota batasunaren intereseko habitatak																													
		Nekazal produktibitatea																													
		Belardi, ortu eta laborantzak																													
	Peña Santa Marina S-R03 (Bizitegia)	Lehengaien kontsumoa																													
		Hondakinen sorrera																													
		Iragazgaizte eta betetzeko gaitasunaren murrizketa Lurzoru galera																													
		Paisaiaren kalitatea																													
		Hauskortasun bisuala																													

A pesar de no constar firmas manuscritas, este documento tiene validez legal. En la P3gina Web Municipal (<https://www.getxo.eus/validardocumentos>) podr3 obtener una copia aut3ntica de este documento en formato digital, mediante el C3digo Seguro de Verificaci3n que aparece en el margen izquierdo.

Agri Honek eskuz idatzitako sinadurik ez izanperik ez duen arren, legezko balioa du. Getxoko Udaleren web-orrialdetik (<https://www.getxo.eus/dokumentuak/gaztatu>) agiri honen benetako kopia eskuratu ahal duzu formatu digitallean, ezkerretaldean ageri denegiaztapen-kode segurua erabiliz.

EREMUA	INGURUMEN ALDERDIA ETA ERAGINAK	INTENTSITA-TEA		MOTA		UNEA			IRAUNKORTA SUNA		ITZULGARRITASUNA		BERRESKURTZEZEA		ALDIZKOTASUNA		HEDADURA		KOKAPENA		PROBABILITATEA			NEURRIAK ONARTZEN DITU		INPAKTUAREN BALORAZIOA		
		Nabarmena	Minimo	Zuzena	Zeharkakoa	Epe motzera	Epe ertainera	Epe luzera	Aldi baterako	Iraunkorra	Itzulgarria	Itzulezina	Berrekuragarria	Berreskurazina	Irregularra	Jarraikor	Etena	Mugatua	Hedagarria	Sorburutik gertu	Sorburutik urrun	Ziurra	Gertagarri	Nekez gertatzeko	Ezezaguna		BAI	EZ
Lurzoru urbanizagarri sektorizatua	Dendariena S-R04 (Bizitegia)	Iragazgai eta betetzeko gaitasunaren murrizketa																										
		Lurzoru galera																										
		Paisaiaren kalitatea																										
		Zarata																										
		Intereseko zuhaitzak edota batasunaren intereseko habitata																										
		Nekazar produktibitatea																										
		Fauna																										
		Belardi, ortu eta laborantzak																										
		Mugikortasuna / irisgarritasuna																										
	Diluz goikoa S-R05 (Bizitegia)	Iragazgai eta betetzeko gaitasunaren murrizketa																										
		Lurzoru galera																										
		Paisaiaren kalitatea																										
		Hauskortasun bisuala																										
		Intereseko zuhaitzak edota batasunaren intereseko habitata																										
		Nekazar produktibitatea																										
		Belardi, ortu eta laborantzak																										
		Mugikortasuna / irisgarritasuna																										
		Lehengaien kontsumoa																										
	Martiturri S-M01 (Industrial)	Hondakinen sorrera																										
		Iragazgai eta betetzeko gaitasunaren murrizketa																										
		Akuiferoen kutsatzeko zaurgarritasuna																										
		Lurzoru galera																										
		Zarata																										
		Fauna																										
		Aldaketa klimatikoa																										
		Lehengaien kontsumoa																										
		Hondakinen sorrera																										

INPAKTUAREN MAILA ⇒ **Cr** KRITIKOA | **S** LARRIA | **M** MODERATUA | **C** BATERAGARRIA

INPAKTUAREN MAILA ⇒ **Cr** KRITIKOA | **S** LARRIA | **M** MODERATUA | **C** BATERAGARRIA

A pesar de no constar firmas manuscritas, este documento tiene validez legal. En la Página Web Municipal (https://www.getxo.eus/validardocumentos) podrá obtener una copia auténtica de este documento en formato digital, mediante el Código Seguro de Verificación que aparece en el margen izquierdo.

Agri Honek eskuz idatzitako sinadurik ez izenperik ez duen arren, legezko balioa du. Getxoko Udalaren web-orrialdeak (https://www.getxo.eus/dokumentuak) agiri honen benetako kopia eskuratu ahal duzu formatu digitalan, ezkerretik ageri denegiaztapen-kode segurua erabiliz.



6. NEURRI BABESLE, ZUZENTZAILE ETA KONPENTSATZAILEEN PROPOSAMENA

Neurri zuzentzaileen helburua gerta daitezkeen balizko aldaketak minimizatu edota konpentsatzea da, Getxoko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak proposatutako zehazpenen garapenak eta ingurumenaren ganean eragingo duen inpaktua ahaliketa txikiena izateko gomendioak ezartzen ditu.

Neurri hauen proposamena inpaktuen garrantziaren arabera egin da, eta orokorrean, Plan Orokor batek duen xehetasun-maila kontuan hartuta. Hala ere, hauek HAPOren dokumentu-arauegitan eta garatuko diren jardueren proiektuen Teknika Baldintza-Agiritan agertu beharko dira.

6.1. Plangintzatik goragoko mailetan egindako ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluaziotik eratorritako neurri babesle, zuzentzaile eta konpentsatzaileak hautematea

Getxon, behin betiko onespina eta eragina duten udalaz gaindiko planei (LAG, Durangaldeko LPP, EAEko Ibaien eta Erreken LPS, Nekazaritza eta Basozaintzako LPS; Itsasertza Babestu eta Antolatze LPS), ingurumen-inpaktua ebaluatzeko prozedurak aplikatu zaizkie. Hauek babes-neurri eta neurri zuzentzaile oso orokorrak ematen dituzte, eta horietako bakar batek ere ez dio udalerritari erreferentzia zehatzik egiten. Bilbo Metropolitarrako LPPk, berrikuspenean dago, hasierako onspen-fasean eta dagokion ingurumen-ebaluazio estrategikoa darama, nahiz eta tramitazioa amaitu ez den.

6.2. Neurri babesle, zuzentzaile eta konpentsatzaileen definizioa

6.2.1. Proiektuaren gehieneko eragin-eremua mugatzea

Proiektua aurrera eramateko beharrezkoa den gutxieneko eremuaren barnean egingo dira lanak. Ahalik eta gehien murriztuko dira espazioen okupazioak, horretarako egokitutako eremuetatik kanpora laneko materialak utz ez ditzaten eta makinak eta ibilgailuak ibil ez daitezzen.



6.2.2. Jardunbide egokien eskuliburu

Jardunbide egokien eskuliburu bat egitea, obrako langileek erabil dezaten: eskuliburu honetan, gutxienez, lanaldiekin, makinariarekin, behin-behineko desbideratzeekin, hautsa eta zarata ahalik eta gutxien sortzearekin, hondakinak kudeatzearekin eta ongizate publikoaren gaineko eragin negatiboak murriztearekin lotutako alderdiak jasoko dira.

6.2.3. Landaredian eragindako inpaktuekin lotutako neurriak

Irizpide orokor moduan, eta landaredia desagerrarazteko joeraren neurri konpentsatzaile gisa, lanaren faseak amaitu ostean, lanek kalte egin dieten eta okupatu gabe geratu diren eremuetan landareak jarriko dira. Bestalde, eremu desberdinetako fitxek, bakoitzean landatu beharreko zuhaitz kopurua jasotzen dute. Horretarako, beriz landareak ezartzeko dagokien egitasmoak idatzi beharko dira, honako helburu hauek zehaztuz:

- Espazio libreetan, landare-elementuak jartzea. Espezie autoktonoen erabilera proposatzen da (espezieak eremuaren araberakoak izango dira).
- Eragina izandako eremuetako paisaia egokitzeko bideak jartzea.
- Landaredi-galera orekatzea.
- Zuhaitzen galera konpentsatzea, hala badagokio; gutxienez, zuhaitz bat landatzea etxebizitza bakoitzeko (Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 79. artikulua).

Landareztatze edo lorategiak jartzeko lanetan, kontuan hartuko dira Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak egindako "Lorategi eta berdegune jasangarriak diseinatzeko eskuliburuan" jasotako gomendioak eta neurriak.

Landareztatze beharrezkoak diren jarduerak alde batera utzita, landarediaren gaineko eragina minimizatzea helburu duten prebentzio- eta zuzenketa-neurri batzuk deskribatzen dira:

- Obrak hasi aurretik eta zuinketa egin bitartean, ibilbide zehatza egingo da ukitutako azalera, proiektatutako lanak oztopatzen ez dituzten eta kontserbatu edo, hala badagokio, birlandatu daitezkeen zuhaitzak hautemateko eta markatzeko, halakorik balego.
- Zainduko diren zuhaitzen ondoan lan mekanikoak egingo diren eremuetan, horiek behar bezala babestu beharko dira. Babes-neurriak hartuta ere zauriren bat eragiten bada, produktu orbaintzaileak aplikatu beharko dira.



- Lur-mugimenduek eragindako landaredia bakarrik ezabatuko da, baldin eta ondoriozko antolamenduari bateraezina bada.
- Belar-sastrakak bitarteko mekanikoen bidez kenduko dira, eta ez da produktu herbizidarik erabiliko.

Bestalde, garapen berrien obretan zehar, prozesu inbaditzaileak sorditzaketan landare-espezie aloktonoak kontrolatzeko neurriak hartuko dira, besteak beste:

- Egon daitezkeen aleak desagerraraziko dira (kainaberak, banbu, Panpa belarra, akaziak eta *Buddleja davidii* batez ere).
- Lurren kontrol zorrotza egingo da, espezie horiek zabal ez daitezzen.
- Makineria garbitasun-baldintza egokietan erabiltzea, espezie inbaditzaileak ezartzea ahalbidetu dezaketen landare-hondarrik edo hazirik ez dagoela bermatzeko.
- Obrak zaintzea obrak bermatzeko epean, eta findu daitezkeen flora inbaditzailearen aleak kentzeko betebeharra, bereziki *Fallopia japonica*, *Cortaderia selloana*, *Buddleja davidii*.
- Hirigintza-araudian jaso beharko da administrazioek eta partikularrek debekatuta dutela horri buruzko araudian sartutako espezie inbaditzaileak erabiltzea (630/2013 Errege Dekretua).
- Gobela, Kanderu eta Larrañazubi ibaiertzeko landarediari dagokionez, belar-sastrakak aldizka garbitzea saihestuko da, landaredi mota honen bilakaera naturala ahalbidetuz; habitataren konektibitatea eta hobekuntza erraztuz faunarentzat eta, bereziki, bisoi europarrarentzat.
- Debeekatuta dago parke eta lorategietan, publikoetan zein pribatuetan, honako flora-espezie hauetako aleak ereitea edo landatzea:

<i>Acacia dealbata</i>	<i>Carpobrotus edulis</i>	<i>Nicotiana glauca</i>
<i>Agave americana</i>	<i>Cortaderia spp.</i>	<i>Nymphaea mexicana</i>
<i>Ailanthus altissima</i>	<i>Crassula helmsii</i>	<i>Opuntia dillenii</i>
<i>Alternanthera philoxeroides</i>	<i>Cylindropuntia tunicata</i>	<i>Opuntia máxima</i>
<i>Ambrosia artemisiifolia</i>	<i>Egeria densa</i>	<i>Opuntia stricta</i>
<i>Araujia sericifera</i>	<i>Eichhornia crassipes</i>	<i>Pennisetum setaceum</i>
<i>Asparagus asparagoides</i>	<i>Elodea canadensis</i>	<i>Pistia stratiotes</i>
<i>Azolla spp.</i>	<i>Elodea nuttallii</i>	<i>Salvinia spp.</i>
<i>Baccharis halimifolia</i>	<i>Fallopia japonica</i>	<i>Senecio inaequidens</i>
<i>Buddleja davidii</i>	<i>Hedychium gardnerianum</i>	<i>Spartina alterniflora</i>
<i>Cabomba caroliniana</i>	<i>Hydrocotyle ranunculoides</i>	<i>Spartina densiflora</i>
	<i>Ludwigia spp</i>	<i>Spartina patens</i>
	<i>Myrophyllum aquaticum</i>	<i>Tradescantia fluminensis</i>

Bestalde, intereseko landaredia kenduuz gero, konpentsazio-neurriak hartuko dira, udalerriko beste eremu narriatu batean ingurumena lehengoratzeko, eragindako azaleraren berdina edo handiagoa. Bestela, eragindako ale kopuru bera birlandatu daiteke, ahal dela espezie berekoak, hirigintza-eremuaren barruan.



Era berean, eta hiri-biodibertsitatea hobetzeko neurri gisa, fatxada eta estalkiberdeak ezartzea proposatzen da, posible den jarduera eta/edo bizitegi-eraikin guztietan.

6.2.4. Intereseko fauna espezieengan eragindako inpaktuekin lotutako neurriak

HAPOn proposatutako eremuetako batzuk (S-M01 Martiturri, S-R04 Dendariena, AI-R06 Zubilleta eta PC-M01 Mimenaga) ibaien mugakide dira, bisoi europarraren kontserbaziorako hobetu beharreko tartek eta arrain hiruarantzarako interes bereziko eremuak direnak; beraz, beharrezkoa izango da Bizkaiko Foru Aldundiko Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailaren alde aurreko baimena izatea. Eremu hauetan garatzen diren jarduerak aukera izan behar dute ibaien ingurumena lehengoratzeko. Horretarako, Espazio Librean Sistema Orokorrak eta Tokiko Sistemak beren ertzetan kokatuta daude jada.

Bisoi europarraren hobetu beharreko tarte gisa definitutako Interes Bereziako Eremuetan eragina izan dezaketen proiektuek espezie honen Kudeaketa Planean ezarritako jarraibideak jasoko dituzte. Nabarmentzekoak dira:

- Ibaiertzeko eremuetan landaredia landatzeko erabiltzen diren landareak genetikoki lokalak izan behar dira; besteak beste, espezie hauek: *Alnus glutinosa*, *Salix alba*, *Fraxinus excelsior*, *Corylus avellana* eta *Sambucus nigra*.
- Martxoaren 15etik uztailaren 31ra (ugalketa-aldia) bitartean, kontu handiz ibili behar da ibaien inguruetan eragina duten jarduerak egitean, eta interes bereziko eremuetan jardueraren debekualdiak ezarri ahal izango dira.
- Ezein jarduketek ezingo du errekarako uren kalitateari eragin diezaiokkeen edozein motatako kutsadura edo isurketarik eragin: uhertasuna, solido esekiak, obra-hondakinak, olioak, erregaiak edo antzeko produktuak.

Arrain hiruarantzaren kasuan, Gobela ibaiari eragiten dioten obrak egitea saihestuegin behar da espezieen ugalketarako aldi kritikoan (apirilaren 1etik abuztuaren 31ra bitartean).

Bestalde, Andra Mari auzoan bada basahuntz "triku arrunta" ren habitat bat. Beraz, espezie horri kalterik ez egiteko neurri zuzentzaile gisa, espezie hori habitat egokibatean birkokatzea proposatzen da.



6.2.5. Paisaiarengan eragindako inpaktuekin lotutako neurriak

Landaredia birsartzeko hartzen diren neurriak, landare-estalkiaren galera konpentsatzeko neurria izateaz gain, paisaia-kalitatearen galeraren aurkako neurria ere bada. Hirigune berrien diseinua ahalik eta gehien egokitu beharko da inguruko ingurunera eta luraren orografiara, eta hori etorkizuneko eraikinei balio erantsia emango dien eta paisaian nolabaiteko mimetizazioa lortuko duen kalitatezko proiektu batean oinarritu behar da.

Paisaia babestu eta hobetzeko helburuarekin ondorengo neurri zuzentzaileak proposatzen dira:

- Egotekotan, isurketa gunek kendu.
- Intereseko zuhaitzak edota zuhatz edo zuhaixka orban txikiak babestu.
- Sektore berrietan eraikinik gabe geratuko diren eremuetan bertako espezieekin egindako landaketak, bereziki, ibai-ibilguei lotutako zuhaitz-orban interesgarriak dituzten mugakideak, landa-paisaia naturalerako trantsizio-lotura gisa..

6.2.6. Baliabide hidrologikoengan eragindako inpaktuekin lotutako neurriak

Eraikuntza fasean, hurrengo prebentzio-neurri orokorrak hartuko dira kontutan:

- Biltegien kontrola: eraikuntza eta eraispen materialak.
- Substantzia toxikoen ustekabeko isurketak saihestea.
- Ibilgailuen mantentzea eta erregaia kargatzea iragazgaitzak diren eremuetan eta isurketa biltzeko sistema dagoen eremuetan egingo da. Hau egon ezean, jarduera hauekin lan egiten dituzten lekuetan egingo dira.
- Lurzorua iragazgaitzeari dagokionez, gune erdi-peatonaletan, aparkatzeko guneetan eta abarretan material iragazkorak erabiltzea planteatuko da.
- Hiri-garapen berrietan eta eraikinen diseinuan baliabide hidrikoen kudeaketa jasangarria kontuan hartu beharko da (sare berezileak, ura aurrezteko mekanismoak, ureztatze eta sentikorrek ez diren beste erabilera batzuetarako euri-uren bilketa, kontzientziazio-kanpainak, etab.).
- Plan Hidrologikoaren 44.1 artikulua eta Ibai eta erreken LPSaren E.4 atalek ezartzen duten bezala, hirigintza-garapen berriek drainatze jasangarriko sistemak sartu beharko dituzte (zoldura iragazkorak, tangak edo ekaitz-gailuak, etab.), jariatze-ura handitzea konpentsatu daitekeela edo garrantzirik ez duela bermatzeko.



Ibilguen aldameneko obrek libre utziko dute Jabari Publiko Hidraulikoaren zortasun-eremua (5 m), eta, ahal den neurrian, lursail naturalaren aldaketarik gabe (eraikinak, edozein motatako instalazioak edo eraikinak, lur-mugimenduak, betelanak, etab.). Saihestuko da ibaiertzeko landarediari eragitea.

Era berean, URA ur agentziaren nahitaezko administrazio-baimena beharko da jabari hidraulikoari eragiten dion edo haren babes-eremuetan dagoen edozein jardueratarako.

6.2.7. Lurzoruarengan eragindako inpaktuekin lotutako neurriak

- Ahal den neurrian, lurzoria trinkotzea saihestu beharko da, pisuzko makineria ibiltzeko eremuak murrizten.
- Eragina izan duten eremuetako lurzoruaren trinkotasuna kentzea.
- Egon daitekeen lurzoruaren kutsadura ekiditeko neurriak jarri beharko dira: isurketak saihesteko, biltegiatzeen kontrola, ibilgailuen mantentzea, eremua iragazgaiztu, etab.
- Nekazaritzarako kalitate oneko landare-lurrak dauzkaten horizonteak obrak hasi baino lehen kenduko dira, inguruko eremuetako zaharberritze lanetan erabiltzeko. Hau posible ez balitz, trapezio formako 2,5 metroko altuerako zatiak hartuko dira eta gainazalean ereingo dira. Lur bilketak inguruko zangak dauzkaten eremu zehatzetan egin beharko dira, euriek ez eramateko.

6.2.8. Aire kalitatearengan eragindako inpaktuekin lotutako neurriak

Obra orotan, hondeaketa eta botatzen lanak egiten direnean batez ere, babeserako hurrengo neurri generikoak hartuko dira gutxienez:

- Obra garaian inguruko zonaldeetan eta sarbideetan garbiketa lanak egitea.
- Ibilgailuak obratik irteten direnerako garbiketa gailuak.
- Lurrak erabiltzen diren bitartean, estali edo hezetu.
- Kamioien zama estaltzea.

6.2.9. Kutsadura akustikoarekin lotutako neurriak

Erabili beharreko makinek soinu-emisioei buruzko Europako araudia bete beharko dute (86/662/EEE eta 95/27/EE Zuzentarauak), bai eta aire zabalean erabiltzeko makina jakin batzuek ingurunean egiten dituzten soinu-emisioak arautzen dituen otsailaren 22ko 212/2002 Errege Dekretua ere. Bibrazioei dagokienez, UNE 22-381-93 arauak ezarritako mugak bete beharko dira.



EAEko hots-kutsadurari buruzko 213/2012 Dekretuaren I. eranskinean zehaztutako kalitate akustikoko helburuak betetzen direla egiaztatzeko, eragin akustikoariburuzko azterlanak egin beharko dira.


Aipatu behar da 2024ko uztailan egindako azterlan akustikoak hainbat neurri proposatzen dituela ezarritako Kalitate Akustikoko Helburuak betetzen ez dituzten HAPOn aurreikusitako antolamendu-eremu edo -sektoreetarako. Trinitarios (AI-R03) eremurako, bete beharreko gutxieneko isolamenduak ezartzea proposatu du. Katea-P. Orduñaren (AI-R04) eta Zubilletaren (AI-R06) kasuan, bi irtenbide mota proposatzen dira: pantaila akustikoa eta isolamendu akustikoaren hobekuntza edo isolamendu akustikoa soilik.

Bizitegi-sektore urbanizagarri dagokienez (Tosu S-R01, Peña Santa Marina S-R03 eta Dendariena S-R04), ezartzen du aipatutako lehen biak garatzeko beharrezkoa dela gehieneko lerrokadurak aldatzea eta egonlekuen kokapena mugatzea (ikus 45. irudia); era berean, Tosu S-R01 eremuan ere aurreikusten dira aurreikusitako eraikinak metro-lineatik 65 metro ingurura urruntzeko neurriak. Distantzia horretatik beherako eraikinak jarriz gero, pantaila akustiko bat jarri beharko da, aurreikusitako eraikuntzen behin betiko lerrokadurak eduki ondoren zehaztu beharko dena; hiri-mugikortasunari buruzko neurriak ere hartuko dira, eremu horretako kaleetan aurreikusitako trafikoak %25 baino gehiago gainditu ez daitezten. Dendarienaren kasuan, antolamendua garatzen denean azterlan akustiko bat egin beharko dela adierazi du, neurri zuzentzaileak jasoko dituena, hala nola eraikinen kokapena mugatzea eta pantaila akustikoak jartzea Metro Bilbaon. S-R3 Peña Santa Marina eremuaren kasuan, mugikortasunari buruzko neuminekasiroak hartuko dira, sektore horretako kaleetan aurreikusitako trafikoak % 50 baino gehiago ez gainditzeko, bai eta estantzia-espazioen kokapena murrizteko ere.



Irudia 45. Tosu S-R01 eremuko egonlekuen mugaketa-eremuak gorritz adierazten dituen planoak.

S-M01 Martiturriri dagokionez, eraikin eta espazio egonkorren kokapena mugatu beharko dela adierazi du, eraikinik edo egoteko eremurik ez eraikitzeaz gain (ikus 43. irudia). Gorriz markatutako eremuan eraikiz gero eraikinak, ez dute izango trafikobideetara bideratutako leihorik.



Irudia 46. Plano honetan, S-M01 Mariturriri eremua estantzia-espazioen murrizketa-eremuak gorriz adierazten dira.

Kasu honetan, jarduketa integratuei dagozkien eremuak (AI-R06 Zubilleta, AI-R11 Ormaza eta AI-R04 Katea P Orduña) isolamendua gainditzeko pantaila akustiko bat jartzea bezalako neurriak aurreikusten dira. Inpaktu akustikoa neurritz kanpoko bada, Babes Akustiko Bereziko Eremu (ZPAE) gisa ukuiluratuko litzateke, eta pantaila bidez isolatuko litzateke. Era berean, AI-R06 Zubilletaren kasu zehatzean, zonako plan propio bat definitu beharko da. Plan horretan, BI-637 autobiaaren zarata murrizteko eta fatxada isolatzeko pantaila akustikoak barne hartuko dituzten beharrezko neurri zuzentzaileak ezarriko dira. AI-R12 Azkorrane, AI-R10 Nervion-iturgitxi eta AI-R09 Areneazpi eremuetarako, Babes Bereziko Eremu (ZPAE) isolatuago bat ezarriko da.

Bestalde, foru-errepideetako Zortasun Akustikoko Eremuaren barruan dauden eremuetan, aplikatzekoa da EAEko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 30. artikulua, zeinak ezartzen baitu beharrezkoa dela inpaktu akustikoari buruzko ikerketa bat egitea. Ikerketa hau, Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomiaren eta Lurralde Garapeneko Sailari igorriko zaio, hark nahitaezko txostena egin dezan.

Nolanahi ere, hiri-plangintza berriaren zehaztapenek Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duen urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuak zonakatzeko akustikoari, kalitate-helburuei eta emisio akustikoei dagokionez eta EAEko zaratari buruzko 213/2012 Dekretuak ezarritako soinu-mugak betetzen direla ziurtatu beharko dute.



6.2.10. Hondakinen sorrerari buruzko neurri zuzentzaileak

Hondakinen kudeaketari dagokionez, kontuan hartu beharko da eraikuntza- eta eraipen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituen ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuan xedatutakoa. Horrela, obra handiko proiektu guztiek Hondakinen kudeaketari buruzko azterketa bat izan beharko dute, haien obrek Hondakinen Kudeaketari buruzko Plan bat eta obra-amaierak Hondakinen Kudeaketari buruzko Azken Txosten bat, arlo horretan indarrean dagoen legerian adierazitako dokumentazio osagarri eta justifikatzaile guztiaz gain.

Hondakinak Kudeatzeko Planean beste neurri batzuk kontuan hartzea gomendatzen da:

Hondakinak sortzeko prebentzio-neurriak

- Materialak hautatzea. Erabilitako materialak zehatz-mehatz neurtzea, obran degradatzen diren eta gero balorizatzen zailak diren lehengaiak beharrikgabe erostea saihesteko.
- Materialaren garraioa minimizatzea. Ekoizpen-planta arazoizko kilometro-erradioan duten hornitzaileak hautatzea, garraiotik eratorritako emisioak minimizatzen. Irizpide bera gomendatzen da hondakinen kudeaketarekin.
- Ontziak eta enbalajeak. Ahalik eta bilgarri gutxien erabiltzen dituzten materialak eta ekoizleak bilatuko dira, obrako garraiorako eta manipulaziorako segurtasun-berme handienarekin.

Berrerabiltzeko, baloratzeko edo ezabatzeko eragiketak

- Materialak behar bezala biltzea, ahalik eta gutxien alferrik galtzeko.
- Materialak erosi aurretik, hornitzailearekin batera ezarriko da jatorrizkoan enbalatutako soberakinak edo gutxienez egoera onean daudenak itzultzeko aukera.
- Egunean erabil daitekeen mortero-nahasketa baino gehiago ez prestatu.

6.2.11. Arriskuak murrizteko neurriak

Getxoko Gobela ibaiaren hobekuntza hidraulikorako jarduketa-proiektuaren bidez gauzatutako jarduketek, afekzioak asko murriztea lortu dute, bereziki aztertutako eremuko biztanleria-dentsitate handieneko eremuetan. Proiektuan sartzen diren jarduerak honako hauek dira:

- Gainezkabidearen (Cristóbal Valdés kalean) eta Avanzada zubiaren arteko tartean bideratze pantailak jartzea.
- Egungo ubidea eta haren hondoa aldatzea.



- Ibaiertzak ibaian integratzea, hainbat altueratako uholde-plataformak sortuz, behar bezala landareztatuta, eta ibai-parkea izeneko eremu bat sortuz ibilguaren goiko aldean.
- Hainbat zubi ordezte.
- Leioako zubia eta udal-garabiaren aparkalekuaren arteko tartean, Iberdrolaren pasabidetik ibaian gora, ezker aldean dauden lurak beheratu dira hurrengo tartean: Leioako eta Jolaseta zubien artean, Jolaseta eta Lexarreta zubien artean eta Larrañazubi ikastetxean eta y dal-garabiaren aparkalekua Iberdrolako pasabidetik gora.

Bestalde, abari Publiko Hidraulikoaren, horri lotutako babes-eremuen eta urpean gera daitezkeen eremuen gaineko afekzioari dagokionez, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoan eta EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planean xedatutakoa bete beharko da, eta, hala badagokio, eremuetan uholde-arriskua handitzea saihestuko da, eta instalazioak 500 urteko errepikatze-denborako uholde-arriskuaren kotatik gorako kotetan kokatuko dira. Era berean, administrazio hidraulikoaren nahitaezko baimenean jasotako baldintzak bete beharko dira.

Obrak egin eta gero uholdea jasateko arriskua duten eremuek EAEko Ibaien eta Ereken Ertzak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialaren araudia betetzeaz gain, Espainia aldeko Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren 40 eta 41. artikulua ezartzen dituen zehaztapenak bete beharko dituzte.

Eraikin berrietan, kontuan hartuko da irailaren 27ko 997/2002 Errege Dekretuak onartutako Eraikuntza sismorresistenteari buruzko araua: zati orokorra eta eraikuntza (NCSR-02).

Kontuan hartu behar dira bai EAEko Basoetako Suteen Arriskuko Larrialdi Plan Bereziaren VI. eta VII. eranskinetan jasotako mugak eta baldintzak (Gobernu Kontseiluaren 2016ko abenduaren 27ko akordioaren bidez onartuzena), baita azaroaren 15eko 893/2013 Errege Dekretuaren bidez onartutako Basoetako Suteen Arriskuko Larrialdietako Babes Zibileko Plangintzaren Oinarriko Antolamenduaren Gidalerroan jasotakoak.



6.2.12. Espazio antolamendua, urbanizazioa eta eraikuntzen jasangarritasunari dagozkien neurriak

- Etxebizitza, jarduera ekonomiko, ekipamendu eraikin berrietan eta beste azpiegitura batzuetan (aparkalekuetan, etab.) eguzki-bilketa termikoa eta fotovoltaiakoa sustatzea, eraikin berrien orientabideak definituz, eguzki-bilketaren eraginkortasunean eta argi naturalaren aprobetxamenduan oinarrituta, besteak beste.
- Eraikin berrien barne-erabileren banaketa zehazteko, besteak beste, argi naturalaren aprobetxamendu eraginkorra kontuan hartu beharko da.
- Etorkizuneko eraikuntzetara hobekien egokitzen den energia berriztagarria aprobetxatzeko sistemak ezartzearen bideragarritasuna aztertzea (eguzki-bilketa termikoa, fotovoltaiakoa, aerotermia, geotermikoa edo biomasa).
- Eraikuntzan edo EAEko Etxebizitzarako Eraikuntza eta Birgaitze Jasangariaren Gidan jasotako beste batzuetan diseinu bioklimatikoko eta/edo passivhauseko irizpideen ezarpena baloratzea (Eusko Jaurlaritza, 2015).
- Iragazkorak ez diren eremu zolatuak mugatzea, iragazte naturalaren ahalmenari eusteko.
- Egungo eta etorkizuneko eraikinetan (ekipamenduak, pabiloiak, etab.) fatxada eta estalki berdeak ezartzen laguntzea.
- Ura aurrezteko sistemak ezartzea eta, ondorioz, ur grisak sortzea.
- Eraikin berrietan ura aurrezteko eta energia kontsumitzeko sistemak ezartzea (difusoreak, itzaltzeko eta pizteko sentsoreak, kontsumo baxuko argiztapena, etab.).
- Baso-kudeaketa iraunkorreko zur ziurtatuaren erabilera sustatzea, etorkizuneko eraikuntzetan material berriztagarri gisa.
- Urbanizatu beharreko eremu berrietan kontsumo baxuko argiztapen-sistemak erabiltzea, argi-kutsadura saihesteko eta energia aurrezteko.
- Hondakinak gaika biltzeko gune egokiak sortzea.
- Erabili beharreko eraikuntza-materialak iraunkorrak eta birziklagarriak izan daitezen saiatzeko.
- Ahal den guztietan, lehengai berriztagarriak erabiltzea.
- Jatorri hurbileko materialen erabilera sustatzea, joan-etorriak minimizatu eta, honek dakarren energia-gastua txikituz.
- EAEko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legean ezarritakoa betetzea.

Laburbilduz eta ondorio gisa, kontsumo ia nuluko eraikinak diren eraikuntza berrien diseinuan kontuan hartzea, Eraikuntzaren Kode Teknikoaren (EKT) Energia Aurrezteko



Oinarrizko Dokumentuaren (DB-HE)² eguneraketa. Bestalde, kontuan hartuko dira EAEn ingurumenaren aldetik jasagarria den eraikuntza- eta birgaitze-gidetan ezarritako ingurumen-neurri eta -jardunbide egokiak.

Atal honetan zehaztutako neurri askok berotegi-efektuko gasen isurketa murrizten lagun dezakete, Hiri Antolamenduko Plan Orokorra gauzatzeko klima-aldaketan izan dezakeen eragina arinduz. Neurri horietako batzuk, egokiak diren beste batzuekin batera, HAPOn araudian eta ordenantzetan jasota daude jada, eta HAPOn etorkizuneko garapen-proiektuetan zehaztu beharko dira.

6.2.13. Klima aldaketaren ondorioak murrizteko neurriak

Eusko Jaurlaritzak eta Ihebek egindako "EAEko udalerriek klima-aldakeraren aurrean duten kalteberatasunaren eta arriskuaren ebaluazioa" dokumentuak, bero-boladen, uholdeen, itsas mailaren igoeraren eta lehortearren inpaktuen aurrean egokitzeko neurri orokor batzuk ezartzen ditu. Besteak beste, honako hauek har daitezke:

- Udalerriko plaza, espazio eta eraikin publikoen azalera berdea eta iragazkora handitzea.
- Tokiko konektibitate ekologikorako sare bat sortzea, hiri-ekosisteman biodibertsitateari eusteko.
- Eraikinetako teilatu lau eta balkoiak, espazio komunak eta uharte-patioak berdetzearen alde egitea.
- Freskatzeko hiriguneak identifikatu, egokitu eta mantentzea, bero-boladetan biztanleria kalteberarentzako bitarteko direnez (itzala duten plaza eta pasealekuak, iturriak...).
- Dauden ur-baliabideen eta eskaeraren azterketa egitea etorkizuneko klima-baldintzen arabera (ura aurrez biltzeko gaitasuna handitzeko premia aurreikustea).
- Euri-urez betetzen diren sakonera gutxiko hiri-igerilekuak instalatzea, "beroharteen" efektuari aurre egiteko.
- Ibaiaren ibilguak birnaturalizatzea, ibai-uholdeen arriskua duten eta horrekiko kalteberak diren eremuetan.
- Urak har ditzakeen lurretan eraikin berrien eraikuntza murriztea (baita gaur egun uholde-arrisku handirik ez duten lurretan ere).
- Udalerriko saneamendu- sareak klima-aldaketaren agertokietan aztertzea.
- "Euri-lorategiak" instalatzea (sustrai luzeko landare eta belar autoktonoak) sakonuneak dira; sakonune horiek bete egiten dira euriteetan, eta ura lurzorura iragazten da, sarera bidali beharrean.

² DB-HE 2019 A aplikazio Gida. Eraikuntzaren Kode Teknikoa. 2020ko abuztua



- Ekaitz-andelak eraikitzea, euriak ebakutzeko ahalmen handiagoa izateko eta, hala, uholde-arriskua murrizteko.
- Itsasoaren maila igotzearen eta olatu izugarrien aurrean arriskuan dauden udalerriko azpiegiturak berrikusteko eta mantentzek.
- Kostaldearen aurrerapena geldiaraztea, mota askotako esku-hartzeak eginez (dunak berrreskuratu, hondartzak bere onera ekarri, padurak eta hezeguneak leheneratu, etab.).
- Uraldiak eta uholdeak izateko arriskua duten saneamendu-sareak egokitzea, batez ere ibaiak itsasoratzen diren lekuetan.
- Uholde-arriskurik handieneko eremuak sentikortasun txikiago erabileretara bideratzea, hala nola parkeak eta kirol-eremuak.
- Lurzorua kalifikatzeko prozesuan zuzkidura- erabilerak arautzearen bidez, eragozte instalazio kritikoak (ospitaleak, suhiltzaileen eta poliziaren kuartelak...) arrisku-guneetan jarri ahal izatea, batez ere uholde- eta sute-arriskua duten guneetan.
- Uholde-arriskuak eragindako eremuetan lurpeko aparkalekurik ez egitea.
- Eraikitako elementuen diseinuan irtenbide naturalak sartzea, hala nola fatxada eta teilatu berdeak, lagungarriak izan daitezke helburu hori lortzeko eta hiri-biodibertsitatea handitzeko.

6.3. Neurrien bideragarritasun ekonomikoa

Getxoko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean proposatutako sektoreen garapenariburuz ezarri diren babes-neurri, neurri zuzentzaile eta konpentsatzaileen balioa eremu hauen Plan Partzial edota urbanizazio eta eraikuntza berrien egikaritze proiektuetako aurrekontuetan zehaztu beharko dira.

A pesar de no constar firmas manuscritas, este documento tiene validez legal. En la Página Web Municipal (<https://www.getxo.eus/validadocumentos>) podrá obtener una copia auténtica de este documento en formato digital, mediante el Código Seguro de Verificación que aparece en el margen izquierdo.

Ajiri Honek eskuz idatzitako sinadurik ez izenperik ez duen arren, legezko balioa du. Getxoko Udaltaren web-orrialdeik (<https://www.getxo.eus/dokumentuak/guztizatu>) agiri honen benetako kopia eskuratu ahal duzu formatu digitallean, ezkerrealdean ageri denegiaztapen-kode segurua erabiliz.

CSV: GET/CSV/2024/21482 kjmtErBhrY



7. INGURUMEN IKUSKARITZARAKO PLANA

Ikuskaritzarako planaren helburua Plan Orokorrak eta IAEk finkatutako ingurumen eta iraunkortasun helburu eta irizpideak beteko direla bermatuko duen sistema diseinatzea da. Xedapen nagusiak honakoak dira:

- Xedatutako neurri babesle eta arteztaile guztiak modu egokian ezartzen direla bermatzea, nola lanen fasean, hala ustiapen-fasean.
- Ezarritako neurriak eraginkorrak ote diren aztertzeke jarraipena egitea, eta, eraginkorrak ez badira, arrazoiak aztertzea, eta behar diren neurri arteztaileak abian jartzea.
- Aurreikusitako eraginen eta egiaz egiten direnen arteko doitze-maila neurtzea, nola tamainari begira, hala eragindako aldagaiei erreparatuz, bai lanen fasean eta baita erabilera-fasean ere.
- Xedatutako betebeharrak betetzen ez direla antzemanaz gero, edo ingurumen-aldagaietarako finkatutako mugak gaindituz gero, zer jardunbide gauzatuko diren zehaztea.

Oro har, Ikuskaritza programaren edukia eta ikuskatu beharreko alderdiak honakoak izango dira:

- HAPOren araudian eta Ingurumen Adierazpen Estrategikoan sartutako ingurumen eta jasangarritasun energetikoari buruzko zehaztapen guztiak betetzen direla zaintzea.
- Landaredian eragindako ondorioak kontrolatzea; bereziki, balio handienekoak eta ibai bazterrekoak.
- Aurreikusitako lanek okupatutako azalera guztiak gainbegiratzea, eta arrisku handiena duten eremuak definitzea, hala badagokio.
- Isuriak kontrolatzea.
- Makinen mantenturako eremuak kontrolatzea.
- Kalitate akustikoko helburuak betetzen direla bermatzea.
- Proposamenak gauzatzeko fasean zarata kontrolatzea.
- Landare-lurra egoki kudeatzea.
- Gauzatzefasean, hondakinen kudeaketa behar bezalakoa dela kontrolatzea.
- Antolamendu-memorian definitutako jardunbide guztiak betetzen direla kontrolatzea, eta jardunbide horiek finkatutako iraunkortasun-irizpideei zerbateraino egokitzen zaien aztertzea.
- Birlanaketa eta paisaia integrazioarako lanak behar bezala gauzatzen direla kontrolatzea, eraikin berriak inguruari egokitzen direla ziurtatuz.
- Eraikiko diren eraikinetan jasangarritasun irizpideak jarraitzen direla kontrolatzea.



Ingurumen ikuskaritza hau, Getxoko udalak egin beharko du zuzenean, bertako edo kanpoko aholkularitza-agentzia gaitu batek edo ingurumen gaitan aditua den teknikari baten laguntzaz.

7.1. Ingurumen jarraipena egiteko adierazleen proposamena

Adibide gisa, jarraipen-adierazle hauek proposatzen dira (informazio eskuragarria izanez gero, indarrean dagoen egoerarako eta HAPOk azkenean planteatzen duen proiektiorako kalkulatu beharko dira):

	Adierazleak	Deskribapena	Kontrolerako erref.-balioak	Aldizkotasuna	Oharrak
Lurzoruaren okupazio eta	Hiri lurzoru eta urbanizagarri gisa sailkatutako azalera	Hiri-lurzoruaren eta lurzoru urbaniz. azalera, udalerrriaren azalerari dagokionez	80,8% (929,56 ha/ 1.150 ha)	Lehen eta HAPOren onespenean	Udalplan
	Eremu libreetara bideratuko den azalera	Parke, lorategi eta eremu berdeek okupatutako azal. %	12,4% (142,48 ha/ 1.150 ha)	Lehen eta HAPOren onespenean	Udalplan
Landaretzatza	BIH azaleraren galera	Batasunaren intereseko habitaten azaleraren bilakaera	24,36% (288,37 ha/ 1.183,78 ha)	Lehen eta HAPO amaitzean	Geoeuskadi
	Bertako basoen azalera	Bertako basoen azaleraren %, guztizko baso azalerari dagokionez	47,97% (85,36 ha/ 177,95 ha)	Lehen eta HAPO amaitzean	Geoeuskadi
Airea	A irearen kalitatea	Indarrean dagoen legedian ezarritakoa baino kutsadura-maila handiagoak jasaten dituzten biztanleen %	A irearen kalitatea: ona. Ez dakigu zenbat ragindako biztanleria ezezaguna. Erreferentziako estazioa (Algorta)	Urtero	Iturria: EAEko airearen kalitateari buruzko urteko txostena
	Soinu maila	213/2012 Dek. ezarritako KA HAK baino zarata-maila handiagoak jasaten dituzten biztanleen %	Informaziorik gabe	Urtero	Eraikin berrietan KA HAK gainditzen ez direla ziurtatzea
Mugikortasuna eta irisgarritasuna	Oinezkoa eta txirrindularia	Oinez/bizikletan egindako joan-etorrien %	Informaziorik gabe		
	Motorduna	Ib. pribatuan egindako joan-etorrien %	Informaziorik gabe		
	Oinezko eta txirrindularientzako guneen %	Oinezkoentzako eta bizikletentzako eremu berrien %, egungo egoerari dagokionez		Lehen eta HAPO amaitzean	
Paisaia kalitatea	Kontrolrik gabeko isurketa-puntuen presentzia	Kontrolrik gabeko isurketa-puntuen kopurua	Informaziorik gabe		
Ura	Lurazaleko uren egoera ekologikoa	Erreferentziako ibai-masak (GOB082 eta GLA047 estazioak)	Eskasa eta ona	Urtero	EAEko ibaien egoera biologikoaren jarraipena egiteko sarea
	Trantsizioko uren egoera ekologikoa	Erreferentziako ibai-masak (Nerbioi barnealdea eta Nerbioi kanpoaldea)	O na baino txarragoa	Urtero	Trantsizioko eta kostaldeko uren egoera ekologikoaren jarraipena egiteko sarea



	A dierazleak	Deskribapena	Kontrolerako erref.-balioak	Aldizkotasuna	Oharrak
Ura	Kostaldeko uren egoera ekologikoa	Erreferentziako ibai-masa (L-N10 eta L-N20 estazioak)	Oso ona eta moderatua	Urtero	Trantsizioko eta kostaldeko uren egoera ekologikoaren jarraipena egiteko sarea
Ingurune sozioekonom.	Langabezi tasa (%)	Langabezia dauden biztanleak	10,41	Urtero	EUSTAT/LANBIDE
	Nekazal-produktibitatearen galera	Urbanizazioak eraldatutako nekazaritza- eta abeltzaintza-lurren azaleraren %	0% (18,32 ha)	Ez dago balio estrategiko handiko lurzoruen gaineko proposamen urbanizagarririk	
Arriskuak	Lurzoru kutsatuak	Jarduera kutsatzaileak dituen edo izan dituen lurzoruen azalera eta erabilera berrietarako berreskuratutakoen %	Jarduera kutsatzaileak dituen edo izan dituen 15,5 ha lurzoru	Lehen eta HAPO amaitzean	Jarduera kutsatzaileak dituen edo izan dituen lurzoruen inbentarioa (Geoeuskadi)
	Uholde-arrisku gertakariak	10, 100 eta 500 urteko errepika denborak	Uholdeek udalerrian izandako eraginaren kopurua		URA
Baliabideen kontsumoa eta hondakinen sorrera	Potentzia fotovoltaikoa	Instalaturako potentzia fotovoltaikoa (Kw 10.000 biztanleko)	-	Urtero	Udaletxea
	Energia berriztagarrien udal-kontsumo energetikoa	Energia berriztagarriei dagokien udal-kontsumo energetikoaren %	-	Urtero	Udaletxea
	Udal kontsumo elektrikoa	Udal kontsumo elektrikoa bide argiztapenean eta udal instalazioetan	Informaziorik gabe	Urtero	Udaletxea
	Udalerriarren urteko kontsumo elektrikoa	Udalerriko urteko kontsumo elektrikoa (Kwh/bizt.)	Informaziorik gabe	Urtero	Udaletxea
	Hondakinen sorrera	Etxeko hondakinak sortzea (Kg/bizt./urte)	0,94 (Kg/bizt./urte)	Urtero	BIZKAIA 21
Kultura ondarea	Ondare arkeologikoa	Azterna arkeologikoen aztarnak agertzea	Informaziorik gabe		Ondareari buruzko legeria betetzea
Aldaketa klimatikoa	Karbono aztarna		-	Lehen eta HAPO amaitzean	Udaletxea



7.2. Ingurumen ebaluaketa behar duten jarduketak

HAPOren zehaztapenetatik eratorritako jarduketa batzuek Ingurumen-Ebaluazio Estrategikoaren prozedurak edo Ingurumen-Inpaktuaren Ebaluazioa bete beharko dituzte. Honako hauek izango dira:

Ingurumen-Ebaluazio Estrategiko arrunta edo sinplifikatua

- Ingurumenean eragin nabarmena izan dezaketen HAPOren aldaketak.
- Plangintza orokorra bateragarri egiteko planak, plan partzialak eta ingurumenean ondorio esanguratsuak izan ditzaketen plan bereziak.

Ingurumen-Inpaktuaren Ebaluazio arrunta edo sinplifikatua

- Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen I. eta II. eranskinetan edo Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legearen II.D eta II.E eranskinetan jasotako proiektuak.

8. LAN TALDEA

Dokumentu honetan, EKOS, Asesoría e Investigación Medioambiental (EECO S.L.) enpresako lan talde profesionalak hartu du parte.

Jan Lukas Menzel
Barraqueta
Ingurune Zientzietan
Doktorea

NAN 78941175-T

Miriam Esteban
Aldazabal
Geografian Graduatua

NAN 79124873-C

Adrian Diez Angulo
Geografian Lizentziatua

NAN 72793974-D

Amorebieta-Etxano, 2024ko uztaila



BIBLIOGRAFIA

Buenetxea, X., Arce, F., Líbano, I., Artaza, S.. Estudio y valoración faunística del tramo costero Arriqunaga-Barinatxe, en Getxo (Bizkaia). 2007-2008

Buenetxea, X.; Líbano, I.; Artaza, S. Actividades faunísticas y gestión del medio natural en el humedal de Bolue. Getxo. 2007-2008

Buenetxea, X.; Líbano, I.; Artaza, S Plan de Actividades Faunísticas y Gestión del Bolue. 2009

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Saila (UNESCO UPV/EHU katedra). Ekosistemen zerbitzuak. 2014

Bizkaiko Foru Aldundia. Trafikoaren bilakaera Bizkaiko errepideetan. Ekonomia eta Lurralde Garapen Saila. 2019

Bizkaiko Foru Aldundia. Bizkaiko fauna exotiko inbaditzailea. Bizkaiko Iraunkortasunerako Institutua. 2012

Bizkaiko Foru Aldundia. Flora aloktono inbaditzailea Bizkaian. Bizkaiko Iraunkortasunerako Institutua. 2010

Bizkaiko Foru Aldundia. Bilbao Metropolitarraren Lurralde Plan Partziala. Hirigintza eta Udal Harreman Saila. 2006.

Bizkaiko Foru Aldundia. Bizkaia 21 Egitasmoa. 2005

Bizkaiko Foru Aldundia. Bilbao Metropolitarrako Paisaiaren Katalogoa eta Zehaztapenak. 2019

Energiaren Euskal Erakundea (EEE). Euskadiko mapa geologikoa. 1991

Eusko Jaurlaritz. EAEko Lurralde Antolamenduen Gidalerroak. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. 2019

Eusko Jaurlaritz. Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. 2002

Eusko Jaurlaritz. Klima-Aldaketaren Aurkako 2050erako Euskal Estrategia. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. 2015

Eusko Jaurlaritz. Euskadiko Energia Estrategia 2030. Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila. 2017

Eusko Jaurlaritz, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Ihobe, Udalsarea 21eko Idazkaritza Teknikoa eta Tecnalia Research & Innovation, Enea Estrategias para la Sostenibilidad SLrekin lankidetzan. EAEko udalerriek klima-aldaketaren aurrean duten kalteberatasunaren eta arriskuaren ebaluazioa. 2019

Eusko Jaurlaritz. EAEko airearen kalitatearen urteko txostena. 2019. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. 2019

Eusko Jaurlaritz. Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoruen inbentarioa. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. 2017

Eusko Jaurlaritz. Euskal Baso Plana. Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila. 1994

Eusko Jaurlaritz. Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala. Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila. 2014



Eusko Jaurlaritz. Jarduera Ekonomikoetarako Lurzoria Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala. Ingurumen eta Lurralde Politika Saila. 2004

Eusko Jaurlaritz. Hezeguneen Lurraldearen Plan Sektoriala. Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila. 2004

Eusko Jaurlaritz. Lurzoru kutsatuei buruzko plana. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. 2007

Eusko Jaurlaritz. EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldea Plan Sektoriala. Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila. 2013

Eusko Jaurlaritz. IV Ingurumen Esparru Programa 2020. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. 2014

DB-HE 2019 Aplikazio Gida. Eraikuntzaren Kode Teknikoa. 2020ko abuztua

Ihobe. EAEko Geodibertsitatearen Estrategia. Eusko Jaurlaritz. 2014

IKT; PAISAIA. EAEko Paisaia Bikain eta Apartekoen Katalogo irekia-Aurreproiektua. Ingurumen eta Lurralde Plangintza Saila. Biodibertsitatearako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritz. 2005

IKT. Euskal Autonomia Erkidegoko Korridore Ekologikoen Sarea. Ingurumen eta Lurralde Plangintza. Eusko Jaurlaritz. 2005

LASUMA paisajistas. Plan de Acción del Paisaje para la fachada marítima de Getxo. 2016

Tecna, Tecnología de la Naturaleza S.L. Itsasertza Babesteko eta Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana. Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila. 2007

Xabier Buenetxea Aragüés. Seguimiento faunístico del humedal de bolue getxo-bizkaia. 2003

Xabier Buenetxea Aragüés, Elena G-S Somavilla, Ziortza Ayaso Choya. Plan de actividades faunísticas y de gestión del medio natural humedal de Bolue. Getxo (Bizkaia). 2005-2006

Xabier Buenetxea Aragüés, Elena G-S Somavilla, Ziortza Ayaso Choya. Estudio y valoración faunística del tramo costero Arriqunaga-Barinatxe, en Getxo (Bizkaia). 2006

Xabier Buenetxea Aragüés. Inventario y Seguimiento de la Avifauna Indicadora del municipio de Getxo (Bizkaia). 2013

Xabier Buenetxea Aragüés. Sapo corredor (Bufo calamita) Monitorización de la población del municipio de Getxo (Bizkaia). 2013

Online iturriak

<https://web.bizkaia.eus/es>

<https://www.euskadi.eus>

<http://www.euskalmet.euskadi.eus/>

<http://www.eustat.eus/>

<http://www.geo.euskadi.eus/>

<https://www.ine.es/>

<http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/>

<https://www.uragentzia.euskadi.eus/>

<ftp://ftp.geo.euskadi.net/cartografia/>

I. ERANSKINA

LANTALDEKO ETA TEKNIKARIEN TALDEAREN AUKERAK (2014-2015)

II. ERANSKINA

ANÁLISIS DE PRESENCIA DE LOS HÁBITATS PRIORITARIOS 6210* LASTONAR Y 4040* BREZALES COSTEROS EN EL TÉRMINO MUNICIPAL DE GETXO

III. ERANSKINA

ERREFERENTZI AGIRIA

KARTOGRAFIA ERANSKINA

1. Hiri Antolamenduko Plan Orokorra
2. Ingurune fisikoa

KARTOGRAFIA ERANSKINA

1. Hiri Antolamenduko Plan Orokorra

KARTOGRAFIA ERANSKINA

2. Ingurune Fisikoa

1. mapa: Kokapena
2. mapa: Geologia
3. mapa: Interes geologikoa
4. mapa: Erliebea
5. mapa: Maldak
6. mapa: Esposizioak
7. mapa: Geomorfologia
8. mapa: Geoteknikoa
9. mapa: Iragazkortasuna
10. mapa: Akuiferoen zaurkortasuna
11. mapa: Hidrografia
12. mapa: Edafologia
13. mapa: Landaredi potentziala
14. mapa: Landaredia
15. mapa: Lurzoruaren erabilera
16. mapa: Paisaia
17. mapa: Batasunaren interesko habitatak
18. mapa: Naturguneak
19. mapa: Arrisku naturalak
20. mapa: Arrisku teknologikoak
21. mapa: Nekazaritza eta Basozaintzako LPS
22. mapa: Ibaiak eta Errekak Antolatzeko LPS
23. mapa: Hezeguneen LPS
24. mapa: Itsasertza babesteko eta antolatzeko LPS
25. mapa: Ingurumen Kalitatearen sintesia
26. mapa: Ingurumen eta paisaia ikuspegitik homogeneoak diren unitateak